

## Euskaltzainak Bilduma

### Argitaratuak:

1. *Gratien Adema*. Zaldubi Saindu batzuen biziaz. 2007
2. *Pierre Charritton* Pierre Broussain. 2007
3. *Pierre Lhande* Yolanda eta beste euskarazko idazlanak. 2007
4. *Gratien Adema*. Zaldubi Artzain beltzaren neurtitzak. 2008
5. *Antonio Arrue* Idaztiak & Hitzaldiak. 2008
6. *Domingo Agirre* Gutun bilduma. 2008
7. *Txomin Peillen Karrikaburu* Biziazen Hiztegiak. 2009
8. *Gorka Aulestia* Estigmatizados por la guerra. 2009
9. *Jean-Louis Davant* Zuberoako literaturaz. 2009
10. *Gratien Adema*. Zaldubi Kantikak. 2009
11. *Santiago Ezkerra Beltza*. Lizarrusti Bizitza eta lanak. 2009
12. *Gratien Adema*. Zaldubi Prediku Zenbait. 2009
13. *Martin Maister* Jesú Kristen imitazioa. 2010
14. *Gorka Aulestia* Escritores euskéricos contemporáneos. 2011
15. *Gratien Adema*. Zaldubi Alegiak eta bertze neurtitzak. 2011
16. *Gratien Adema*. Zaldubi Bertze prediku batzuk. 2011
17. *Junes Casenave-Harigile* Xiberoko antzertia edo pastoral. 2011



*Euskaltzainak* izeneko bilduma berrian euskaltzain izan diren eta direnen obrak eta eurei buruzko azterketak argitaratuko dira, Akademiaren historiarako esanguratsu gertatu diren hainbat egileren lanak ere alboratu gabe.



Euskaltzaindia  
Real Academia de la Lengua Vasca  
Académie de la Langue Basque

Laguntzailea:



## JUNES CASENAVE-HARIGILE

# XIBEROKO ANTZERTIA EDO PASTORALA



**EUSKALTZAINAK BILDUMA**  
**EUSKALTZAINDIA**



JUNES CASENAVE-HARIGILE

Aita Junes Casenave-Harigile 1924ko apirilaren 4an Urdax/Santa-Grazi herrian (Zuberoa) sortu zen. Aita biarnesa eta ama santagraztarra zituena. Apezgaia Bètharramen (Biarno) izan zen eta 1948an Betlehem (Palestina) betarramista apeztu zen.

Limòtgesen (Okzitania) hamabi urtez hizkuntza klasikoko irakasle izan zen eta gero Donapaleun, Etxekopar kolegioko zuzendaria izanez (1964-1981). Irakasleen heziketaz arduratu zen eta pedagogia ikuskaria izan zen. 1981an Zuberoara itzuli zen apez gisa, bi urtez Larrainera eta ondotik Altzaira 2010a arte. AEKn ere euskara irakatsi zuen hamabost urtez. Orain, Donapaleun bizi da betarramisten etxean.

1982an euskaltzain urgazlea izendatu zen eta 2000tik ohorezko euskaltzaina da.

Bere ikerlanek alor bat baino gehiago ukitzen dute: erlijioa, mitologia, historia, etnografia, herri-sineskizunak eta medikuntza herrikoia bereziki, pastoral. olerkigintza, ipuinak, euskararen irakaskuntza... Bere literatura idazlanek sari eta omenaldi asko eskuratu dituzte. Idatzi dituen pastoraletatik II emanik izan dira. Zuberera ikasteko eta lantzeko tresna batzuk sortu ditu: gramatika, hiztegiak, ikasteko metodo bat, lexiko batzuk eta itzulpenak. Liburu honen bukaeran idazle emankor horren bibliografia osoa emana da, oraino argitaratu ez diren eskuizkribuak barne.





JUNES CASENAVE-HARIGILE  
XIBEROKO ANTZERTIA EDO PASTORALA

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:

[www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:

[www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:

[www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:

[www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)

© Junes Casenave-Harigile

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Diseinua: Ikeder, S.L.

Aurreinprimatzea: Ikur, S.A.

Inprimatzea: Baster, S.L.L.

ISBN: 978-84-95438-83-6

Lege-gordailua: BI-73-2012

JUNES CASENAVE-HARIGILE

XIBEROKO ANTZERTIA  
EDO PASTORALA

EUSKALTZAINDIA

BILBO  
2011



# EDIRENGIA

Andres Urrutia euskaltzainburuaren atarikoak .....	IX
Eskerrak Aita Junesi (Jean-Louis Davant)	
Atzinitz .....	I
Xiberoko antzertia .....	5
1. Pastoralak: Zergatik izen hori? .....	7
2. Nontik dugu pastoralak? .....	9
3. Idazkia .....	15
3.1. Idatzantoladüra	
3.2. Idazlana	
4. Geia: Zer nolakoa .....	17
5. Antzokia .....	21
6. Antzekideak .....	23
7. Jokülariak .....	25
8. Abioak eta lehen ürratsak .....	27
9. Pastoralaren hasia .....	29
10. Antzezarauak .....	31
II. Antzezlana .....	35
II.1. Hatsarreko antzezlana .....	35
II.1.1. Tauladala igaitea .....	35
II.1.2. Hatsarrea .....	36
II.1.3. Lehen perediküa .....	36
II.1.4. Sargietan sartzea .....	37
II.1.5. Satanak agertzen .....	38
II.2. Jelkaldiak .....	38
II.2.1. Jelkaldi orokorrak .....	38
II.2.2. Jelkaldi bereziak .....	40
II.2.3. Antzekideak mintzo .....	40
a) Antzezlari arruntak	
b) Antzezlari bereziak	
II.2.4. Tauladatik elkitze .....	42
II.2.5. Kürützatze .....	44
II.2.6. Güdüa .....	45



II.2.7. Kantorea .....	45
II.2.8. Ürrrentzea .....	45
II.2.9. Antxerak .....	46
12. Dantza .....	47
13. Música .....	49
14. Zahar herexak .....	51
15. Antzerti ezagugarriak .....	53
16. Erran nahiak .....	57
I6.1. Betiereko borroka .....	57
I6.2. Haütüa .....	58
I6.3. Antzokiaren eragina .....	58
I6.4. Antzezkideak .....	61
I6.5. Gaüzak .....	62
I6.6. Jelkitzeak .....	66
I6.7. Egintzak .....	66
I6.8. Dantzaren eragina .....	69
I6.9. Musikaren eragina .....	70
17. Eüskal izatean .....	73
Ondorioa .....	75
Pastorala gero .....	77
Junes Casenave-Harigilen gogoeta elibat bere idazlanetzaz .....	79
1. Ene idazlanak	
2. Eüskara	
Junes Casenave-Harigilen bibliografia .....	81
Argazkiak .....	83

## PASTORALA, ZUBEROAREN ESPIRITUA

Ohorezko euskaltzaina dugu Junes Casenave-Harigile. Ohorezkoa eta esan dezadan argi, nor dena pastoralaren eremuan.

Eremu zabala da hori, alde eta alderdi askotatik begira daitekeena. Alde atse-gingarria, ikuskizun ederra eskaintzen baitigu horrek, urtero-urtero, bateko eta besteko euskaldunei, zin-zinezko euskal antzerki tradizionala zer den jakiteko eta aldi berean, berori gozatzeko.

Bakanagoak dira, alabaina, pastoralaren inguruko lanak, euskaraz onduak eta moldatuak, antzerki joko horren zergatiak eta nondik norakoak egoki eta xehe-xehe begietaritzen dizkigutenak.

Halakoa egin digu oraingoan Junes Casenave-Harigile zuberotarrak. Tenore berean hartu dugu guk ere euskararen akademian, uste baitut eskertzeko modu-koak direla haren ahalegina eta obra, hain zuzen ere, Euskaltzaindiak Euskaltzainak izeneko bilduman barruratzen dituen ohore handiz.

Hartara, Euskaltzaindiak testu honen argitaratzea eta plazaratzea lortzen du, Euskararen Erakunde Publikoaren laguntzarekin. Eskerrak, beraz, laguntzaileari eta hona, beste behin ere, bi erakundeen artean, urtez urte garatzen eta jendau-rraan jartzen dugun argitalpen egitarauaren emaitza zolia.

Berri pozgarria da, beraz, garai latz hauetan zubererazko liburu bati harrera egitea eta ongi-etorria ematea. Izan ere, Euskaltzaindiak halakoak egin ditu orain arte, halakoak egiten ditu orain ere eta baliabideak izanez gero, halakoak ere, egingo ditu aurrerantzean, horiek baitira Zuberoarentzat eta oro har, Euskal Herria osoarentzat ere, onuragarri eta profitagarri.

Zer esanik ez, gidari ziurrak eta trebeak ditu Euskaltzaindiak langintza horretan. Oraingoan Junes Casenave-Harigile egokitu da zeregin horretan, ohiko duen esku fin eta gogo zorrotzarekin. Gerokoan, hala espero dezagun, beste zuberotar batzuk ere etorriko dira, guztion euskaltzaletasuna berrindarturik atera dadin Zuberoako herrialdean.

Andres Urrutia  
*Euskaltzainburua*



JUNES CASENAVE-HARIGILE, *Eñaut d'Elizagarai pastoralala*

(GAMERE-ZIHIGA, 2007)

[surlaroute.blogs.sudouest.fr](http://surlaroute.blogs.sudouest.fr)

## ESKERRAK AITA JUNESI

Idazlan hontan, trajeria zer den argitzen deigü Aita Junes Casenave Harigilek, eta lehenik agertzen nontik horra zaigün orai üsüenik emaiten deiogün izena: pastoralala. Xehetarzünetan ez niz sartüko, xüxenka irakurtzea nausi beita. Junesek gei horrez artikülü hanitx izkiribatürik badü han eta hor, eüskaraz ala frantsesez. Hebenko lan honek hedadüra orokorrago bat badü, ene ustez, gure antzerti horren berri aski zabal eta osoki hartü nahi dügüentako egokia.

Junesek ontsa badaki zertan ari den, bai teoriiaz, bai praktikaz, ez beita jakitate hütsean baratü: hamar trajeria badütü emanarazirik eüskaraz, hamekagerren bat frantsesez, Biarno hüllaneko Landa (Lanne) herrian, eta beste zonbat orano eüskaraz idatzirik, emaiteko prestik?

1976ko üdan, Junes pastoral idazle berri agertü zen bere Urdatx / Santa Grazi herrian, eta izen hortako antzerkia herritarrek antzetzü zeioen, arrakasta handi bat ardietsiz. Junesek trajeriari noblezia garbi bat ekarten zeion, bai krakan, bai mintzajejan, eta molde berri hori zinez gustatü zeitan. Ordüan hasi nintzan pastoralaren egiazki maitatzen. Aitzinetik printzipiozko etxekimentü hotza neion, teorikoa: gure altxorra zelakoz ürgazten nüan soilki, axaletik bezala. Hor pastoralaren arima senditu nüan barnoiki, eta geroztik etxeki nitzαιο.

Hona Junesek antzetzürik üken dütüan hameka trajerien izenbüriak, antzeleen herri edo taldeen izenekin:

- I - *Santa Grazi*, 1976, Urdatx / Santa Grazi
- 2 - *Ibañeta*, 1978, Arbaila txipiko gizon elibatek, Garindainen, Auritzen
- 3 - *Pette Basabüriü*, 1982, Pagola
- 4 - *Zumalakarregi*, 1989, Altzai-Lakarri
- 5 - *Santa Kruz*, 1992, Urdatx / Santa Grazi
- 6 - *San Mixel Garikoitz*, 1994, Donaixti Baxenabarre, Nafarroa Beherea)
- 7 - *Juan Martin Pueyrredon*, 1997, «*Pastorale de Lanne en Barétous*»
- 8 - *Agota*, 1999, Altzai-Lakarri
- 9 - *Jesüs*, 2006, Maule, Saint-François (d'Assise) ikastetxeko ikasleek
- 10- *Santa Engrazi*, 2006, Urdatx / Santa Grazi
- 11- *Eñaut Elizagarai*, 2007, Gamere-Zihiga.

Holako üzta, ez ahal da gütiz üztekoa! Gaineala, bere ekoizpen joriaren arar-tez, Junesek ekarpen orokor bat egin deigü, argigarria, ondoko pastoral idazleer:

- eüskararen mail gora bat, bereziki hiztegi aberats eta xahüa, erranaldi artz eta sotilekin: eüskara astegünenaren orde, eüskara igantena;

- historia handiaren errespetüa: aitzinetik, trajeria frantsesezko libürüxka bate-tarik egokitzen züen, nahiz hura ipüinez eta lezendaz kozatürrik zen; Junesek aldiz historia handia libürü eta paper zaharretan ikertzen dü lehenik, zorrozki, eta gero istoria berezia dokümentü haien arabera hontzen;

- zorroztarzüna ekarri dü bertsogintzan ere: aitzinetik neurtitzen lüzegoa kan-biakor zen; Junesek hamasei silabatara ekarri dü, erditik zatitüz zortzi zankotako bi partetan. Asonantziaren orde üsü, egiazko ürrentotsa edo errima sartzen dü.

Ez dira horik Junesek egin eta egiten deizgün ekarpen bakoitzak. Pastoraleko legeen errespetüala bulkatzen gütü orokorki, eta idazlan hontan azkenik, lehen legea delarik idazkiaren nausigoa. Testuak oro manatzen dü, edo kasik oro: antzez-leen eta kantarien hitzak prefosta, bena lehenik « *scenario* » delakoa, trajeriaren plana, jelkaldiak, joan-jin handienak, antzerkiaren giroa eta kraka. . .

Pastorala ez da kantaldi bat, ez eta dantzaldi bat. Lehenago bizpahiru satane-kin emaiten züen. Dantzaldi bat, edo kantaldi bat, edo biekiko jei bat, hanitxez aisago eta merkeago planta daite bestalde, pastoralik gabe. Pastorala antzerkia da, teatre. Norbaiten istoria txipia kontatü behar dü, historia handiari lotürrik (h hor-rek handia txipitik bereizten düalarik). Eta istoria bat ez daite konta hitzik erran gabe. Marrazki bizidünetan ere, hitz eta erranaldi elibat agertzen dira burbuiletan, zer agitzen den aski klarki erakusteko. Trajerian idazleak testua sobera mozten badü, istoriaren haria gal dirogü. Argibide zorbait behar dira, eta bereziki zübüak jelkaldi batetik besteala igaraiteko.

Pastorala zinez arriskütan ezar lezake, nik uste, idazlearen testuaz a-xolik ez lükeanak, beti llabürtzera bulkatü nahi gütükeanak. Holakoak badira maleruski: ez dakie zer den egiazki pastorala. Klarki erran behar deigü: arren ikas ezazüe, bestela bakea eman hortik! Ez guri erran, astoki, pastorala beti ber gaüza dela, « *la pastorale, c'est toujours pareil* ». Eta euskaldün kasetalari zorbait ez eni haboro galta « *aurtenko pastoralak zer dü berririk?* » Berritzapenik handiena dü istoria berri bat kon-tatzen düala, eta kito! Errügbiko legeak, konparazione, partida batetik besteala kanbiatzen ote dira? Ez, prefosta! Bena ez dü horregatik erranen: « *Le rugby, c'est toujours la même chose!* » Idea horik xehekiago ikertüren düüt orai berean.

« *Zer berrikuntza dü aurtenko pastoralak?* » Arren hori da, urte oroz, azken kantorea ürrentü baiko, berrikari elibatek lehen-lehenik galtegiten deitadeena. Enetako galto horrek ez dü zentzürrik. Pastoral bakoitzak ekarten düan berrikuntza handiena, istoria berri baten kontatzea da. Hori bera da pastoral edo trajeriaren funtsa, isto-ria baten ikus eta entzütera emaita: norbaiten edo zorbaiten bizia, historia han-diko zati bati lotürrik. Eta hori aldikal berri da, ber pastorala ez beita urte batetik besteala arrapikatzen, lehenago üsatzen züen bezala.

Pastoral edo trajeriaren fundamena ez da behinere ahatze behar. Izkiribainoak ekarten dü bere idazkiaz, eta harek idatzi testüan hoinarritzen da entzün-ikuski-zün osoa. Pastoral errejentak ekei eta pasta hori kozinatzen dü sükaltari hon batek bezala, eta jokülarier irentsarazten. Hon beno hobe da idazlea eta errejenta beti esküz-eskü ari ditean, algarri zonbait ideaia sotil emanez mustraka batetik besteala, ürrrentzealano. Errejentak begi xüxena dü, badaki tauladan agertzeko eta igitzeko, zer den hobekienik. Üsantxaren artzaina da, eta ber denboran berrikuntza haboroheen asmazale abill, trebe, zühürra.

Idazleak ere asmakizün elibat proposa detzake, bena zonbait aldiz desegoki gerta ditake, pastoralaren egitürak ez dütüalakoz ahalbidetzen edo baimentzen: ordüan errejentari fidatüz, honartzen dü berrikuntza horien bazter üztea.

Eüskaltzale zonbait ari zaizgü tai gabe tzistakan, pastoralaren atsülütoki kanbiarazi nahiz. Bena zeren kanbiatü behar günüke? Arrakasta handia dü trajeria klasikoak, testü hon bati bermatürik: ertxo eta pek izan behar günüke hortarik hürüntzeko, egarten gütüan haritx adarraren moztea lizateke. Nik ja eneak maite dütüdan bezala moldatüko düüt orai arte bezala, nahi düan herriak edo taldeak emanen dütü, eta nahi den jentea jinen da entzün-ikustera. Mementoan pübliko zabalaren estimüa badüt, eta ez deiot hüts egin gei, pazentzia gabeko bakant elibati kausitü beharrez.

Norentzat kanbiatü behar günüke? Pastoral maite ez düenen? Beti izan dira holakoak: orit niz haur denboran adinetako elibatenganik entzünik «*pastorala beti ber gaiüza düzü*». Erraileak joan dira, maleruski denak noizbait joanen giren bezala, eta pastoral maite bizi da, zentzüzko berritzapen txipi eta homeopatikoa elibati esker. Xirürjiak eho liro: sobera kanbia bageneza ez lizateke haboro trajeria, eta hil laite.

Horren kantüan beste antzerki motarik asma dezake nahi düanak. Etsenplützat hor dütügu Berzaitz eta Quéheille pastoral idazleak, beste gisako pieza elibat ere hontzen dütüenak. Hor libertate haboro edireiten dü idazleak, agian errejentak ere. Haatik aktürak ez dü lan aisa ez da pastorealean bezala betiko ürratsetarik ibiltzen ahal, manera berririk ediren behar dü.

Dena dela, XX. mente güzian pastoral maite emeki-emeki aberastez jin zaigü, ibai bat bezala, beti ber isuritik, hauskürarik gabe, bidenabar aldi aldiko errekek beretüz. Urte bakoitxak berrikuntza txipi elibat dakartza, haatik iraültzarik gabe.

Konpara dezagün errügiari, zankobaluari, eskübaluari, saskibaluari: fundamenezko legeak ez dira kanbiatzen partida batetik besteala, eta lüzealat ere ahal bezain gütü. Noiztara doi-doi erregela xehe bat edo beste arraberritzen da. Halere ihork ez dü erraiten adibidez «*errüjbia beti ber gaiüza*» dela. Aldikal partida berri bat ikusten da, ezbardina. Halaber trajerian: aldikal istoria berri bat, eta gaineala beste idazle bat (hamabi girade, Jesüsen apostolüak bezala), beste pastoral errejent bat, beste herri edo talde bat, bakoitxa bere kraka bereziarekin, hots aldikal pastoral berri bat.

Aski klar izan niza? Arren otoi ez eni haboro galta: « *Zer berrikuntza dü aurtenko pastoralak?* » Denbora galtzea lizateke bientzat. Eta pastorala maite ez düanak hobe dü ez jitea, denen osagarriagatik. Ene trajeria batetan bereziki, bi jaun borogatu ziren tribüna ofizialean gora jarririk, piezaren jüdikutzen tai gabe, denbora güzian, üngürükoen kaltetan. Bazkari hon bat eginik beitziren, hobe zükeien pausüalat joanik.

Pastoralean debeiatzen balin bazira, horrek erran nahi dü, ene ustez, istorian ez zirela sartü, kalakan erauntsi düzüla soberaxe, haria galdürük, edo üngürükoen solazek nahasi zütüela: üsüegi agitzen dena maleruski, kermezala bezala horra beita püblikaren zati bat, entzün-ikuskizün eijer batetan inganatzera, trajeria zer den ikasi gabe. Haatik püblik berrian bada beste parte bat historia ezagütü nahi düana, bereziki eskolatürük den gazterian.

Geiak ere badü bere pezüa. Haütatzean idazleek kasü egin behar dügü: bada-kigün bezala, « trajeria » da pastoralaren beste izena. Epopeia bat da fundamenez eta zolaz. Gei eta heroi epikoak behar dütü. Gei arruntagoentzat hor diaudetzü beste antzerti motak, zahar ala berriak. Pastorala bego bere bidetik, bestela galdüko da eta hilen, Grezia zaharreko tragedia hil zen bezala, gero halaber Frantziakoa, banalizatü zirelarik, beren isuri epikotik desbidealatü.

Pastoraleko bertsetaz ere hitz bat: ez da egiazko « *quatrain* » edo laueko bat, bi erranaldi dütü normalki, betiere bi neurtitz edo « *vers* », beraz bi hizki edo letra larri hastapenetan, eta bi errima edo ürrentots bürüetan. Üsüenik bertseta lau herrokatan agertzen dügü, ützülpinari lekü baten ützeagatik ere, bena zombait aldiz bi herrokatan irakur daite: ikus adibidez *Aimonen lau semeak* (Sohüta / Sorhoetan 1984an), eta *Xiberoko jauna* (Ezpeizen 2008an).

Laster ürrentzera noa, Aita Junes Casenave Harigileri eskerrak emanez, Xiberoko pastorala zer den ximenki oritarazten deigülakoz ondoko idazlan horrez, eta etsenplü hona emaiten bere hamar eüskal trajeria klasiko aratzez. Gorago errana oro llabürbiltzez, Xiberoko eüskal pastorala zer den: trajeria, antzerti epikoa, testu aski jori batekin, istoria baten ontsa kontatzeko gisan, historia handiaren eta hizkuntzaren erresetüan; istoria seriosa, nahiz erri egiteko builtak ere badiren noiztara: ez giaudezü Grezia zaharreko edo Frantziako tragedia oso beltzean, bena kiristi trajeria baikor eta optimistan: üsüenean honkia nausitzen da heben azkenean, gora-behera handi elibatzen ondotik, zelüko indarren lagün-goari esker. Aldikal berri da pastorala, aldikal istoria berri bat kontatzen düalako. Hori da beharrena: istoria bereizi bat, majiaz beterik, ederki kontatürük eta emanik.

Haur baten bihotzarekin sar gitean istoria majiko hortan, eta ontsa beha gitzaiön. Bestela debeiatzea günüke, eta ondorioz arrazu gabeko berritzapenen bilatzea, testüaren kaltetan. Üsüan hirur orenez emaiteko gisan antolatzen dü idazleak: lüzapenak jokülarien harat-honatetarik horra dira, gero eta haboro beitira taula-

dala igaiten direnak. Egiazko arazo edo problema berri bat agertü zaigü hor azken hogei urteetan: ez dago idazlearen eskü.

Egünko badüt aski erranik. Orai entzün dezagün Aita Junes Casenave Harigileren ele xüxena, hitz argia, irakaspen baliosa.

Jean-Louis Davant  
*Eüskaltzain emeritüa*





## AITZINITZ

Ontsala, pastoral zen artzainak eta artzaintsak antzekide beitzütuan antzerki bat. Hala zaitekean besteetan, bena gure Xiberoan ez.

Xiberoko pastoral, prefosta, antzerki bat da; haatik, hartan diren antzekideak ez dira artzain edo artzaintsa; zoinahi izan ditake: errege, handiki, gudalozte aitzindari, saintü, politika gizon, jente xehe, gizaki egiazkoak edo ipuinekoak, ikusliarrek mirets ditzakeenak edo beren jarraibide har ditzakeenak.

Arren, pastoral ikusgarri bat da eta jente hanitx biltzen dü. Milaka daude, lau edo bost mila, ohiduraz berritan eskentzen diren emanaldien ikustera jiten direnak.

Herri agerraldi bat da. Lehenik haren antolaketa ikusiz; herri batek beregain hartzen du, arizaleak herritarrak dira, erran nahi beita pastoralzale, ez beren ündülgüarengatik haütatürrik, ez eta batere haütatürrik. Ez düe hortan beren bizipi-dea. Hau beste düe edo zoin lanetan; beren ogüz ari dira; orokorki berrogei, lautanogei... dirate. Ikasteko, hilabete zonbaitez algarretaratüko dira, gaüaz, beren lanetik landa. Ari ez direnek, beren gisa, beste zerbait eginen düe, lehener beren lagün-goaren ekarteko. Badükee zer egin: sarjelkiak, aipüka eta jakinarazte, antzezgünea, jauntsiak, taulak, jargiak, ikusleer batzarri egitea, gaüza güzier begi kaldü baten egitea... Berrehün edo hiruehün bizi diren herri batentako, ehün bat ariko dira emanaldi egünean, oro eginik izan dadin den hobekienik.

Herri agerraldi bat da ere, lana asmatürrik den arabera. Ikuslea hartzen beitu gogozkari eta zentzüdün, eskentzen deion trajeria bere gogoan berak bilba dezan nahi dü. Zeren eta ez deion gaüza bat iragan den bezala berriz agertzen, bena bai trageria bat, historia bat, bizitze bat kontatzen. Arren ez dü zoinahi apaindurarik erakusten non zer iragaiten den. Ikusleak berak dütü gogoan erabilten egintzaren ürratsak, zer izan den; ordüan bera nolabait arizale eta egile bilakatzen da.

Antzekideek, üdüri düe antoladüra hirukoitz batetan daudela; beren üngürümena: lürra, zelüa, ifernüa. Egiaren erraitera gizarte bizitze bikoitz batetan ari dira: honkia eta gaizkia. Haatik horik ez dirade baitezpadakoak. Ez dira nahasirik. Hor izaten da honen eta gaixtoen borroka. Hau da lehenek borrokan ari behar düela bigerrenen aitzika. Oro har, honkia goitzale elkitzen da beti, gaizkiak deüs ez deza-keala. Saldo bakoitxaren üngürüan ebilten dira goikoak: Aingürüek honer beren lagüngo ekarten deie, Sataneke taigabe gaixtoak zirikatzen dütüe.

Zatikatze hori beharrezkoa da. Horrek dü, bai, tauladaren hokian ezartea manatzen. Hau kanpoan eraikirik dago, güne goxo eta eder batetan. Badü hamabi metra karratü. Hütsik da; doi doia, bazter batetan, kaidera bat eta mahainxkot bat, errejentarentako. Honek, pastoralaren lüzean, hor dü bere leküa. Liliz eta abar berdez apaintürük den oihal xuri bat tauladaren gibelean eta aitzinearen artean ezarririk da. Oihal horren bi gaintietan, ikusleer bürüz, eskuinean honen urdinezko jelkigia, eskerrean, aldiz, gaixtoen gorrizko jelkigia. Kolorea beita antzezkideen ezagügarri berezia. Oihal horren gibelexean eta erditan, metra zombait gora, musikarien egongia. Gorrizko jelkigiaren aldegainean, Satan itxüra igikor bat. Egiaz, besterik ez da.

Pastorala ari delarik, saldo bakoitxak badü bere ürratsa: baratx eta züzenezkoa urdinentako, gaitz eta builtazkoa gorrientako, doikoa eta airezkoa Aingürüentako, kexü gorrikoa eta ezinegonekoa Satanentako. Ber gaüza erran genezake mintzoari bürüz eta egin behar dütuken keinu güziez. Gizakiak makilaz düntürük dira; beren ebilaldian hareki izarian joiten düe, talde bakoitxak bere jitearen arabera.

Egiaren erraitera, antzezkideak ez dira elestatzen, ez eta ere ebiltzen. Emanaldiaren lüzean, kantaz mintzo dira, dantzaz ere harahonakatzen. Alkarrizketa basaeresi bat balde emanik da, hiru sonü dütüan rektoto batetan. Igitaldiak pikoan emanik dira eta ontsa antolatürük den bide batetan.

Alabena, noiztenka, kantoreak ere emaiten dira, edo bederazka edo alkarreki, pastoral bakoitxaren geiaren arabera. Ontsa ageri da ahaide zombait zahar direla. Dantza bereziak ere ikus ditake. Bena orozgain Satanek dütüe emaiten, jelkaldien artean, oro arintarzün eta xügüntarzün.

Ondorio bezala, erran dezakegü gure Xiberoko antzerkia arau hersi baten arabera emanik dela. Arau horrek bai bere ikusmoldea, bai bere emanmoldea manatzen dütü. Arau hori ontsa ageri da ützülungürüetan, bakoitxak eta oroek alkarreki egin keinüetan eta musikan ere. Ezin daiteke iholaz ere hunki, pastoralaren izatea bera ezeztatü gabe. Hala nola, arizaleak bere bürüa ahatz eta ez düan behar erakutsi berak zer senditzen düan; lerden eta txüt egoiten da, bere barnea ixilik bezala gordez.

Xehetarzün horien arabera, oraiko antzerkitik hürrün izanik, antzerki zahar bat da gure pastorala. Ez dü ez aldi ez güne mügarik: gaüzak iragaiten dira bizitze oso batetan, bai eta ere menteetan. Orotarik aipü da: ipuin, olerki ezbardinak, lazgarriak, errigarriak... Lana hiru zatitan dago: aitzinitza edo lehen perediküa, hogeni bat bertset dütüana, gertakariak jelkalditan herrokatürük, eta azkenta edo azken perediküa. Güziak bertsetan idatzirik dirade. Horik, aldiz, hamasei zanko düen bi zatikoak, bena lau zotükükoak. Zati horik oro ahaide ezbardinekoak.

Zombaitek Greziako antzerki zaharrarekilanko askazgoa bat nahi üken düe hor ikusi. Bena, gure pastoralak ez dü hoieki deüs ikustekorik, bere ereduak badütü. Xüxen da ikustea, gure jitean berean düela beren erroa, han hor, beste herri güzi-etan bezala, izan badira bestekilanko harremanak. Idatzi zaharrak ments dire-

lakoan, ez da erres erraitea zer dabilan ontsala. Bena, gure pastoralak kultura sail aberats batetan sartzen da: idazkiak, olerkiak, beste antzerki melga, hala nola errigarriak, eta ororen gaintik milaka eta milaka urteak dütuan mintzo baldegabea.

Bestalde, pastoralak arrunt beste mündü batetara erakarten gütü. Arauetarik harat, gük izadi güziaz dügün idüria zabaltzen da. Barnago joaitez, jo dezakegü gure mitologiaren alor aberatsa. Düdarik ez: gure hatsarre hürünetarat eramanik girade.

Xiberoa harro dago oraiartino pastoralak bizi etxeki beiti. Arraheinki begiraten dütüalarik haren egitura eta arauak, taigabe hats berri bat emaiten deio. Holatan eüskal kütürari eta mündü zabalekoari bere aberastazün berezia emaiten deie.



## XIBEROKO ANTZERTIA

Güziek badakie Xiberoan badügüla antzerki kente bat, “pastorala” deitzen dügüna. Lehen begi kaldüan, ontsa ageri da beste antzerkiek ez bezalako arauak badütüala, haietarik oso berezia dela. Antzerki bezala, holako edo halako geiaren üngürüan antzetzürük da; geia hanitx izan daiteke eta ezbardina.

Haatik nola emanik den eta nola xüxen eman daitekean ezinago beharrezkoa da jakitea, bere joküan edo erabilkan zer legeri jarraitzen den. Lege hori ez da nolana hiko eta ez daiteke alda norberaren nahitara, horrek beitu orozgain antzerki horren berezgoa ozkatzen. Lege horren erabiltea da antzertia. Arren, *antzerki* hitza baliatzen dügülarik, hau geiari edo ekeiari бүрүz da. Aldiz, *antzertia* aipatzen dügülarik, nola emanik den, zer den haren jokamoldea dügü gogoan.

Gure ohizko antzerkiak zernahi ekei har dezake; antzertia, bere gaintitik, ez da edozoinahi beste antzerkien arabera. Hortan düttügü pastoralaren arauak edireiten. Hau da, antzertiak dü antzerkia manatzen, bai nola idazten den, bai nola tauladan eskent daitekean, bere izatetik ez baztertze.

Orairtino, herriko ohidürak batere nekerik gabe belaünaldi batetik besteala iragaiten ziren. Bai dantza, bai kantore, bai ipuinak herrian berean herritarren artean ikasten ziren, eta etxeetan ere бүрасоek haurrak eskolatzen zütüen. Gure antzerkiarentako hala hala zen eta denek bazakien üsantsa zaharren berri.

Egünko egünetan, herriak eta etxeak kanpoari hanitxez haboro idekiak beiti-rade, kanpoko gaüzek eragin handia hartzen düe. Arrisküa bada, uste ükeitea edo kanpotiarrentako aldaketa zonbait beharrezkoak direla edo gizarte honen arabera bide oso berri bat jarri behar dela.

Telebista gure kültürari arrotz da eta gure herriko gaüzak ez dütü aipatzen, orano gütiago gure kültüra. Girgilleria arinak deizgü eskentzen, lotsaz eta ikusentzüleak aspert ditzan. Gogo bihotzak hazteko eta goratzeko orde, janari ahül eta maila apalekoa emaiten dü. Edo ere han hor, diharü meta handier esker, berreraikidüra historikoak edo Ameriketarik heltü eta aberaski antolatürük diren “show-business”-ak lüzaz agertzen dütüe. Horiek, begi beharrien lilurazale, gure ohidüretarik oker gintirokee eta barnatik maite üken behar günükeana axaetik hartzera erakar.

Bestalde, pastoral izena emanik izan da ikusgarri kantoredün eta dantzadün zombaiti, ez beren idatzantoladürarengatik, bena eskentzeko maneran pastoralaren egite beituë: honi hartzen deitzoe ebidaldi eta keinüak, arrotz jauntzi bat bezala. Horien aipatzea pastoral izenareki ez da xüxen, okerreria eta atzamankeria baizik.

Gure aitzinekoek helarazi deizgüen ohitürak, eman dütügün arrazu horien-gatik, galtzekotan izan beilitake, uste düt ordü dela gogozka gitean, barna ditzagün, hobeki etxekitzeko. Lan honen helbürüa da horien ikertzea, antzerki zahar-raren idazleek bide honean jarraik dezaen eta pastoralzale güziak lan bakoitxaren epaile argitüak izan ditean. Holatan, arauz, ikerketa honek gure kültüra lagüntüko dü. Pastoralak, oroen jakitetik ez dezake irabazi baizik.

## I. PASTORALA: ZERGATIK IZEN HORI?

Hitza bera pastor latinetik horra da: artzain erran nahi dü. Berainez artzain-goari lotürük dago. Artzainak eta artzaintsak aipatzen zütüen eleberriek 16. mentean arrakasta handia üken züen. Horietan edireiten dütügü: Espainan, Cervantes-en *Galatea*, Montemayor-en *Diana*; Frantzian, Honoré d'Urfé-ren *Astrée*; Italian, Sannazar-en *Arcadia*. Herroka hortan, ordü hetan, antzeztü zütüen, Italian, Tasso-k *Aminta* komedia (1572), Guarini-k *Pastor fido* trajeria-komedia (1585).

Eüskal Herrian, Donibane Garazin, 16. mente erditsütan orano, Ailande Oihenarte-k dionaz, emanik izan zen *Artzain gorria*. Hau ere sartzen zen, izenak berak salatzen deigün bezala, antzerki kente hortan.

Lan horier “pastoral” izena emaiten zeien. Arren, hola deitzen ziren artzain eta artzaintsen arteko maitarzüna aipatzen eta antzezten beitzüen. Bena Xiberoko antzerki zaharrek ez düe horieki deüs ikustekorik. Gure pastorek ez düe maitarzünaren ikertzerik egiten. Eskentzen deigüe bai, edo bizitze bat, edo historia bat, edo trajeria bat. Esküidatzi kopiek ez züen pastoral izena sartzen, bena holakoaren edo halakoren bizitzea, historia edo trajeria. Pastoral hitza, Jüsef Egiategi-k 18. mentearen erditsütan jakinarazten deigün bezala, ez zen erraiten antzerkiaren ikustera joaiten zelarik baizik: jentea pastoralzale bazoan.

Bestalde, eskualde zombaitetan, Egüberriz, Jesüsen sortzearen omenetan, emaiten ziren eta emaiten dira jeiak. Horiek ere pastoral izena düe. Zeren eta Ebanjelioek aipatzen dütüen artzainen oritzapen bat diren. Aingürüek berria emanik, Betzaurr-eko artzainak Betleheme-ra joan ziren Jesüsen gürtzera. Holakorik ez da agertzen Xiberoko antzerkian. Ez daiteke erran horieki den gütien kidegoarik ere badüala.

Beraz, pastoral izena düen eleberri, antzerki edo jei horik artzaingoaren üngürüan badabiltza. Xiberoko antzerki zaharrak, aitzitik, edozoin ipuineko edo historiako gizon edo emazte baten bizitzea eskentzen deigü. Horra zerengatik pastoral izena ez zaion hobekienik joaiten. Ontsa ülertzeko, hitz horrek, gisa batez, ahatze behar lüke. Dena den ez dügü aski errepikatüko Xiberoko antzerkia ez daitekeala horien herrokan sar, egiazko antzerkia dela bai, bere berezgoa badüala. Ardiak eta artzainak agertzen bera badira, ez zen hala aitzinetik. Ohidüra hori J. Heguiapal-ek sartü züan.





## 2. NONTIK DÜGÜ PASTORALA?

Galto hau hanitxetan eginik da: nontik Xiberoari jin zaio antzerki melga hori? Haboroenek bestetarik sarrarazirik izan dela ihardesten düe.

Zonbaitek zaharra dela dioe, Grezian eta Erroman dütüala bere erroak; zeren eta herri horietako antzerkiaren üdüriko beita: bertsütan idatzia, kantatüa, müsika, dantza eta eresiz apaintüa, kantari saldo bateki.

Bena ez dira üdürikoak axaetik baizik, ezbardintarzünak barnagoak beitira. Lehenetan bertsüak herroka hanitxetan jarririk daude, Xiberoan, aldiz, lau zatitako bi bertsütan. Bateetan eta bestean bertsüak kantatürik izanagatik, Xiberoak badü gisa berezi bat: alde batetik bi ürratsaren arabera emanik dira, bat aitzina бүрүз, bestea giblealal, eta bestetik lau izaritan üngürükatüz. Grezian eta Erroman, kantari saldoak beharrezkoak dira, horiek trajeria pizten beitüe. Gure pastoralak ez dü holakorik: kantoreak edozoin olerkitan hontürik dira, egintzari бүрүз ez düe lagüngoia apurra baizik ekarten. Sail hortan, bai Satanek bai Aingürüek üken leza-kee ondorio haboro.

Antzerki greziar eta erromatarretan, erakusten dira jinkoak. Trajeriaren bihotza da jinkoen eta gizonen arteko borroka. Jinkoen nahikeriari eta indarrari бүhүrtzeko gizonak deüs egin ez dezake. Üko egiten dü, bai eta haüek ere, jinbe-harrak beitütü bateen eta besteen gogoak eta egintzak erabilten. Xiberoko antzerki zaharrean, ez da ihoiz holakorik agitzen: ez da jinkorik agertzen. Balinbada honaren eta gaixtoaren borroka bat, gizona beti libro ageri da eta gaüzen abiatzeko, egiteko eta ürrentzeko bere jabegoa begirutzen dü. Grezian eta Erroman, gizonak baizik ez ziren oholen gaineala igaiten, emazterik ez. Gure herrian, aitzitik, gizonak ari baziren berak, hala hala emazteek ere beren pastoralara eman zezakeen berez.

Ezbardintazün handi bat sortzen da sogiten dügularik noiz nola herri haüetan antolatzen ziren antzerkiak. Hortarako güneak, hanitxetan eder ederrak, baziren han hor betikoz eraikiak. Hala nola Atenas hirian, Dionusos-en antzokia, Akropo-lako maxelan. Erroman ere Ponpei-rena, bai eta Odeum-a. Xiberoan, aldiz, zoinahi herritan tauladak antolatzen dira, egün baten edo bientako, ordoki den soro bate-tan, eta ikusgarria eman eta arrunt elkirik dira. Orozbatkoz iraüten düan günerik ihoiz ihon ez da.

Bestalde, Grezian eta Erroman, antzerkiak jeiegünetan plantatzen ziren. Atenasen, Dionusia jeietan bereziki. Erroman, urtearen lüzean ludi edo jokü egünetan: baziren Ludi Megalenses-ak, Megale edo Zibela jinkosaren ohoretan, apirilán; Ludi Florales-ak maiatzean; Ludi Romani-ak irailan, Ludi Plebei-ak azaroan. Xiberoan ez da hüilanik ere gisa holakorik. Edozoin urtaroz ohi izan da egitea, arizaleen eta ikusleen aizinarteetan arabera.

Hona beste berezgoa bat, ez ttipiena. Grezian eta Erroman, gizon zombaiten esküetan ziren antzerkiak. Zoin eskentüko zen eta noiz, hoiek züen haütatzen. Greziarren artean, Arkon-ek edo magistratüek erabakia hartzen züen; Koregos-ek edo hiritar aberatsek gastüak beren bizkar hartzen zütüen. Erromatarren artean, baziren Ediles Kurales izenekoak edo zinegotzi arduradünak. Hoiek zütüen güziak antolatzen, Estatuak, aldiz, gastüak ordaitzen zütüalarik. Arren, antzezlariek ez züen beren joküaren hobekienik emaitiaz beste arrenkürarik. Xiberoan, dakigün bezala, herri batek dütü antolamentüak abiatzen; herriak dütü bürüratüko; herri-tarrek berek dütüe beren gain hartzen antzerkiaren haütüa eta haren üngürüan diren gaüza güzian ontsa joanaraztea, lehen erabakitik haste azken joanpidee-tarartino. Egiaz erraitera, harrigarriko ardura eta bürühaustea.

Azkenean, lehenetan antzerki idazleak beren lan hortarik bizi ziren. Gure herrian, aldiz, ez. Pastoral hontzalea edonor izan daiteke. Dena den, ez da hortarik bizitzen eta ez leiteke ere. Ez da ogibidezko antzerki idazlea.

Balizate beste xehetarzünik; bena ez dü balio ekar ditzagün; aski da hoién her-rokatzea, herri galdü haüen eta güre antzerkiaren arteko ezbardintarzünaren azkar-ki ozkatzeko. Gurea ez da haüenaren üdüriala asmatürrik, hontürrik ez antolatürrik. Ez da ez Greziatik, ez Erromarik jiten.

Nontik jiten da, arren? Beste zombaiten abürüz, erdiaroko Frantziako Misteroetan lüke erroa. Horietarik ezagütüena da Georges Hérelle. Hanitz idatzi dü gure pastoralaz. Ez dü balio besteen aipatzea ere, honek zer erraiten düan ikertzea baizik. Hartüko dügü haren lan berezia: *Les pastorales à sujets tragiques, considérées littérairement* (1926). Gure pasterala frantses Misterioen ordükoa dela holaxe dio: “Eüskal Herrian antzerki hori Xiberoalat sartü zen 15. mentearen ürrentzean non-bait han, Misterioen agerraldiek Frantzia güzian arrakasta handiena bazüelarik.” (112)

Orano haboro, Misterio hoietarik sortü zen, zeren eta “literatür errotik herri-tar bat ez beitoa hürrüneala bere erduen bila, eta herri antzerki baten idazleek jar-raikitzen düenari antzerki hüilanenetan egiten ikusi düena beita.” (93)

Bena Hérelle-k ez ote zakian Euskal Herria ordü hetan ez zela Frantziaren menpean? Bestalde, Xiberoa ooren gainetik beste güzietarik bazter bizi zen. Nihaurk bizi üken düdana aipa nezake: ene gaztaroan, ene herrian pürü, ez zen mintzatzen xiberotarrez, biarneses eta espainolez baizik, zinez güti, aldiz, frantsesez.

Gero argibide bezala hau dio: “Lehen begi kaldüan, agertzen dena da antzerki ekeia bi sailetan berra dela, eta oso ber zerrendetan zatitzen dela: Batarzün Zaharra, Batarzün Berria, Hagiografia, balentriazko eta gertakarizko Eleberriak, ipuinezko Historia.” (102). Haatik, horrek ez dü erran nahi Xiberotar antzerkiak eta antzertiak Misterioetan düela beren üturbürüa. Zeren eta ez den behar nahasi antzerkiak nontik dütüan ekeiak eta antzertiaren sorgia. Hérellek berak aitortzen dü, berritan bederen. Hau lehenik: “Halere zerrenda horien edükina ikertzen delarik, ikusten da ez dela beti bardina, ez eta hüülanik ere, frantses sailean eta eüskal sailean.” (102). Eta berriz ere hau: “Halako ekei bat badüelarik pastoral batek eta Misterio batek, bi lanen üdüri izateak ez dü batere erran nahi pasterala Misterioaren lanaz jabetü dela, zeren eta bata eta bestea ber ütürrik sortürrik beitira. Behar balitz erakutsi bata bestetik horra dela, behar lükee üdüri izan, ez gertakariak edo herrokak emanik diren arabera, bena ere hontzalearen asmütik lizatekean xehetarzün ttipienaren arabera, batetik besteala iragan litakean errandüra ohargarrien arabera. Holako herexarik ez beita, ez dezakegü erran lan bata bestearen arabera dela. Ihoiz ez dügü deüs ediren erakarten gütüana pasterala Misterioen gisa xüxenki eginik dela uste ükeitera.” (131). Hitz harrigarriak, heben Hérellek lüzaz aipatzen düana, bestalde beti goraki diolarik Frantziako Misterioak direla pastoralaren sortzaleak. Hala nola, ber lanean gorago hau idazten dü: “Eüskal pastoralak düdarik batere gabe lanegin arabera dira, eta pastoral idazleek frantses idazkiak dütüe baliatü ekei bezala.” (56). Ber saltsan sartzen dütü pasterala antzerti bezala eta idazleek bildü dütüen ekeiak.

Puska horietzaz zer erran, hainbeste aipamen beitüe gure antzerkiaz idazten düenetan eta mintzatzen direnetan? Hérelleren arrazu horiek zer indar üken deza-ke? Ez ote dira jiten frantseskeriaz oso hantürrik den gogo ütsü batetarik?

Beste bi gaüza ikertzen dü, erakutsi nahiz Misterioek düela gure pasterala sortü. Lehenik, lüzaz idazten dü tauletan nola agertzen den pasterala eta hortan lan baliosa egin züan; hola beitakigü zer izan den 20. mentearen hatsarrean. Hor aitzinatzen dü erdiaroko antzerkian egongiak, “les mansions” edo honen eta gaixtoen bizileküak tauladan Xiberokoetarik oso ezbardinak direla. Bai hala da. Bena hortan egoiten da eta, beste xehetarzünik ez ekarriz, ihoiz ez dü egiaztatzen ea ber antzezipena düenez biek. Ez dü ere erakusten nola antzezten züen erdiarokan. Ez da aski honen edo horren erraitea: argibideek behar düe agertü.

Bestalde, bere ikusmoldearen azkartzeko, antzerkiaren teknikari dei giten deio. Horra elkitzen düan ezaraukeria: “Segür da pastoralak frantses Misterioetarik jiten direla, häien teknika osoa begiratü beitüe.” (102). Beste güne batetan: “Hortik erdiaroko antzerki literatüra handiari düdarik gabe lotzen dira eta antzerki berrirenek bere erdiaroko itxüra orano etxekitzen beitüe.” (23).

Itxüra hori begi llabürrez ikusten dü Hérellek; honen arabera, gure antzerkiaren mamia (historia, bizitzea...) aitzin perediküaren eta azken perediküaren

artean jarririk dago, Misterioetan egiten ohi zen bezala. Bena hola hola egiten zūen ere besteetan, hala nola hatsarreko greziarrek eta erromatarrek antzerkia hiru zatitan idazten zūela: prologoa edo aitzinitza, episodioa edo historia, exodoa edo azkenitza. Gūk hor Xiberoko antzertiaren xehetarzūn ezagūgarri bat dūgū ikusten, besterik gabe.

Hérellek, gure herrialdean ikusi dūtūan pastoral agerraldietarik abiatū eta, Xiberoko antzertiaren xehetarzūn hanitx ekarten dū. Gero baieztatzen dū hori zela frantses Misterioen eginmoldea, bena ihoiz ez dū argitzen horietan nola jokutzen zen. Ez da xūxen erraitea: “Hola antzezten dūe Xiberoan, arren hola ere zen frantses misterioetan. Alabena ez da dūdarik Xiberoko antzerkiaren sortzea Misterioetan dagola.” Aitzitik, behar lūke erakutsi nola plantatzen ziren ordūan, gero ea hala denez orano Xiberoan. Ez dū holakorik ihoiz agertzen.

Beti bere hitzetarik ikus dezakegū okerrean dagola: “Eūskal pastoraletzazko lan hontan, teknikaren garrantzi argibidezkoa baliatū dūgū, gūk hala uste dūgūn arabera prefosta, dūdagabe zahar den, bena haatik jakile zahar bakoitxik ere aipatzen ez dūan antzerki herritar baten historiaren moldatzeko.” (22). Gorago ikusi dūgū eta gero ikusiko zer pentsa teknikaz, heben Hérellek berak aitortzen beitu hipotesi bat dūala emaiten.

Erran dūgūn bezala, ez da harritzekoa, dakigūlarik Hérelleren frantziakeria, bai eta berak dionetarik ezagūtzen dūgūn gure eūskal kūltūraz zūan gūtiespena. Beha: “Eūskal antzerkiak bere lehen ereduaren herexak oraiarte begiratū dūtū, zeren eta Eūskaldūnak, hortan beste gaūza hanitxetan bezala, oso begirazole beitura.” (II2). Horra Eūskaldūnak betikoz ber heinean egoiten girela, ez dezakegūla den gūtien aitzinapenik egin.

Beste hau ere: “Laborari idazleak ez dira arte itxūra berriak sortzen dūtūan argitū beretarikoak, beren ereduaren ahalik hūilanenetik jarraitzen dira, eta agitzen bazaūe berritzea, gaūza xeheinetan baizik ez dūe egiten.” (93). Hau orano: “Pastoral idazleak, arren, ez dira beren antzerkien ūtzūltzaleak eta araberezaleak baizik, bena ere egiazko idazleak dira; horrek ez dū erran nahi horien hontzeko jite handia ūken behar dūela.” (I33). Azkenean, apalago jaisten da: “Eūskal pastoral idazleak ez hain gora hegaltatzea kausitū dūen Ikare txarrak dira.” (I06).

Bestalde, Hérellek dio liturgiako antzerkiak “Eūskal Herriko elizetan herexarik ez dūala ūtzi.” Bena azkarki erran dezakegū ez dela hala. Xiberoko antzerkia aspal-didanik gure herrian dela argitzeko eta gure argibideen baieztatzeke Basabūrūko bi elizatarā jo dezagūn.

Altzabehetikoan ikus daiteke murrumarrak bat horail eta beltz kolorekoa, I2. mentekoa lizatekeana. Hiru neskatila badabiltza Santa Graziren gibeletik, pastoral batetan bezala: makila eskūan, ūngūrūka, ūrratsean. Ontsa ageri da gure antzerkiaren bezala ari direla. Ber elizan orano, ordū hetako harri zizelatū bat, I9 zentimetro karratūkoa. Kantari batek, keinū eder bat egiten dū eskū bat goititūz,

bestea gerrian jarririk, pastoraletan “süjetak” egiten düan bezala, eta beste batek txülüla joiten dü.

Santa Graziko IO.-II. menteetako elizaren sartzeko gaintian diren bi harri-habeek erakusten deizküe ere, hanitxez ederkiago eta antzezkide haboroeki, gure pastoraletan eta maskaradetan agertzen direnak.

Marraztü eta zizelatü jokolari horik Hérellek ez zütüan ikusi? Gü ja argitü gütü bere gogo tzarraz eta bestalde badakigü eüskal kültüraren nolako profeta zoritxarrekoa izan zen. Besterik ote ahal züana, kanpotik bezala jorrazten beitzüan eta eüskara ez beitzüan iholaz ere ikasi nahi.

Zoinahi laneginentako, bai eta antzerkiarentako ere, ekeiak nontik nahi har ditake. Herrialde güzietan gaüza antzeztekoak badira. Bena kültüra bakoitxak egiten dü bere jitearen arabera. Zerengatik ez eüskal kültürak? Ez da düdarik kültüra bizi dela gure herrian, mentez mente gure gana heltürrik, besteenetarik berezia. Pastoral aipatzen badügü, Hérellek berak, ohartarazi dügün arabera, dio ez direla ützülpn hütsak. Xiberoko antzerki zaharrari kanpotik soegiteko orde eta bestetarik jin zaigüla bilatzeko orde, beharrezkoa da barnetik ikertzea eta ezagützea. Ordüan bai argi dago gure izatean berean dütüala bere ütürisorgiak.

Ekeiak askitan bardinak balin badira, bazen ere besterik, Xiberoko antzerkian baizik antzeztürrik ez zirenak. Gure antzerkia orano bizi beitzügü, erran dezakegü gure egünetan aitzineko ekei üdürikorik ez dela biltzen. Hortan agertzen beita gure eskualdean badirela gero eta haboro ikertzeko eta hobetzeko nahia düenak. Ez ote da pastoral zaharra xiberotarren gogo barnean ontsa sartürrik dela?

Bestalde, gure antzerkiaren berri zaharrik ez dügü. Hori aitzinagoko kültüra aho mihizkoa beitzen: idatziaren herexarik ez da. Bat bai, haatik, harrigarriko oritgarria, bakoitxa, ezinago zaharra eta beti bizi dena, kültür beste sail güzien erroa, Hérellek ez zakiana, gütiesten ere beitzüan, gure mintzoa eta honen ardatza den aditz baldegabekoa. Ez daiteke asma holako ütürri batetik ez direla sortü errekak eta errekak, geroztik galdü direnak herexa güti baizik ez üztez.

Erakarririk gira, arren, aitortzera kültür itxüra berezi bat izan dela gure herrian. Mündüko beste herrialdeetan bezala, ez da düdarik üken dügüla eta orano ugari badügüla ipuin, olerki, soinü, kantore, dantza, jokü, ihakin, txikitoka, bertzülaritza eta beste. Iholaz ere, ez dezakegü baztert antzerkia. Honek jaunsten dütü kente ezbardinak, hala nola tzintzarrotsak eta galarrrotsak, astolasterrak eta toberak, maskak, maskaradak.

Tzintzarrotsak. Bertz, tipiña, metale, tzintzarrieki, gaüaz herots handi egiten düe. Horieki batean, kantoreak emaiten dira. Holatan, salatzen da gizon eta emazte baten arteko oker bat. Agertzen dira ere alargün edo alargüntsa bat berriz ezkontzen denean.

Astolasterrak. Egünaz iragaiten dira. Norbaiten egitate tzarrak jorrazten dütüe. Atzinetik hanitxetan pastoralaren erditan sarrarazten zütüen, beren gogork-

erirengatik. Pastoralen antzoko dira, eta hoietan bezala edireiten dira bertsetak, dantzak, Satanak... Toberek horieki zer ikusteko badüe.

Maskak. Ihauteri asteharte gaüaz, larrüz mozorrotü potiko gazteak etxez etxe badabiltza, lükainka, odolerxe eta beste eske, gero alkarreki besta baten egiteko. Jauntsi beltzak dütüe, txintxak gerrian eta zankoetan, erri eginarazten düe eta dantza jauzi okerrak emaiten dütüe.

Maskaradak. Ihauteriz egiten dira hoik ere: jei bereziak eta aipatüak. Arizaleak bi saldotan dira, bai eta bi jauntzitan: batak dira “gorriak”, besteak aldiz “beltzak”. Horien üngürüan, beste antzekide zonzait. Heben dantza nausi da, bena ere gizarte jorratze eta tximinokeria hanitx bada. Ontsa sogiten badügü, erroak mitologian dütü. Bedatsearen eta berpiztearen erranahia düe.

Ezin üka, arren, kültür alor zabal bat badügüla, ihori ere zorrik üken gabe. Alor hortarik behar lizate ote gure antzerki zaharra baztertü? Hori bürüz, honar genezake Hérelleren abürüpena, beste güziak ez ikusi eta? Bestalde alor batek ez dü deüs sortüko, ez bada aitzinetik lantürrik eta hontürrik, aziaren hartzeko. Horra zergatik erraiten dügün Misterioak beno lehen antzerkia bazela Xiberoan. Hérellek berak hitz erdiz aitortzen dü: “Holako laneginek Ahüinemendiko eskualde güzietako bizizaleetan antzerkiaren maitarzüna sorrarazi deiela, hori lehenekorik sinesgabea da.” (98). Arren, ekeiak Misterioer hartürrik izanagatik, antzerkiaren ohidüra bazen Xiberoan. Hau dela medio baizik, gure kültürari lotzen ahal ez beitzen.

“Antzerki egintza ez da bat batetan lürretik elkitzen: lürpeko izan daiteke, bai, jakile güziak galdürrik izan ditake, bena uste ükeitea ezagützen dütügün gaüza güziak izan direla haurkeria bat da, eta zoritxarrez, hori da jorrazale handi handien asmakeriaren ondorioa, beti bizi dena, frantses bigerren irakaspenak eta gero ünibertsitatekoak hazten düena.” (Gwenaël Le Duc, Université de Haute-Bretagne, Rennes 2, *Quelques notes et remarques rapides sur le théâtre populaire breton et basque, Fontes Linguae Vasconum*, 1995, 70. zbk).

Llabürpenez erran dezagün Europa herrialde hanitxetan bazela gürearen üdüriko antzerkia. Europan dago ere gure herria. Hérellek horietarik berezten gütü, gure anrtzerkiak baizik frantses Misterioetarik dütüala bere ütürriak diolarik. Zertako gurea bera? Hobe da ikustea, beste herrialdeek bezala, gühaurtarik gük ere bagünüala antzerki ber kentea, bata bestetik jiten dela oihüstatü gabe. Txit europarrak gira eta beste herriek balin bazüen beren antzerki zaharra, Misterioak edo beste, zertako ez gük, Eüskal Herriak? Arren norberari bereak, gureak ere guri.

### 3. IDAZKIA

#### 3.1. Idatzantoladüra

Pastoral bat eskütan dügülarik, berehala edozoin idazlan edo antzerki bezala ez da agertzen, bena bertset herroka bat bezala. Bertsetak berak lau herroketako bertsetan jarririk dira. Hain da berezia, arren, non lehen begi kaldüan ez den besterik ikusten, arizale bakoitxarentako bertset bakoitx bat edo bertset herroka bat.

Gero hiru zatitan plantatzen da. Hatsarrean eta ürrentzean, bertsetak alkarrondoza idatzirik dira; erditan, aldiz, bertseten aitzinean antzezkideen izenak. Gisa hortan ziren ere aitzineko antzerki zaharrenak. Hatsarrekoari erraiten zaio *leben perediküa* edo lehenta edo beste, ürrentzekoari *azken perediküa* edo *azkenta* edo beste. Erdikoan hedatzen da antzerkiaren ekeiaren ützülia edo *trajeria*.

Lehen perediküak hiru gaüza badü. Lehenik ikusentzüleer agur bat egiten da. Gero llabürpen batetan ikusgeiaren ekeia aitzinetik aipatzen da. Eta ürrentzen da, güziak ontsa behatzera kümitatüz.

Azken perediküak ere hiru puska badü. Hanitxenetan, eskerrak eman eta azken erakaspén laster bat elk eta jentearén igorpéna egiten da.

Bi horik, lehenago lüze baziren, gero eta llabürrago bilakatü dirade.

Erdikoak dü pastoralaren geia agertzen. Hau da historia bat, haboroenetan gizabakoitx batena, edo bizitze bat, edo lotzen zaio ere trajeria izena. Jelkalditan jarririk dago: hanbat jelkaldi lüzetarzüaren arabera. Heben sartzen da antzezkideen alkarriketa edo, hobeki erraiteko, bakoitxak herrokatü behar dütüan bere bertsetak.

Kantoreek jelkaldiak edo bertsetak aldizkatzen dütüe. Melga ezbardinekoak dira, batak lüzeago, besteak motzago, bertsüen zankoak heben gütiago hor haboro, idazlariaren asmüaren edo nahiaren arabera. Arren, biga edo hiruz beste, non noiz kantatzen direnetarik ez dira berezten.

Bestalde, han hor agertzen dira erranaldiak: nor nola edo zer nola ozkatzen düe. Bere zombakia düan jelkaldi bakoitxaren ondotik ikusten da: “jelki”, “esküin”, “exker”. Jelkaldiaren ürrentzean ere ohar horik: “oro joan”, “erretira”, “egin güdüka”, “ardiak sar”, etb.



### 3.2. Idazlana

Orokorki idazle bakoitxak badü bere idazteko geitarzüna, bakoitxak bere jite berezia ere beitü. Hori ageri dago antzertian, beste edozoin lanetan bezala: nola asmatü düan, zer ideia elki nahi düan, zer den garrantzitsüena, nola gaüzak ikertü dütüan, zer antoladüräz, zer hitzez, zer errandüräz hobekienik eta ederkienik argitüko düan. Haatik, gogoan hartü behar dü pastoral bat düala idazten, ihoiz ez dezan gogotik gal zer den pasterala: lan berezi bat, orozgain historia bat edo bizitze bat beitü antzetzen. Bere saila izanen da ikusentzüleen aitzinean horren kontatzea. Lüze beilizateke güzien aipatzea, haütü bat eginen dü: erakutsiko non zer gertatzen den. Hortan dago pastoralaren bihotza. Arren, idazlariaren aldetik hori, beharrezkoa beita, da egiaz begiratzekoa eta zaintzekoa.

Pasterala, hatsarretik ürrentzeala kantatürrik delakoz, eta sonü bardin batetan, egiaz lüze da eta aspergarri izan leiteke, zeren eta, beste antzerkiek düen jeiarterik ez düan. Horrengatik, mozten düe bai kantoreek bai dantzek. Halere ez dira apaingarri hütsak, antzertiaren barnean dira, beharrezkoak. Horiiek hein batetan egon behar düe eta ez lehentarzüna hartü. Alkarrizketa lagüntzen düe, bai eta kontairaren aitzinatzea, honek ez beitü behar moztü. Idazlanaren heina holatan etxek dezakee, lan nausi bat idazlariaren lümatik jalgi dadin. Egiaren erraitera, egün osoa iraüten züelarik, pastoral zaharretan ez zen hamarrez goiti kantore emaiten. Geroztik antzerkiak hanitx llabürtü dira eta llabürtzen ari dira, jenteen oharpena apaltü beita ere. Ordüan, gainti bat gütitzen bada, eta beste bat aldiz hanixten, galbidean jar leiteke pasterala, hein baten gabearen bidez.

Arren, bere lanari jarraikitzen dela eta, idazleak gogoan dü beti historia bat edo bizitze bat edo trajeria eskentzen düala. Ez lüzegi izateko ez barreiat, haütü bat eginen dü, berezi dütüan gertakarien bilbeaz ontsa jabetu eta ikusentzüleer ekei osoaren herroka eskent dizaen. Ekeiak berak mügarik ez düanaz gainen, beharrezkoa da barnetik ikertü eta garrantzi denaren baizik ez biltzea, güziek egiazko ikuspegia üken dezaen.

Idazkia, erran dügün bezala, bertsütan agertzen da, alkarrizketa güzia bertsütan egiten beita. Bertsüak berak ezbardinak dira, orozgain pastoral zaharretan: batean bi herroketan, bestean, üsüenik, lau herroketan. Ez da düdarik bi errima düela beti. Holaz, bi bertsü baizik ez lizateke behar ikusi. Bena horiek zankoak ere ezbardinak dütüe, hamalau eta hogeita bosten artean edireiten beitira. Haatik, azken pastoraletan, bardinago dira, laueta herroka bakoitxa gehienetan zortzi zankoetakoa beita, edo zazpi edo bederatzütakoa bekan delarik.

Arren, oso argi da idazkiaren aldetik jada, pastoralak eredu bereziak badütüala, ardüra handiz begiratzekoak direnak antzerki melga berezi izateko; ez da aski pastoral keinü zonbaiten baizik erabiltea. Idazkiak ere araberakoak izan behar dü. Idazlariaren eskü dago gure antzerkia aitzina bizi dadin. Bestela laster bilaka leiteke ihakin, axaleko edo kanpoko emanaldi bat eskentüz.

## 4. GEIA: ZER NOLAKOA

Geiak kente güzietakoak izan dira menteen lüzean; ezbardinak ütürri ezbardinetarik sortürrik.

Pastoralak antzeztü dütü alegia grekozko eta latinezkoak (Edipa, Alexandre, Astiaga); Batarzün Zaharreko gizon eta emazteen bizitzeak (Abraham, Nabukodonosor, Dabid, Judit, Moises); Batarzün Berrikoak (Prodiga, Jondane Petiri); saintüen bizitzeak (Santa Elena, San Julian, Santa Engrazia); Erdiaroko alegiakoak (Karlomaino, Erroldante, Aitonen lau semeak); idazleen aldiko zombaiten bizitzeak (Napoleon, Guillaume II.); orai gehienak Eüskal Herriko historiatik bildü dütü (Zantxo Azkarra, Matalas, Santa Grazi, Ibañeta, Iparragirre, Ailande Oihenart, Zumalakarregi, Santa Kruz, Agosti Xaho, Abadia Ürrüstoi). Aipa ditzagün ere oraiko bizitzeari lotü geiak (Xikito de Cambo, Pette Basabürü, Makia).

Pastorala historia bat izanez, zerrenda hori ikusi eta uste dü historiarri so baten egitea beharrezkoa dela, zer izan den haraitzina, zer den egün.

Aitzineko menteetan, historiazaleek alegiazko gaüzak emaiten zütüen historia egintza bezala. Arren, pastoraletako antzezkidea ere gizandi bezala agertzen zen. Jenteak hortan gozatzen ziren eta gogo honez holako bizitzeak behatzen zütüen, irakurten, bai eta sinesten. Ez zezakeen asma ez zela egia. Santüen bizitzean, goitzarrenak eta oinazeak handiago eta gogorrago, haüen albidata izarigabeago eta hanbat hobe. Hola hazten zen oroen jakin nahia, bai eta ere sinestea.

Bestalde, ordü hetan idazki güti zen. Erdaraz idatzirik ziren. Jenteak erdara ez zakian. Historiaren ikerka ezinago zaila bilakatzen zen. Pastoral idazleek nolabait esküratzen zütüen libürüketan ziren bizitze edo historiak, ziren bezala ere antzezten, berek beste ikerkarik ezin egin beitzüen. Ordüan, argi dago aitzineko historia ipuin bat beitzen, pastoral hontzaleek hala hala hartzen züela; eta antzerkian ipuina züen erabilten.

Hortakoz, zombaitek, Hérelleki batean, erran düe gure antzerkiaren ekeia ez daitekeala alegiazkoa baizik izan. Bena, azken urteetan, baztertürrik izan dira holakoak eta idazleak nahi izan dira egiazko bizitzeari lotürrik egon, bizitzearen gaüz-er bai historiaren ikerlaneer hüilantik jarraikiz, eta bataren bai bestearen lanak barnatik orraztatüz. Holatan, pastoral idazleak oraiko historiazaleen eta beste idazleen herrokan sartzen dira eta haüek bezala beren lanak oraikotzen dütüe. Argi dago pas-

toralak historiaren eta bizitzearen edozoin gei hunki dezakeala; eta aitzinetik alegitarik hontzen zen bezala, hala hala orai ikerkari eta egitari lotürik dela.

Azken pastoralak eüskal historiari orozgain lotürik badira eta urte güziez berritzen direla ikusiz, aitzinetik ez zaitekean hola izan erran dügün arrazuengatik. Bena pastoralzaleak ez zitean aspert, errejentek aldaketak asmatzen zütüen. Edo lüzeegi zen zati bat moztzen züen, edo beste bat lüzatzen, edo askitan bi pastoralen puskak nahasten zütüen. Sogileak, ez beitzüen libürüxkarik edo ere ikusgarria ez beitzen jarraikian emanik, ez ziren nahasdüräz ohartzen. Zonbaitetan pastoralaren paradaz baliatzen ziren jeiaren erditan astolaster baten lerratzeko. Hori xoragarri hartürik zen.

Oraiko idazleak holako okerreriarik ez dezake egin. Berak badaki historia lanaren antzinamentüa. Horren ekarpena egiaz eta arraheinki zaintzekoa da. Ez daiteke hür-rünt ekeiareki batean eskentzen zaion egiatik. Hori bere konzentziaren zorroz-tarzünetik sortzen da. Behazaleen nahiküntetik ere. Gero eta haboro idazkien bihotza barnatzen düe eta ikerketak egiten dütüe. Oraiko jentea ez da ezjakina eta behar dütüan xehetarzünak ehiki bil ditzake, berak non zer oker ala xüxen den ikusteko. Goratik aitortü behar dügü hebertik harat pastoralak ez ditakeala idatz ordü haüetan bezala.

Pastoral baten idaztea ederlan bat beita, idazlearen helbürüa da lan nausi baten eraikitzea. Horra zergatik sail bat hasten düalarik, lanari arrotz zaitzon ekeiak saihesten dütüan, haütatü dütüanak ontsa antolatzen eta argitarzün araberakoak emaiten. Ez dü haatik historia bat edo bizitze bat idazten, bere egitekoa beita horien antzetzea. Ordüan bere antzerkia behar bezalakoa bilakatzen da eta ez dü ikusentzüleen zentzüa zaurtzen. Idazlan eder bat agertzen da bere osotarzünean, oraiko ikusmoldeari barnatik lotürik.

Zertako eüskal historiatik geiak biltzen diren, erran horietzaz beste biderik badago. Gure aspaldiko gaüzer doakienez, ikerketa hanitx egin da eta egiten da. Hobeki ikusten dügü zer zen gure aitzinekoen bizitzea, gero eta xehetarzün haboro edireiten da eta barnatzen. Botzik gira haüen egintzen berri jakitez, bai eta Eüskal Herrian berean eta mündü zabala gainti eüskaldün aipatüak badirela. Historia hori gurea da eta zor deiogü güziek ezagüt dezaen. Gutik baizik ez beitezake aintzinekoak iker eta horien berri libürü berezietan irakur, pastoral idazleak axola handiena dü besteen gogoaren ahalik barnanetik eta xüxenenetik argitzeko.

Hala da bai, badügüla kültür aberastarzün bat. Egün, horren berri haboro beitägü, hortzaz arrenküra haboro badügü. Holatan gük, eüskaldünek gure jitetik elkitzen den, gure bizitzea moldatzen düan, bizi den eta bizitü nahi dügün kültüra horrez gose gira. Sail hortan sartzen da oroz gainti berezia den pasterala. Egünko egünetan orano begiratzen dü aitzineko menteetako erabilka. Geiak ezbardinak izanagatik, ordü hürürüneko haüen ereduak baliatzen dütü. Harritürik bezala gaude, beti iräuten beitä eta. Üdüritzen zaigü Eüskal Herriko geiak aipatzen dütügülarik, gure erroak azkartzen dütügüla.

Mündü honek kanbio handiak ezagütü dütü eta ezagützen dütü ere. Norbera galtoz ari da ea nor ote den, nontik jiten den, norat doan. Hainxüxen Eüskal Herriak ere galto horik egiten dütü eta ohartzen da bere berezgoa badüala, egiaz herri bat dela, bere ikusmoldeeki, bere ohidüreki, bere hizkuntzareki, bere kultürareki, bere historiareki. Bi estaduen artean zatikatürik eta, ontsa nabaritzen dü hontarzün hori zapatürik zaioala. Ordüan sortü da abertzaletarzüna eta handitüz doa. Horrengatik ikusten dü pastoraletan Eüskal Herriko geiak eta orozgain historia gure antzerti zaharrean antzertürik direla, eta eskatzen dü ere izan ditean.

Dela aitzinekoa, dela oraikoa, ala ipuinezkoa, ala egiazko historiazkoa, pasterala bere betiko bideari jarraikitzen zaio. Egiaz erraitera, bide zaharra. Bakoitxaren bizitzean bezala, gertakariak herrokan agertzen dira, epe labürretan, sortzearen eta hiltzearen artean. Gertakari horik bildürik dirade herri eta güne hanitxetarik. Ikusentzüleek erranik zaitzenak ikusten dütüe beren beitan iragaiten balira bezala. Oro har, berek düe antzerkia asmatzen, idazlea düelarik kontazale eta gidari.

Historiatik harat, geia lotzen da beste alor hanitxi. Hunki ditzake geografiaren gaüza zombait, hala nola orai erdaraz baizik aipatzen ez diren gure herrialdeen eta herrien eüskarazko izenen berriz piztea, edo ere güne ezbardinen izatearen barnatzea. Zabal dezake etnografia, etnologia, soziologiaren sail hanitx, zombaiti haboro ikertzeko nahia sorraraziz. Pastoralaren ondoamenez, ikasketa andana bat abia leiteke, heben ere oritaraz beikenezake zoin alkar josirik diren pasterala eta bizitza.

Bestalde, bizitzean badira nahasirik gorabeherak, zorihonak eta zoritxarrak, erriak eta nigarrak, xoragarriak eta okaztagarriak, handitarzünak eta ttipikeriak, maitarzüna eta herra, bizia eta herioa. Pastoralaren barnen gaüza horik sar ditake, batean hor, bestean han, bizitzean diren arabera, arren. Bena horik oro kantoreetan sarraraz gantzake, kantoreak olerki kente güziak balia beitetzake, erriegingarriak eta ülünak, Jinkoari бүрүзkoak eta izadiari бүрүзkoak, eta beste hanitxetakoak. Kantoreek eragin handia badüe gogobihotzen sendimentüen indarraren agertzeko. Hola ikusirik, beharrezkoak bilakatzen dira, behar den heinean erabiliz, eta zombait aldiz jeiaren görünea ozkatzen düe.

Aitzinetik, pastoral emaileak edo gizonak ziren edo emazteak, berez eta ez nahasirik. Azken urte horietan alkarreki agertzen dira. Gaüza horrek nahi ala ez idazlea eragiten dü. Emazteek nahi düe berentako gizonen ber leküa, bai eta noizean behin lekü berezia. Jagoiti idazleak hori onartü behar dü. Bereziki tauletan, kürüttxatzean, gorrien jelkaldietan agerraraziko eta mintzaraziko dütü.

Horra zer izan diren eta zer diren pastoralaren ekeiak. Beti hontara ützültzen gira: bizitzearen arabera eskentürik zaizgü. Mentez mente, beren egitürak begiratüz, pastoralet ekei ezbardinak üken dütüe. Bai mündüaren bai Eüskal Herriaren bizitzeari lotürik direla eta, aldaketak üken dütüe eta ükenen dütüe ere. Biziak, berari lotu geiak aldatzen dütüan bezala, hala hala pastoralak ere gei güziak bizi ditzake.



## 5. ANTZOKIA

Kanpoan jokutzen da pastoralala. Herri batetik besteala güne ezbardinak dirade. Uste düen hoberena haütatzen düe, bai eta ederra ere. Zeren eta korpitz gogoentako atsedengarri den, üdan, soro belardün mardul batetan egoitea, eta xoragarri begientako tauladaren ondoan diren zühaintz berdeak eta üngürüan diren mendixken altape miresgarriak.

Beste gaüza zonbaitez ere ohartzen dira. Pastoralala dela eta, milaka ikusle jiten dira. Beharrezkoa da autoentako egongia behar bezalakoak izan ditean. Herotsarengatik ere, bidetik aski hürrün jarriko dira. Besterik ere aipa genezake: edangüneak, komünak, libürüsaltégia, jangia, eta holako edo halako zerbütüak...

Zonbaitetan pelota plaza bat da haütatürük. Üngüramen ederra galtzen badü, antoladürak hanitxez errexago dira, bai eta joanpideak apürrago ere: hori ere hüilantik ikustekoa beita. Bekanago eman daiteke ere jai alai batetan, kiroltegi batetan edo barneko antzoki batetan.


Goatzen, arren, antzerkia eskentürük izanen den kanpoko güne hartara. Alde batetik taulada, bestetik behazaleen jargiak. Horietarik zonbait aitzinean dira, besteak bi saihestaldeetan. Aski hiruzpalau mila jenteentako.

Hona, orai, taulada bera, hortan beita antzerkia jokutzen. Bürdüin sedeila alkar lotüen gainean ezarri taulez eginik da. Metra bat gora dü nonbait han eta ehün eta berrogei bat metra karratü; arren, hein bat zabal, beste antzokiena ikus eta. Aitzinean eta erditan eskeler bat. Üngürü orotan lürrealano oihal xuriak, bürdüin sedeilen gordatzeko. Gibelean, aldiz, beste oihalesi batek bi zati egiten dü: aitzinekoa joküarena, gibelean sartzeko haidürü diren joküariena. Erditsütan, gibelxeago, lau metra zabal eta biga gora den müsikarien jargia. Oihalak oro ezpel adarttoz, ostoz eta liliz apaintürük dira. Müsika güne horren zolan, ohol lüze batetan, letra larriz idatzirik, pastoralaren titülüa; alde gainean, ikurriña.

Taulada bi zati egiten düan oihalesiaren erditan, oihala bazter leiteke iragangia bezala baliatzeko. Bi bazterretan sargia bedera: esküineko gaintian, bena ikusentzüleenganat soginez, urdinezkoa; eskerreko gaintian, beti ikusentzüleenganat бүrüz, gorritzkoa. Arren sargia urdina, eta sargia gorria. Horietarik abiatzen dira jelkaldiak. Alde gainean, Xiberoko armarri lehudün bedera. Eskerrekoan ere Satan, txotxongilo igikor bat üdüri, beltz eta gorritz tintatürük. Bi sargien artean tauladaren gainen, bizpalau jargia. Esküineko sargiaren ondoan errejentaren

mahaina. Tauladaren erditan eta bazterxka, eskerreko gaintian, zilo bat, ideki ditakkeen ohol lotuez tapatürrik.

Antzokian, orai gaüzak prest daude antzerkiaren eskentzeko.



TAULADA, *Louis Colas-en marrazkia (1922)*

([www.euskonews.com/052Izkb](http://www.euskonews.com/052Izkb))

## 6. ANTZEZKIDEAK

Taulada, arren, bi zatitan dago eta kolore ezbardineko bi sargia badü. Horiek erakusten deigüe antzerkiak bi alde badüala eta jokulariek bi antzezside saldo egiten düela. Horien üngürüan jokü güzia eraikirik izanen da.

Berehala erran dezagün honaren eta gaixtoaren arteko borroka agertürük izanen zaigüla. Batetik honaren zaintzaleak edo alderdikideak, bestetik, aldiz, gaixtoarenak. Hori, egiaz, pastoralaren bihotza; gero ikusiko dügün sinbolo hortan bermatzen dira beste gaüza güziak.

Bi alderdiek, hasteko, kolore bereziak dütüe: lehenek urdina, bigerrenek gorria. Ez jauntsi osoa edo urdin edo gorri, bena bi koloreek nonbait agertü behar düe, dela güti, dela haboro, korpitzaren edozoin güne batetan ala güne haboronean. Kolore horiek lagüntüko düe sogilea antzerkiaren bilbeari hobeki jarraikitzen. Beharrezkoa da koloreen ontsa bereztea, bi antzezlagünak egiaz berezirik izan ditean. Bestalde, arizaleek esküan makila badüe. Horik bardinak izanik ere, oihal zerrenda bat lotürük badüe aipatu koloredüna, bakoitxaren arabera urdin edo gorri.

Bi gaintitan, lagün hanixko bada. Erregeak eta erregeñak koroa бүrüan düe. Güdülariak hoinetan botak edo ez, esküetan eskülarrüak eta makila, eskerreko sai-hetsean ezpata. Bada ere, gaiaren arabera pastoral bakoitxean beste edozoin antzezside: Aita Saintü, apezküpü, etb.

Haatik, pastoral güzietan agertzen dira Aingürüak eta Satanak. Lehenek honaren alde direnak sustatzen dütüe, bereziki bertsü zonbait kantatüz. Horik xuriz jauntsirik dira elizamitilak bezala, eskülarrüak badütüe, bizkarrean hegalak, bai eta kürütxe ttipi xuri bat esküetan, бүrüan ere askitan bilordeak. Gaixtoaren berme Satan eta zerbütari bat edo biga. Dantzariak bezala gorriz jauntsirik dira, galtzamotx edo hazpantar ederreki zankoetan, beste jeietan nola maskaradetan erabil ohi direnak. Biga edo hiru horzdün kako bat edo ere azote bat eskü esküinean etxekitzen düe. Бүrüan bunet gorria, bilo xuri edo gorri moto bat sai-hetsean dilindan. Güziak beren ele motzez zirikatzen dütüe, nahaskeria ezarten eta herra pizten. Gaixtoaren aldeko hilak ziloala urtukitzen dütüe. Horien egitekoa ere beren dantza arin baldegabeaz gure xarmatzea. Azken urte horietan Satan saldo bat sartü da, bena ez düe deüs handirik egiteko eta ene ustez, hüts bezala dira.



Pastoral orotan orano, edireiten dira artzainak. Zaragozaila nabarrez, xamarra beltzez, atorra xuriz, lepoko gorritz jauntsirik dira. Hoinetan eskalanpuak. Aitzinetik ez balin baziren agertzen, orai tauladaren erditara ardien eroateko ohidüra da, behin bederen, asto eta tzakürreki. Astoa albardatürük da olalat eramaiten diren tresneki; ardiak, aldiz, ez dira bixkarratürük bena ile lüzeeki, metale handiak lepoan. Beti xoragarri da horien ikustea, bai eta emaiten dütüen kantoreen azaliaren entzütea.

Beste bi antzekide saldo aipa dezagün. Bata tauladaren andereena da. Hiru dira: bat erditan, beste biak bedera sargietan. Horien egitekoa da beren günean alkien ezarteko eskükaldü baten emaita, taulen xahatzeko ere, oihal baten hedatzeko, sargien zabaltzeko eta errejentari keinü egiteko arizaleak prest direla. Gona beltzez jauntsirik dira eta dabentü xuriak dütüe. Beste saldoan, tauladaren begirazole bada lau potiko. Horiek jauntsi bereziak ezar litakee, zaragoila eta gaztaina kolorezko seiak edo beste. Ihizekako armak badütüe eta tauladaren peko lau hegaletan jarten dira.

Azken lagüna errejenta. Beltzez jauntsirik da, xamarra eta lepokoareki. Eskütan dü ostojosi bat. Hortan idatzi dütü norberak erran eta egin behar dütüanak. Hori da antzerti giltza. Mahainean delarik, bi bandera laubürüdün, bata urdün, bestea gorri, ordü delarik erabilten dü: lehena urdiner bürüz, bestea gorrier bürüz, biak güzier bürüz. Horien bidez, arren, dütü antzerki osoa eta arizaleak xüxentüko.



MUSTRAKA, *Xabakoa pastoral*

(Barkoxe, 2010)

## 7. JOKÜLARIAK

Beste antzerki zaharretan gizonak baizik ez balin baziren ari, gurean gizon edo emazteak ari ziren; arizale güziak edo gizonak berak ziren edo emazteak. Arren, ez ziren nahasten.

Haatik badakigü, 1799an, Klovis pastoralean, gizoneki batean, bi neskatila agertü zirela. Bestalde, Satanak beti gizonak ziren, emazteek emaiten züelarik ere. Bena, 1868an, Ligin eman zen pastoralean, neskatila bat izan zen Satan.

Orai, gizonak eta emazteak alkarreki ari dira. Ez düt uste bereztea Xiberoko antzerti zahararen eredu beharrezkoa den. Halere, han hor, beste ikusgarritan, maskaradetan ezar dezagün, gizonak emazte arizale bilakatzen dira, emazteak gizon arizale, nahiz eta beste ezpiritü batetan. Hala hala hon da, arren, pastoraletan eginmolde hori noizean behin begiratürük izan dadin. Ez ote da sirasgarri gizonak emazte zatia egiten düanean, eta emazteak gizonarena!

Aitzinetik gizon emazte horik ber herrikoak ziren. Bortxaz ere, zeren eta herria berartara bildürük zen, ez beitzen erres besteeki harremanetan sartzea, oraiko biderik ez komünikabiderik ez zagolakoz. Bena arrazu handiago bat bazen ere, bakoitxak bere herriaren harrotarzün azkar bat bazüala. Orano hala da: haboroentan herri batek berak dü pasterala antolatzen. Herri bateko bizizaleak bere herri-tarrak hobeki ezagützen dütü, eziz ez beste batetakoak; herrian berean alkarretarazea ehiago da, bai eta alkarreki hitzartzea. Bestalde, herriak orai beren artean gaüza hanitxerentako biltzen badira ere, bakoitxak bere berezgoa ezin dezake üka. Beti bere harrotarzüna ezarten dü bere herriaren omenaren hedatzeko eta ahalik ederrena eta gorena opatzen dü.

Azken urte horietan, haatik, herri hanitxetakoak batetaraten dira pastoral baten emaiteko. Hala hala ikusten dütügü alkarte batetako kideak. Üdüri lüke horiek oroek neke zonbait üken düela, ez bada antolaketan, ezpiritüan bederen. Ez da harritzekoa. Abiatzen diren gaüza güzietan, oro ontsa joan dadin, epe bat, llabür edo lüzeago bat, egürüki behar da. Halere hon da bide horri jarraitzea eta horren barnatzea, gogoak emeki emeki kanbia ditean. Garrantzitsüa da, ez nork, honek ala harek, emanen düan pasterala, bena pastoralak pastoral iraün dezan.

Edonor izan daiteke jokulari. Nahi düan ber. Ez da ihor baztertürük izanen, holako edo halakoa delakoz, edo bere bizipidearengatik edo beste zoinahi

estakürürengatik. Ez eta ez dira ere haren bila joanen, gogozgainti ari izan behar badü. Gazte ala adineko, txipi ala handi, ezagüna ala ixilagoa, orotarik bada arizaleetan. Nornahi bere nahitara saldoan sar daiteke. Bere egitekoa ükenen dü.

Bena ez zer nahi. Heben bai haütü bat eginen da, bakoitxaren jitearen eta ahalaren arabera. Hala nola süjetak, hau beita arizale nausia, botz ozena üken behar dü, hartze hona eta xügüntarzüna. Gorriak ahalaz besteak beno handiago eta gotorrago dirate, aingürüak zortzi eta hamabi urte artetakoak nonbait han. Satanak baitezpadakoak dira. Hanitxetan tauladara jelkitzen dira eta izan behar düe beren dantza jauzien oso jabe eta haüen bidez ikusleentako atsegingarri. Horra zergatik dantzari hoberenetarik haütatürik diren. Gero kantari hon zombait ediren behar da, bai bakarka kantatzeko bai saldoan. Süjetak, Satanek eta botzek düe orozgain, ekeiareki batean, pastoralaren arrakasta sortüko.

## 8. ABIOAK EDO LEHEN ÜRRATSAK

Herri batek eta hanko bizizaleek beitüe pastorala eskentzen, ez da bizipideko lan bat. Hortakoz, antoladüra ez da eredu berezi bati lotürrik.

Uste düt hau dela abio ororen giltza: pastorala xiberotarrentako gertakari handia dela. Hortan nahi düe erakutsi bai eüskal kültürari düen etxekidüra, bai eta horren bürüratzeko düen albidata badüela, zoinek haboro.

Gero txinka bat aski da gaüzren bidean jarteko: “Errak eta pastoral bat eman bageneza.” – “Züen herrian bazirae gazteria ederra, pastoral bat eman zenezakee.” Eta holako... Batetik besteala hitza zabaltzen da eta baratx baratxa gogoak betatzen dütü eta berotzen. Horrek iratün lezake bizpahiru urtartino, ez bada haboro.

Bena azia ereinik da eta zainak eginen dütü. Ordüan agertüko dira gizon eta emazte zombait eta ea pastoral bat idatzirik badenez bila ebiliko dira. Gero, aitzinetik ez bazen ere hala, orai jakinaraziko düe herriko aüzapezari.

Alkarreki herritarrek gütün bat igorriko düe, pastoral baten abiatzeko asmüa sortü dela, bildü behar dela ikusteko zer ondorio herri osoak har liroan. Idazlariari ere dei eginik zaio. Epearen egünean, gütü edo hanitx izanen dira, zombaitek ezin heltüa erranez, bena pastoralaren alte direla jakinaraziz. Izan leiteke berriz bil ditean hobeki gaüzren abiatzeko. Idazleak bere lanaren berri emanen deie eta haüen galtoer ihardetsiko. Erabakia hartüz geroz, ez daiteke üka, ohorea galdü gabe.

Bilküra horietarik landa, batak eta besteak mintzatüko dira, alkar ikusiko düe eta joküarietan sartü nahi direnek izenak emanen dütüe. Beste zombait ezbaian egonen dira eta lüzatüko düe baiaren emaita. Beste hanitxek ez badüe aritzeko nahia, halere gogo honez beren izena emanen düe, antoladüretan botzik parte hartzeko, saihetseko hainbeste lanetan eskü kaldü baten emaiteko.

Gero, alkarte ofizial bat sortüko düe, orok batean gaüza güzien eztabadatzeko, lanen partekatzeko; horren barnen batzorde ezbardinak jarriko dütüe. Alkartearen eta batzordeen kideak, joküariez beste zombait izan ditake.

Arrenküarak ez dira eskas izanen, güziek ükenen beitüe zeri bürü eman. Zombaitek agergerriaren günearen haütatzea eta haren üngürüko antoladüarak: heltzeko bidea, taulada, jarleküak, baztergia, komunak, jateko, etb. Beste batzorde batek bere gain hartüko dü sarjelkien jarraikia, behar diren ütürrien hunkitzea eta diharü lagüngoaren ardiestea. Beste batek püblicitatea, inprimaketa edo jauntsiak. Lan

horik ez dira erres trebe ez diren herritarrek bürüratzeko eta nahikünte handia behar düe horier bühürtzeko.

Emanaldiaren epea hartü eta, lau bost hilabete lehen hasten dira ikasketak. Berant arratsen, beren egüneko lanak ürrentü ondoan, astean behin edo berritan bildüko dira. Haboroenek ez düe batere ezagützen zer den antzerti saila. Den gütien gaüza ikasi behar düe: ahozkatzen, jenteen aitzinean agertzen, ebilmoldeak... Hortarako errejenta ükenen düe gidari. Honek dü hatsarretik ikusiko nork zer eginen düan, zer egin dezakean. Bildüko dira barne batetan: trinket, lantegi, edo-zoinahi aterbetan. Berantago, kanpoan jarri tauladan isetü zonbait eginen düe. Azkenean, egun zonbait agerraldia beno lehen, izanen dira mustrak. Hau herritar-rer eskentürük da. Hortan jada arizaleak beren jakitate eta bihotz güziaz ariko dira.

Aitzinetik, urtearen lüzean noiznahi emaiten zen Xiberoko antzerkia. Bi gaüzari sogiten züen: alde batetik noiz bazükeen beren lanetan arte bat, bestetik noiz eta egünaldi ederra zükeen. Lana artzaingoari orozgain lotürük zen. Arren, gütienik irailatik eta barantailara emanik ziren, bai eta üztailan ere, ordüan beitziren bedakak egiten, negüko geinüaren biltzeko.

Gure egünetan, lana beste da eta bizimoldea ere hanitx bestelakatü da. Orai, agerraldi haboroenak üdako hilabetetan edireiten dütügü. Herrian berean biga izanen da, bata üztaila ürrentzean, bestea agorrila hatsarrear. Ontsala bedakak eginik dira, egünaldiak eder, egünak berak lüzeago. Bena ez daiteke arrenküra osoa baztert eta azken epealartino lotsa bada ebiak ez dütüanez ote gaüzak nahasiko. Baitezpadakoa da lehen emanaldia bederen hobekienik kausitürük izan dadin.

Herrian bi emanaldiak bürüratü eta talde osoak erabakiko dü non eta noiz beste bat edo biga eskent, galto güzier ez beitezakee ihardets.

## 9. PASTORALAREN HASTEAK

Hona pastoralaren egüna. Askitan meza goizeko hamar hameka orenetan emanen da, edo herriko elizan edo pastorala sarri eskentüko düen günean berean.

Jada, jente hanitx badate; herritarrak prefosta, bena ere Eüskal Herritik eta bestetarik jinak. Jokülariak alkarretaratüko dira güzien aitzinean. Pastoraleko jauntsieki dira. Beste güzieki batean kantatüko düe. Bena ere, berez, sinesteari dagokion pastoralaren kantore bat eman lezakee.

Meza ürrentü eta tzintzarrada izan leiteke. Ordüan, bazkal aitzin, karrika üngürüa eginen düe. Ikusgei ederra eskentzen deigüe. Arizaleeki batean, artzain batek bere artaldea eroaten dü. Ardi adardünak dira; ilea lüze düe; beren adarrak kolorezko xingolez apaintürrik dirade; lepoan, joalte zabaletarik txilintxau, metaleak. Joiten düe, hogeï hogeitahamar herots ezbardin. Gero, bazkari arin bat hartüko düe.

Hona orai, agerraldiaren tenorea. Bazkal günetik hüilan abiatüko dira arizaleak: herrokan. Holaxe izan litake: aitzinean, biga edo hiru artzain ardieki; gero müsikariak. Gibeletik: süjeta zaldiaren gainen, jokülari zonbait ere zaldietan, jokülari saldoa, banderak. Prefosta herroka hori izan daiteke beste.

Antzokiala heltzean, pastorala egiaz hasten da. Talde osoa tauladala hüilantüko da, müsikak joiten düala eta. Lehenik errejenta; gero, herrokan beren banderen gibeletik, eskerreko gaintian urdinak, esküinekoan gorriak; horien ondotik Satanak; gero artzainak, taula andereak, antzoki begirazaleak, balin bada; azkenean aingürüak, apeza eta süjeta.

Orai, arren, jokülari, ikusleak haidürü daude: pastorala has daiteke.



JOKÚLARIA MINTZATZEN MAKILA ESKÛ ESKÛINEAN

Xiberoko jauna pasterala

(Ezpeize, 2008)

[www.eke.org](http://www.eke.org)

## 10. ANTZEZARAUAK

Antzezteari бүрүз arau orokor zombait gogoan үкен behar дүгү.

Ikusi дүгү nola jarririk dagon taulada. Jeiaren hatsarretik үрrentzeala beti bardina da. Arren, gertakari bat izan dadin hüilan ala хүррүн, гүнеа ez da aldatzen. Hala hala egoiten da. Apaindүrak ez дү salatzen zer non iragaiten den. Taulada хүtsik da. Doidoia mihise bat, arkүts bat, hilen edo zaurtүen eramaiteko, бүрүrdi bat belarikatzeko, noizean behin mahain bat botila eta edanontziaki, eta holako, bena egiaz гүза гүти. Antzerkian aipatү гүне гүziak ber taulada хүtsean sartzen dira.

Bardın da, sogiten badүгү noiz zer igaraiten den. Heben ez da мүгарик ez eta eperik itxүratүrik. Gertakariak izan ditake norbaiten bizi batenak, belaүnaldi baten edo hanitxen artekoak. Hola zergatik antzezkidea beti bardın den, izan dadın ala gazte ala gehitү ala zahar okitүa. Haatik, haurtzarоа eskentzen bada, haur baten agerraraztea ohi da, edo ere besoetan panpina baten hartzea, bularrezko haur baten orde.

Apaindүrarik, arren, ez da ezarten, bena noiz behin gehigarri ez egiazkoak, itxүra ttipikoak. Beste antzerkiek ez bezala, gure pastoral zaharrak ez дүтү ez гүнеак ez jokүlariak egiazko errealitatean erakusten. Historia edo bizitzea tauladan jelkaldiz jelkaldi herrokatzen delarik, ikusle bakoitxak berartan errealitateа asmatzen дү, ekeiak emanik zaitzon arabera. Erran genezake antzerkiaren үtzүlүngүrүa ipuin batena bezala jarraikitzen дүela.

Horri lotүrik dago jokүlariaren eginmoldean deүsek ere ez дүтүala ez bere ez antzezkideen sendimentүak agertzen. Horien agerrarazteko ez дү ez eskүez, ez begitartүaz, ez bestela, keinүrik eginen. Lerden bezala egoiten da, bere puska herrokatzen дүano, bai eta antzerki osoaren лүzean. Ez da jokүlariaren gain antzezkideak zertan diren den гүтиен xehetarzүnean erakustea, gertakarien aipatzea baizik. Heben orano ikusleak дүтү asmatzen jelkaldietako alkarrizketaren arabera.

Erran bezala, taulada bi zatitan dago: gainti bat honaren aldekoak, beste bat gaixtoarenak. Beharrezkoa da oso berezirik izan дитеan. Hortarako koloreak balitzen dira.



Lehenen kolorea urdina da, bigerrenena, aldiz, gorria. Ez urdinez ez gorritz jauntsirik direla, bena beren jauntsitan kolore horik nonbait agertzen direla. Holatan, ikusleek nekerik ez dūe antzekideen berezteko, lehenen lan honaren alde jarteko, besteenaren gaitzesteko.

Bateen eta besteen bi entseinari gidari dira. Bi kolore horietako bandera laubürünak edo lehudünak erabilten dütue. Urdinen aitzinean bandera urdina doa, gorrien aitzinean, aldiz, gorria. Hatsarreko sartzean eta ürrentzeko elkitzean, bere gibeletik bakoitxak bere taldea eramaiten dū. Biek alkarreki lehen perediküaren eta azkenaren emaileak lagüntzen dütue beren gibeletik, urdinak esküinetik, gorriak exkerretik. Horietaz kanpo, errejentak dütü bi banderak begiratzan, batean bederazka erabilteko jalkaldietan, urdinak eta gorriak agertzen diren arabera; bestean, alkartürrik, kürütxe erabilteko, orozgain güdüetan. Holaz jokülari güzien harahonakak manatzen dütü bai eta müsikariak. Egiaz, banderak ere, antzerkian, beharrezkoa dira.

Jokülariek berek eskü esküinean badüe makila. Bena ez Aingürüek ez Satanek, ez eta horieki daudenek ez dūe makilarik. Bai urdinek bai gorriek erabilten dütue. Bi sail betatzen dū. Häüen güzien ürratsak lagüntzen eta izartzen dütue. Ebilten eta mintzatzen direlarik, harez taula joiten dūe. Bestalde, gorriek, beren eбилtean ikusleer bürüz bertseten bigerren zatiaren ürrentzean firrindaka erabilten dütue, bürüaren alde gainean biga edo hiru üngürü exkerreko aldetik eta beste hainbeste esküinekotik egiten düelarik. Bi alderdietarik edozoin mintzatzen hasten den, makilaz lürra joiten dū.

Bi alderdiek gisa hortan baliatzen dūe makila. Bena bakoitxak badü bere eбилmoldea. Urdinak eme eta axolati dira, horien eбилka jentetarzünez oso beterik da. Ezpataren giderra eskü exkerraz tinkatürrik, ürrats gozoan badoatza. Beren züzenaz segür izan eta, ez dūe indarririk erakutsi beharrik, albidata baizik. Ez da batere hala gorrienganik. Hantustez beterik dira, beren errabia erakusten dūe, abrekeriari ekarririk dira. Ezinegona dūe. Erretüs dira, zale eбилten, aidea makilaz azotekatüz.

Jinkoaren mezülari diren Aingürüak urdinen antzo dira, bena orano baratxago eбилten dira. Lerden dira, soa beti aitzinara, ürrats ttipiak egiten dütue. Halaber häüen erditan dabilan apeza.

Satanak, aldiz, gorrien baldekoak dira. Lasterka, jauzka, zale zalea badoatza. Hanitx igitzen dira, hala nola tauladala agertzen direlarik eta gero gibel ützültzen, agur laster bat doidoia abiatzen dūe. Ez dūe arterik. Tauladaren beraren erditan kürütxatüz joan jinak egiten dütue, aldizka bürüz bürü edo bizkarrez bizkar.

Bestalde, arizaleak, egiten dütüen keinüez berezten dira. Alkietan jarri aitzin, bi jokularik alkar gürtzen dūe. Pastoralaren hatsarrean eta ürrentzean, alkarrenganat hüilantü eta, urdin güziek eta gorri güziek bardin egiten dūe. Beren bertsetaren azken herrokaren emaitan, urdinek esküak goititzen dütue bürüaren alde gainean eta gero jaisten anketarano. Gorriek, jarten direlarik, beren zanko esküina belaün exkerrean jarten dūe. Gero, xütitü beno lehen, bat batetan exkerraren

ondoan ezarten düe. Beren sargietarat doatzalarik, Satanaren txotxongiloa makilaz mehatxatzen düe, eküratzen dira edo ürrats bat edo biga gibel egiten düe eta arrabiatzen dira.

Bi alderdiek beren artean egiten düen güdüak bere arauak badütü. Müsikareki jelki eta bürüz bürü daude. Lehenik alkar gaizkiz ari dira. Urdinak bere hitzak gorrienganat ützüliz emaiten dütü. Bertsetaren hirugerren puskan ützültzen denean, gorri batek edo saldoak oro hoinez taula joiten dü eta ‘hu!’ idor eta basa bat entzünarazten. Gorriak, aldiz, beti bere bertsetaren hirugerren puskan, makila firrindaka erabilten dü. Gero, güdüaren hatsarrean, beti müsikareki, urdin eta gorriek eskü esküinaz ezpatak elkitzen dütüe, exkerra gerrian düelarik, makila dilindan han tink etxekiz. Güdüalako alkarrenganat doatza, esküineko zankoa beti aitzinean. Ezpatak, aidean, izarian alkar joiten dütüe. Batean urdinak, bestean gorriak gibeltzen dira. Biga edo hiru aldiz hola ari dira. Goitüek ürrats zonbait egiten düe ikusentzüleer bürüz eta txingilika ützültzen dira beren sargialat, esküineko zankoa orano aitzinean, exkerra herresta bezala. Irabazleek, gibelka, güdüaren hastean züen beren leküa hartzen düe.

Nola mintzatzen dira eta nola behar düen mintzatü? Aingürüek ez düe ihoiz elerik emaiten, bena bai kantatzen. Satanak mintzatzen dira harahonaka ari direlarik eta bertsetaren lau puskak ber sonü gora behera batetan emaiten dütüe, bakoitxean dantza ürratsak egitez.

Bi alderdien antzekideak ere lau zatitako bertseteki mintzo dira. Urdinak eta gorriak, *recto tono* kantatüz ari dira. Lehen zatian, norbera bere botzaren arabera ari da, bigerren zatia ber botzean emaiten dü, hirugerrena gorago eta laugerrena apalago. Haatik urdinen botza eztiago da, gorriena, aldiz, gogorrago. Behar da ikusi, jokülari bakoitxak, bere botz berezia badüalako, gorago edo apalago hartüko düala.

Pastorala kanpoan emaiten beita, beharrezkoa da, bateek eta besteek ontsa beno hobekiago ahozka dezaen eta argi beno argiako hitzak ebaki ditzaen. Hori hanbatez haboro non ebilka beti mintzo diren.



GÜDÜ BAT *Eñaut d'Elizagarai* pasterala  
(Gamere-Zihiga, 2007)  
[surlaroute.blogs.sudouest.fr](http://surlaroute.blogs.sudouest.fr) argazkia

## II. ANTZEZLANA


Arren, karrika üngürüa ürrentü eta, jokülariak antzokiala hüilantü dira. Musikariak ere beren musikategiala igan dira. Ikuslariak haidürü daude. Orai egiazki hasten da antzezipena. Antzezlana bi sailetan zatika daiteke: alde batetik hatsarrekoa, antzokiaren kanpotik jokülariak sartzen beitira, eta bestetik jelkal-dikoa, tauladaren oihaletik jelkitzen beitira.

### II.I. Hatsarreko antzezlana

#### II.I.I. Tauladala igaitea

Ordüan, musikareki batean, jokülariak, goxoki, ber ürratsean, abiatzen dira antzokialat bürüz. Aitzinean doa errejenta. Haren gibelean, esküinetik gorriak, bandera gorria igitzen düan entseinariaren ondotik; exkerretik urdinak, bandera urdina igitzen düan entseinariaren ondotik. Oro abiatü eta, entseinariak bi aldiz exkerreko soinearen alde gainean eta bi aldiz exkerrekoaren alde gainean bandera izariz erabilten düe. Agertüko diren aldi oroz bardin eginen düe. Gero urdinen gibelean artzainak eta tauladako andereak; gorrien gibelean Satanak. Gero, horien gibelean eta erditan aingürüak eta apeza, balin bada. Azkenean süjeta, antzezkide gehiena.

Tauladala heltü eta errejenta eskeleren aitzinean eküratzen da eta beste güziak haren saihetsetarik igaiten dira. Tauladaren erditik badoatza zolako oihaletarano; han bedera gaintitarat ützültzen dira, urdinak sargia urdinetarat bürüz, gorriak sargia gorrietarat bürüz. Gero sargien eretzean berriz ützültzen dira ikusleatarat bürüz, eta tauladaren hegian daudelarik, entseinariak bandera igitüz, bürüz bürü herrokan eküratzen dira; herroka bat bera da edo biga, jokülarien saldoaren arabera. Aingürüak eta apeza erditan egoiten dira zolako oihalaren aitzinean, ikusleenganat soz. Güziek ebilkan eta eküratü eta, hoinez eta izarian taula joiten düe.




### II.I.2. Hatsarrea

Urdinak eta gorriak, arren, bürüz bürü dirade, müsika lagün taula hoinez mailükatüz. Errejentak egin keinü bat eta exkerreko zankoak alkarren bürüz abi-atzen dira, entseinariak bandera erabilten düela eta. Ordüan, erditan, metra bat arte bürüz bürü direlarik, denek batetan alkarri gurregiten düe. Gero, ber ürratsean gibelka beren leküala ützültzen dira, parean eküratzen direlarik.


### II.I.3. Lehen perediküa

Müsika ez da eküratü. Bi entseinariak bandera erabiliz lehen perediküa emanen düanaren bila doatza. Hortarako erditara hüilantzen dira, alboz albo tauladaren zolalat bürüz joaiteko.



Üngüratzen diren artean, perediküaren emalea horien bien erditara heltü da, eta hiruak tauladaren aitzineala dabilta, eta han eküratzen dira.

3. itxüra




Perediküaren egilea aitzinean eta erditan da, bi entseinariak bedera gaintarik dütüalarik, bizpahiru ürratx gibelxeago. Müsika ixiltzen da. Hasten da perediküa. Lehen bertseta emaiten dü hor berean erditan, bigerrena bere exkerrean, hirugerrena erditan berriz, laugerrena esküinean, bosgerrena erditan, eta hola hola, harat eta honat günez aldatüz, beste bertset bakoitzean; azkena, aldiz, erditan beti. Bertset bakoitzaren artean, günez kanbiatzean, müsikak joiten dü, hiruak izarian ebiltzen direlarik, entseinariak beren bandera erabilten düelarik, joküleri güziak, beren leküan egonez, hoinez eta makilaz ozkatzen düelarik. Lehen perediküa ürrentü eta hiruek, beren herrokarat bürüz ützültzeko, goragoko ber bidea beste gaintialat egiten düe.

**II.I.4. Sargietan sartzea**

Denek orai taulada hüstüko düe. Sargiatik hüülanena abiatzen da orenen aitzinean, besteak gibeletik. Erditara heltzean, ikusleer bürüz jarten dira, norberak aitzina jarraitzen dü bere aldeko kantualat. Han bederazka üngürü hirulaurdeneko bat egiten düe eta zanko exkerraz abiatüz beren sargietarat bürüz doatza. Gorriek, aitzineko kantuan, makila firrindika erabilten düe. Hor, horiek, baten orde bi üngürü egin dezakee.

4. itxüra



Herroken ürrentzean, aingürüak ere aitzinara agertzen dira, benedizione bat egiten düe eta heltü bezala ützültzen dira eta oihalaren erditik galtzen, urdin eta gorri azkeneki batean.

Taulada hütsik dago, urdinen sargia ertzean, errejenta jarririk mahain batetan; zolako oihalaren aitzinean hiru taulada andere, bedera sargia bakoitzean, bat erditan; bizpalau jargü honen aitzinean.

### II.1.5. Satanak agertzen

Ordüan, bi Satan eskalerak goiti dantzan igaiten dira, biak alboz albo. Zonbaitetan, ezin igaitea egin lirokee, indar gorde batek gibet bultzatürrik bezala. Azkenean tauladan dira eta bi aldeetan dantzan jarraititzen düe, ikusleer bürüz.


## II.2. Jelkaldiak

Jelkaldi güziak müsikak lagüntürrik egiten dira.

### II.2.1. Jelkaldi orokorrak

Gorrieki eta urdineki ber gisara agertzen dira, bena talde bakoitxa bere aldian. Arren ikus dezagün urdineki.


Beren sargietarik jelkitzen dira alkarrondoza, süjeta azkena agertzen delarik. Errejentak keinü egin dü; exkerreko gaintialat badoatza. Ützültzen dira eta beren lehen herrokala berriz joan eta han eküratzen dira.



5. itxüra


Ordüan jargietarat joaitekoak direnak erdiralat bürüz hartü eta ützültzen dira jargien aitzineala, alkar gürrigiten düe eta jarten dira. Horik beren jargietan ez direno, besteak oro, beren herrokan haratonat ari dira müsikaren izarian.

6. itxüra




Jargietarat joiatekoak baizik ez balite jelk, holaxe egin lezakee: beren sargietarik elk eta, herrokan jarten dira, gero exkerrealat ützüül eta harat doatza, berriz exküinelat joaiteko, eta hantik jargietarat.

7. itxüra




Holaxe ere izan leiteke: beren sargietarik jelki eta, tauladaren aitzinean, ützüüli hirulaurdeneko bat berederazka egiten düe, gero berriz beste xokoan, eta hantik tauladaren zolalat doatza herrokan eta jarten dira erran bezala. Gorrier dagokien-az, ezbardintarzün bakoitxa da bi bazterretan herroka osoak makilak firrindaka erabilten dütüela eta jargietakoek ere bardin jarri aitzin.

8. itxüra










I1. itxüra

**Antzekide bürüzagiak**

Horietan ediren ditzakegü erregeak. Jargietan daudelarik, mintzatzean bi gisaz egin lezakee.


1°) Mintzatzerä doanak makilaz joiten dü taula bere ondoan denari keinü bat bezala egiteko; biak xütitzen dira. Gero mintzatzen hasten da; ürrats zombait eginez alboz albo, alkarretarik hürrüntzen dira, gero tauladaren aitzinean, berriz hüilantü eta jartera doatza.



I2. itxüra


2°) Bestela egin daiteke.

Bata mintzatzen den ber artean, biak bedera gaintitarat doatza; bata besteari ützültzen dira eta erditan kürützatzen. Azkenean beren gaintian egonez tauladaren aitzinean üngüratzen dira eta beren jargietarano joaiten han jarteko.



I3. itxüra

3º) Lau balin badira jargietan, birazka xütitzen dira, edo bi erdikoak edo bi hegalekoak. Aitzina bürüz badoatza. Gibel joaiten direlarik eta, beste biak horien-ganat ürrats zonbait egiten düe; han besteen heineala heltü eta üngüratzen dira; gero lauak jargietan jarten dira.




I4. itxüra

Gisa horietan orotan, urdinek hatsarrean jarri aitzin, alkarri gurregiten düe. Gorriek firrindaka bi aldiz ari dira, behin azken üngürüaren egitean ikusleer bürüz, eta gero jarri beno lehen.

#### 11.2.4. Tauladatik elkitze

Bi alderdien eginmoldea heben bardina dago. Gorrientako beste gaintia hartü behar date. Har dezagün, arren, urdinena. Hiru sail agertzen da.

a) Jargietan zaudenak besteen herrokalartino badoatza. Gero denak xüxenka exkerrealartino.



I5. itxüra


Han tauladaren aitzinean ützültzen dira, abiatzen, kantuan üngürü hirulau-deneko bat egiten, joaiten beren esküineko kantuala, eta ber üngürüa egin eta sargietan galtzen dira.



### II.2.5. Kürützatze


Gorriak baizik ez dira kürützatzen. Zortzi dira. Beren sargiatik jelki eta herrokan jarten dira, gero esküinealano badoatza, eta firrindak egin eta berriz exkerrealano ützültzeko, beti firrindak eginez.

Gero horko bi bazterretakoak beren leküan egoiten direlarik, beste seiak esküinealano badabiltza. Han berriz bi bazterretakoak eküratzen dira beste bier bürüz, beste lauak beren jargietarat jartera doatzalarik.



19. itxüra

Bat mintzatzen denean, denak higitzen dira. Lau kantukoak badoatza beste aldean bürüz bürü den kantuala eta berriz ützültzen; arren, berritan erditan kürützatzen dira. Ber artean, jargietako biga abiatzen dira aitzina bürüz, hüilaneenen kürützatzea mozten düe, beste biak, kürützatzen diren ber güneala heltzen dira eta beren jargietarat ützültzen. Jargietako beste biak horier bürüz joaiten dira eta lauak, herroka bakoitx, beren jargietarano jiten dira, besteak lau kantuetarartino batean. Jargietakoek aldizka beren higidürak egiten dütüe, bazterreko jargietakoek ebilaldi osoa, erdietakoek llabürra egiten düen ber artean, eta gero aitzika. Erran dügün arabera, oroek makilak firrindika erabilten dütüe, bazter batetarartino eta beren leküalano heltzen diren aldi oroz.



20. itxüra

### II.2.6. Güdüa

Talde bakoitxak sei güdulariz goiti üken dezake, herroka osoa betartino. Biak, arren, bürüz bürü dira. Güdüa hasi beno lehen, territak egiten dütüelarik, han egoiten dira. Gero, eskü exkerraz, makila, gerriaren kontre tinkatzen düe, besteaz ezpata hartzen eta begitartearen aitzinean, mütürra goiti bürüz etxekitzen.

Ordüan, errejentak keinü egin eta bi herrokak zanko esküina aitzinean, alkarri bürüz abiatzen dira, ezpataren joiteko artean bata bestetik eküratzen. Musikaren izarian, ezpatak alkar panpatzen dütüe. Hor, beti zanko esküina aitzinean, bata aitzinatzen da, bestea gibeltzen, gero hau aitzinatzen da, hura aldiz gibeltzen. Hola irauten dü lauzpabost aldiz. Arren, noiz urdinak aitzina bürüz badoatza, gorriak gibel bürüz ari dira, noiz bestalde, gorriak aitzina bürüz, urdinak gibel bürüz.

Bakoitxa etsai bati baizik ez da lotzen, noizean behin biri, esküin exker ezpata erabiliz, batean esküinekoaren kontre, bestean exkerrekoaren kontre. Irabazleak bere etsai goitüa ezpataz txistatzen dü eta hau erorten da. Norbait zaurtürik baizik ez bada, lürrean ükondotzen da eta bere bürüa ahürrez etxekitzen dü, hilik ez dela erakutsiz. Preso hartürik daudenek esküak bizkarrean lotürik dütüe eta ez düe indarrik egiten bühürtzeko. Ihes doana, jauzika badoa. Urdinen hilak lagünek hagetan eramaiten dütüe, gorrienak Satanek ziloalat urtukitzen dütüe. Goitürik direnak herrokan bata bestearen gibeletik, dantzan bezala, badabiltza, zanko esküina aitzinean, exkerra gibeletik herresta bezala. Güdüa ürrentü eta aitzindariak, bere lagüner bürüz ützülerik, ezpata goititüz, keinü bat egiten dü eta denek beren ezpatak zorroan sartzen dütüe, taulada hüstü beno lehen.

### II.2.7. Kantorea

Pastoralaren alkarrizketa hüilan osoa kantatürik balin bada, jelkaldien arteetan badira kantoreak. Horien emaileak jokülariak oro izan ditake, ez da ihor baztertürik. Ez da gure antzerkian kür berezirik, Greziakoan bezala. Halere, artzainek beren puska kantatzen düe.

Horik, mihisen erdünetik ardieki batean tauladara igaiten badira, gero ardien üngürüan jarteko, ez da hala besteetaz. Urdinak eta gorriak, ürratsean müsikareki, beren sargietarik jelkitzen dira herrokan, gero tauladaren zolan saldoan biltzeko, beste jokülariak horien gibeletik, xüxenka alkarretaratzen direlarik.


Ez artzainak, arren, eta ez besteak ere, kantatzen düenean, ez dira ebilten. Ohartzekoa da, alkarrizketan ez bezala, ekürü egoiten direla kantorea emaiten düenean. Arren, hor egiten düe aingürüek bezala.

### II.2.8. Ürrentzea

Pastoralaren ürrentzean bi gaüza sartzen dira: azken perediküa eta gibel joaite orokorra.

a) Bi alderdiak, azken aldikoz, herrokan jarten dira, eküratzen бүрүз бүрү, eta herroka bakoitx alkarri бүрүз badabiltza. Tauladaren erditan alkarri гүррегитен дүе eta berriz herroka bakoitx gibelka beren гүнөөтарantino baztertzen dira. Aingүрүiak zolan egoiten dira. Ordüan, bi entseinariak azken perediküaren emailearen bila doatza eta gero jarraikitzen da lehen perediküan bezala.

b) Azkenean eginen da gibel joaite orokorra. Perediküaren emailea eta entseinariak beren гүнөөтара heltү eta taulada zolaren bidea hartzen дүе, besteez jarraikirik. Gero, bi herroka osoak alboz alboz үтзүлтzen dira aintzina бүрүз, alderdi bakoitxa bere gaintiko kantualano ebiltен da; han norberak үнгүрү hirulaurdeneko bat egin eta denak herrokan beren sargietarat бүрүз badoatza. Azkenik, horieki batean, aingүрүiak aitzinatzen dira, ikusleak benedikatzen дүтүе eta гүзиак oihalen gibealelat бүрүз galtzen dira.



Horik hola, prefosta, errejentak үтзүлүngүрү horien eginmolde zonbait alda dezake, bena ez nola nahi, arau orokorrak begiratүз baizik. Gaüza ttipi eta xeheak edo ken ditzake edo ezar. Haatik herroka gehienak zaintү behar дүтү.

### II.2.9. Antxerak

Antzerkia үррентү eta, jokülarien saldo osoa erditara biltzen da. Batek denen izenean, eskerrak emaiten дүтү eta agerpen zonbait egiten дү. Gero hasten dira antxerak. Antolatүrik dira tauladaren gainen dantza jauzien emaiteko ohorearentako. Hara iganen da diharү haboroena eskentү дүан herria.

## I2. DANTZA

Gure antzerkia, pasterala, aipatzen delarik, dantzer dagokionez, berehala Satan dantzak zaizgü gogoalatzen. Hala da gaitz bezainbat eder direla. Denen miresgarri daude, bena xiberotarrentako atseingarri. Dantzarien artean botzik bardinkape-nak egiten dütüe. Haüek badakie. Hortakoz ez dira tauladara iganen ürrats eta püntü güziak oso menperatü artino, nekeak oro xehetarzün eta indar oroz lantü eta. Pastoralari бүрүз egün oroz, egünean askitan ere, iseüka trebatüko dira.

Dantza horien egitüra errexki alda daiteke, zeren eta püntüak mügagabe sar beititake. Dantzari haütü batek bere aldetik bere püntüak asmatzen dütü ere. Beitaki dantzaren garrantzia eta barnetik nabaritzen beitü, bere herexa eman nahi deio; bere harrotarzüna hor jarten dü.

Dantza horik hanitx ikertürik beitira, ez gira gü heben xehetarzünetan sartüko. Gaüza bat bera nahi nüke goratik aipatü: ez soinak, ez eta besoek ez düela heben deüs ikustekorik, zankoe eta hoinek baizik.

Satan dantza berezi horiez beste, pastoral osoa dantza bat dela erran genezake. Badütü bere arauak. Jada ikusi bezala, alkarrizketa ez da ekürüan emaiten; taigabe, ürratsak izarian egiten dira. Izariak makilek eta müsikak ozkatzen dütüe. Bestalde, beste antzerkietan ez bezala, alkarrizketa hori ez da mintzo gisa iragaiten, bena kantüz. Mintzaldiak, arren, ürratsak, kantüak, makilen erabilkak eta müsikak ezin ditake berez, alkarreki hartzekoak dira, ber osotarzüna betatzen düe. Egiaz hori dantza da. Oro har, gure antzertia oso osoa dantza bat dagola ez da düdarik.

Hatsarreko eta ürrentzeko ebilaldiak denentako bardinak dira. Ber izarian badoatza, tauladaren üngürüa egiten düelarik eta makileki batean, ber artean taula joz, ber müsikak lagüntürik. Hori da dantza orokor bat bezala. Beste ebilka dantza üdürikoak ezbardinak dira, talde bakoitxaren arabera. Urdinen dantza ürratsak eztiak dira, bai saldoan jelkitzen eta joaiten direnean, bai bederazka üngüratzen direnean, mintzoa hartzen düanak makila eбилtean berean eta honen ürrentzean erabiliz. Ber gaüza agitzen da gorrieki, bena ürratsak azkarrago dütüe, gogor, besoak ere zabalkiago iharrausten dütüe, firrindak egiten dütüelarik. Arren, urdinak eta gorriak igitzen dira ez beren zankoe ki baizik Satanak bezala, bena beren



besoeki eta etxekitzen düen makilareki. Aingürüek üdüri lükee ebilten baizik direla. Halere ageri da izarian badoatzala eta haien ürratsak arruntak beno baratxago dira, esküak kürütxe dütüelarik eta noizean behin kürütxe bat tinkatzen düelarik. Hots hori ere dantza bat dago.

Bi alderdiek güdüa egiten düelarik, hobeki agertzen da dantza. Zanko bat aitzinean, bestea gibelean, aitzina бүрүз nahiz gibel бүрүз, бүрүз бүрү jauzika ari dira, ezpatak alkarri joiten dütüelarik, heben ere müsikaren izarian. Halaber goitürik diren edozoin alderdikoak ere: ützüli bat abiatü eta jauzka ihes egiten düe. Bateentako eta besteentako egiazko güdüdantza bat eskentürik dago.

Gäüza horietan denetan, joanjin taigabekoa ikusten da. Ebilka horiek dantza itxürak eskentzen deizgüe. Gisa batez, elizetako edo elizetarik abiatü elizüngürüak oritarazten dütüe. Ez dira beste dantzen antzokoak, beste hedadüra bat hartzen düe, hau da dantza sakratü bat bezala dela pastorala, bere erritu ezbardinak ozkatzen dütüan dantza bat.



DANTZARIAK, *Xahakoa pastoral*

(Barkoxe, 2010)

[www.kazeta.info](http://www.kazeta.info)

## I3. MÜSIKA

Müsikari bürüz, bi zati ikus genezake: musikagailüek betatzen düena eta kantüz emaiten dena. Gure helbürüa ez da xehetarzünetan sartzea, zer musika kente erabilten den orokorki aipatzea baizik.

Hona oraiko musikagailüak: klarineta, saxofoia, altoa, türüta, tronboia, baxua, bateria. Horiek hatsarreko eta ürrentzeko ebilaldiak izarian lagüntzen dütüe, bi aldiz zortzi (2x8) izari joiten düelarik. Urdinen ebilkan, ber gaüza edireiten da. Gorrieki ere bi aldiz zortzi izari, bena 2/4 edo 6/8 izaritan. Aingürüen eta Gotzainaren musika ereszatia urdinen baldekoa da. Arren, Türken ürratsen musika zaleago da, besteena aldiz baratxago. Lehen perediküak eta azkenak horien izariak balin badütüe, bertset bakoitxaren ondotik harahonaka egiten delarik, lau izari baizik ez da joiten. Musika horiek ezbardinak izan ditakeala eta, beharrezkoa da, arren, azken balintza horien begiratzea.

Ohizko musikagailüak ere badütügü: atabala eta txülüla. Horiek Satanak dantzetan lagüntzen dütüe. Noizean behin, kantari bakoitx baten bertsetak mozten dütüe, bai eta kantoreenak ere. Ordüan, ez dira ebilketan aritzen, beste musikagailüak bezala.

Kantoreetan, badira pastoralaren ekeiari lotürrik direnak, pastoral bakoitxaren geiari bürüz hortürrik dira; edo ere idazleak püntü berezi bat ozkatü nahi badü. Hortakoz berriak dira eta ezbardinak. Alabena ohizkoak izan ditake, geiari doazkion ber. Bakoixka, birazka edo saldoan kantatzen da. Bena musikagailüek ez dütüe lagüntzen.

Ber gaüza da lehen perediküarentako eta azkenarentako. Häien kantazalea, bere bertsetak emaiten dütüanean, ez da musikaz lagüntürrik. Bertset horiek ber ahaidea baliatzen düe eta kantazaleak, azken perediküan bederen, bakoixka edo birazka ari dira. Bestalde ahaide hori bardina egoiten da bertset oretetan. Halere, izan leiteke kantari batek bertsetaren ürrentzean edergailü bat lerra dezakeala.

Aingürüek berritan edo hirutan kantatzen düe biga edo hiru bertset. Horien ahaidea lehen perediküaren eta azkenaren bardina da.

Aipatü behar dügü ere süjetak kantatzen düan puska, hiltzeko menean. Ahaide hunkigarria dü, bena bakoitxak xaramela dezake zoinek hobeki, bere botzak eta bere gogoak salatzen deion aberastarzünean.

Bestalde, ohidüra zaharraren arabera, antzezkideak ez dira mintzatzen, kantüz baizik ez düe egiten beren alkarrizketa, müsika ixil dagolarik. Bi notetan kantatzen dütüe beren bertsetak. Halere, urdinak eztiki eta emeki ari dira, gorriak, aldiz, basakiago eta gogorkiago. Bertset güziak, arren, ber ahaidean kantatzen dira, norberaren botzaren arabera, haatik.

Pastoralaren lüzean, arren, müsika hedatzen da, edo tresnek entzünarazten düena edo botzak emaiten düana. Bestela erraiteko, pastoral osoa müsika eta kantore da. Dantza, errituzkoa den bezala, pasterala бүрүtik бүрү müsika errituzko bat da.



KANTARIAK, *Agota pasterala*

(Altzai-Lakarri, 1999)

[www.oocities.com](http://www.oocities.com)

## I4. ZAHAR HEREXAK

Lehentxe erranak ikusi eta, jada ez da dudarik gure antzerkia zahar dela. Halerik ere beharrezkoa da zahar herexa zonbaiten aipatzea.

Bere osotarzünari soginez, lehena da honaren eta gaixtoren güdúa antzeztürük dela. Aitzinetik, bazter güzietan, jentea bi indarren artean tinkatürük bezala zen. Pastorelean bi alderdiak edireiten dütügü, honaren aldekoak eta gaixtoaren aldekoak. Lehenak urdinez jauntsirik dira, bigerrenak gorriz. Horieki batean, lehenen lagün, aingürüak; debrüak, ororen gainetik Satan, besteen zirikazale. Arren, oso ezbardinak izanagatik, tauladan nahasirik dirade ber emanaldiari бүрүз, gizakiak bere bizitzean mündü hontakoak eta beste mündükoak nahasten dütuan bezala. Bena alderdika direnean, agerraldiak ezbardinak egoiten dira.

Zahartarzüna prefosta idazkian berean ere agertzen da. Holaxe jarririk da: lehen perediküa, historia bera, azken perediküa; beraz, hiru zati. Hala zen Greziako lehen antzerkian: prologoa, episodioa eta exodoa. Ekeia bera, batetan, historia bat da, bizitze bat, trajeria bat. Bertsütan idatzirik da, bertsü ezbardinetan; sartzen da olerki melga orotarik; nigargarrietarik haste erriegangarrietarantino, bizitzeko gertakarien arabera nahasirik.

Erran dügün bezala, errituak lekü haütüa badü. Xiberoak badaki horik aitzinekoek emanik izan zaitzola eta arraheinki begiratzekoak direla.

Bersetak goraki emanik dira, kantüen moduan, betiko jite herrikoiaren arabera. Hortakoz ere lau zatitan moztürük daude. Holatan ber notan emanik den mintzo kantatüak indar ezohizko bat biltzen dü.

Herexa zaharra agertzen da ere egitetan, horik beretarik mintzobeitira. Jokülariak beraren sendimentüak ez dütü ihoiz agertzen; begitartea hotz, aldatü gabe, begirutzen dü. Horren markatzeko, antzezkide gehienek mozorroak ez balin badütüe haboro ezarten, gorriek bai haboroenetan orai ere südürpeko ordezkooak baliatzen dütüe. Zahartarzüna orano agertzen da keinü errituzko zonbait egiten direlarik: hala nola bertsetetan ürrentzean urdinek bi esküak altxatzen dütüe otoitz gisan; gorriek, aldiz, makilak firrindaka erabilten dütüe mehatxü gisan.

Ber gaüza erran giniroke alderdi bakoitxaren eбилkez, müsikazkoez eta izarizkoez, itxüra üngürükazkoez, dantza baldeko güdüez.

Ez da düdarik, arren: horiek denek ohidüra zaharren herexa badüe. Antxerek berek aspaldikoak izan behar düe.

Horik hola, ikusten dügü ebilkak, elestak, müsika, dantza ezin ditakeala berez: oro alkarri lotürük dira, pastorean bat egiten düe.

## I5. ANTZERTI EZAGÜGARRIAK

Gaüza zonbait berriz zale zalea oritaraz dezagün.

So orokor batez ikusten den lehen gaüza da taulada hütsik dela pastoralala hasi beno lehen. Gibelean, alde gainean, müsikarien oihalezko gela bat eraikirik dago.

Jokülariak tauladara jiten dira herriko karrika üngürüa ürrentü eta.

Ekeia, arren, ber zoinüan, historia bat da, bizitze bat, trajeria bat, hiru pusketan zatikatürük: lehen perediküa, historia bera, azken perediküa.

Antzerkian nahasirik daude gizakiak, honak eta gaixtoak, eta beste mündükoak, izan ditean debrü ala aingürü. Bena tauladan bi alderdi dira, egiazki berezirik, bai gizakiak, bai beste mündükoak, gainti batetan honak eta hona süs-tatzen düenak, bestean, gaixtoak eta gaixtoaren alde direnak. Beharrezkoa da horien bardintazünen eta ezbardintarzünen herrokatzea.

Hona lehenik bardintarzünak.

Antzerkiaren lüzean arrunt argi dena da denak, bai urdinak bai gorriak, taigabe igitzen direla. Ez dira ihoiz ere mintzatzean ekürü egoiten. Jelkaldi eta sartze orokorretan, ber harahonakak egiten dütüe, eta ere güdüetan, aldizka aitzina бүрүz eta gibel бүрүz ber gisan ebilten dira. Halaber, jelkaldietan, tauladaren aitzineko kantuetan, bakoitxak berartan egin üngürü laurdenekoak bardinak dira.

Jelkaldien barnen düe antzezkideek ele egiten. Hortarako bi lagün mintzo direlarik, bata bestetik hürrüntzen dira berriz hüilantzeko. Bat, bere herrokatik elkitzen delarik, bere bertsetaren emaiteko, itxüra üngürükazko bat bezala ebilaldian marratzen dü.

Bertsetak ez dira ohizko mintzoaren arabera ahozkatzen, bena ber notan kantatzen. Arizaleek, beren ürratsak, makilaz lürra joz, izartzen dütüe. Bertsetak izartan kantatzen dütüe, ürratsak launaka ozkatüz zati bakoitxean; bertsü bakoitxak, arren, zortzi ürrats galtegiten dü, orotara hamasei alditan.

Güdüalako, güdülariek, ala urdinek ala gorriek, saihtesean makila tinkatzen düe, ezpata bere zorrotik elkitzen düelarik. Gero ezpata goititzen düe begitartearen aitzinealano güdüala abiatü aitzin. Güdüa ürrentü eta irabazleek ezpata ezarten düe esküineko soinean; herrokan baztertzen dira. Gero aitzindariak keinü egiten düelarik, ezpata goititzen düe besoa lüzatüz, eta berriz zorroan sartzen.

Bahittüa, esküak gibelaldean lotürrik, bi etsaien artean eramaiten düe. Zauritüa bere lagün batek herresta ekarten dü. Goitürrik direnak ere herresta doatza, bena txingilika, ezpata soinean.

Azkenean, beste antzerkietan ez bezala, jokülariak ez dütü ihoiz bere sendimentüak agertzen, ez eta antzezkideenak, beti nortarzüneza begiratzen dü.

Ea ezbardintarzünak orai ikus ditzagün.

Tauladara jelkitzeko bi sargia bada oihalen bi bazterretan: bat urdin, bestea gorri.

Jada erran dügün arabera, bi kolore horiek dütüe bi alderdiak berezten, urdinak honekoak dira, gorriak gaixtokoak. Bai eta beste mündükoak ere oso ezbardinak dira, alde batetik Aingürüak, bestetik Satanak. Horik ere koloreek eta jauntsiek ontsa berezten dütüe.

Denak izaritan balin badabiltza, halere ez düe ber ebilka, berez ari direlarik. Alderdi bakoitxak bere eginmoldea badü, bai eta alderdiaren barnen norberak. Urdinen ürratsak ezti dira, bena ere indartsü. Aingürüak lerden egoiten dira, esküak txüt; ürrats ttiptiak egiten dütüe. Gorriak, aldiz, burrunbari dira, beren hoinez taula joz; ürrats gogorrek dütüe. Satanak edo dantzan ari dira edo beti lehiati. Mezülariak ürrats lüzez tauladaren ützülia egiten düe. Bi alderdiak, arren, oso berezten dira beren ebilkan.

Bertsetaren ürrantzean, urdinek, üngüratzen direlarik eta, esküak altxatzen dütüe, makila eskü esküinaz etxekitzen düe, den bezala mütürra behera bürüz. Gorriek bortizki firrindaka erabilten düe bai bertsetaren erditan ikusleer bürüz direlarik, bai ürrantzean ere beretan üngüratzen diren artean.

Urdinek botz goxoa düe, gorriek, aldiz, motza eta gogorra. Aingürüak ekürüan kantatzen düe; ez dira mintzatzen, ez dira ari ere ber notan, urdinak eta gorriak bezala. Satanak, beren gaintitik, gisa berezi batetan mintzo dira, beren elea dantzan emaiten düe.

Süjeta, heriotzeko menean, belarikatzen da bürünegi batetan eta han bere azken kantorea emaiten dü.

Debrüaren itxüra, txotxongiloa, taigabe igitzen da eta gorriak sartzetik trabatzen dütü, Horik ezin dira barna joan indarka baizik.

Gorri hilak, Satanek lasterka ziloalat urtukitzen dütüe eta han üzten; hagetan eramaiten diren urdin hilak Aingürüek lagüntzen dütüe.

Bardintarzün eta ezbardintarzün horiez beste, beste ezagügarri zonbait ikus genezake.

Historia edo bizitzea kontatzen den ber artean, ikusleek berek düe nola igaran den asmatzen. Haatik, horrek erran nahi dü antzertia ezagützen düela. Pastoralak, arren, jei handi bezala bizitürrik da, ospe handitan. Ikusleen gogo bihotzak ederrez betatzen dira.

Eginmolde bakoitxak ez dü erakusten zer nola gaüzak doatzan, antzezkideen jelkaldiek eta sartzeek baizik, emaiten dütüen hitzeki batean. Hots, erritüalak dü jokü güzia aitzinarazten. Ebilka, harahonaka, jokabidea, mintzo botzantüa, dantza eta beste errituak azkarki jarririk dira, kodifikatürrik, eta beren taigabeko arrajiteak indar gaitza emaiten deie.

Bestalde, gaüza horien artean, lokarri tink bat bada. Keinüak, eleak, kantoreak, dantzak, ez ditake bata bestetik berez. Elesta, ebilkan egiten da, kantüz eta dantza ezbardinen izarian.

Azkenean, hor herrokatü dütügü ezagügarri beharrenak. Bakoitxik ere baztertü gabe denek hartü behar düe. Horien osotarzünak dü gure antzerti zaharra mol-datzen. Zonbait baizik ez bada begiratzen, beste zonbait baztertüz, antzertiaren arauak hausten dira eta jeia ez da haboro pastoralala. Ezagüna da antzertiak denen axola galtatzen düala: idazleak, errejentak, jokülariek eta herriak ororek batean parte hartzen düe. Horien gomendioan dago pastoralaren geroa, ez dadin edozoin antzerki bilaka, ez eta edozoin ikusgarri pastoral estakürüan eskentürrik.





## I6. ERRAN NAHIAK

Pastoralean, arren, agertzen da honaren eta gaixtoaren arteko borroka. Borroka hori ez egün batez edo ordü batez, han hor, egiten dena, bena mündü güzian eta bakoitxean egiten den betierekoa.

### I6.I. Betiereko borroka

Mündü güziaren barnen dira hona eta gaixtoa, alkarri bürüz bürü ari dira ea zoinek irabaziko düan. Alor eta sail güzietan eta bizitze osoaren lüzean sartzen da güdüa eta bi alderdi beti berezten dü, familietan, herrietan, lanean, kiroletan, politikan, ekonomian, zoritxarrez errelijionean ere bai, hots gizarteko harreman oren artean. Gizakian berean, bestalde, onaren eta gaixtoaren ber borroka ikusten da. Bakoitxean biak ari dira alkarren aitzia, norberak berartan bi enjogidüra beütü; honekoa eta gaixtokoa. Arren, alde bateala eta besteala taigabe erakarririk dago. Borroka betiereko horrek gizakiaren ahülezia eta handitarzüna egiten dü. Gaixtoa garraitü behar dü, hona aldiz bete. Askitan ez bada lehenetik baztertzen, ez badü ere bigerrena bürützen, hala ere hor baliatzen dü bere libertatea.

Orotako eta gizakiaren borroka horrek dü mündü güziaren bilbea antolatzen. Arren, pastoralak, bere gei ezbardinak antzezten dütüalarik, mündü honen eta bakoitxaren barne barneala eramaiten gütü. Zeren eta bi alderdiak azkarki ozkatzen dütüan, ikusleari erakutsiz hona eta gaixtoa non diren.

Arren, sail biko bat eskentzen deigü, alkarri lotüririk direnak.

#### Günearen aldetik:

esküin	exker
gora	behera
barnen	kanpoan
elkitze	sartze
zelü	infernü
mündü hau	beste mündüa

**Izakiaren aldetik:**

hon	gaixto
adixkide	etsai
sinesdün	sinesgogor
mündüko	beste mündüko
	aingürü debrü

**Ondoriaren aldetik:**

argi	ülün
urdin	gorri
zorioneko	zoritxarreko

**I6.2. Haütüa**

Jokülariak gaüza horietan sartzen dira, beren antzezkidearen betatzeko, beren günean, beren izakiaren arabera, ondorioa gogoan düelarik. Ikusleak, aldiz, ez: jokülariek eramaiten dütüe gainti batetik besteala. Antzezkideek jaunsten dütüen egoera güziak bizitzen dütüe. Horien artean haütü bat egin behar düe. Zeren eta bizi beitera honaren eta gaixtoaren erditan. Eskentürük zaien historia edo bizitzea berreraikitzen düe, bai antzezkideen alkarrizketatik bai beren ündülgütik.

Haütü horren argitzeko, ikus dezagün zer dabilan ontsala. Erran dügün bezala, ez dira pastorealean ikertzen antzezkideen gogobihotzen gorabeherak, bena betiereko borroka da emanik. Arren, sendimentüak ez dira horrenak edo harenak, bena güzienak, orokorrak. Ez dira ez hebenkoak ez oraikoak, bena güne eta aldi güzietakoak. Horrek ikuslea erakarten dü bere bizitzetik harat, amets bat bizitzen balü bezala. Gaüza horren hobeki bermatzeko, erritu ezbardin hanitxez beterik dago antzertia, ez haatik egitate egünorokoez: mintzatze kantatüz, ebilka izarizkoz, makila erabilkaz, etabar. Bestalde, pastoralaren geia, historia edo bizitze bat izanez, epe lüze batetan eta güne hanitxetan igaraiten da, ikuslea bere bizitzetik harat elkitzen düalarik.

**I6.3. Antzokiaren eragina**

Nola haütü hori eginik den ikusiko dügü orai. Lehen lehenik so bat antzokiari egin dezagün.

Haboroenetan, güne bazter batetan jarririk dago. Ikuslearentako beharrezkoa da bere egün oroztako akodiñetarik hürrüntzea, hobeki jarraikitzeke pastoralak eskentzen deitzen gertakarier. Antzokia güne sakratü bat bezala beilizateke, eliza edo otoizgia baten arabera, harat biltzen da, berartan sartzeko; erraiten dena onartzen dü eta ikusten düana bizitzen.

Gaineala, antzoki hori herriko üngürümen batetan da, ahalik ederrena: mendiz, bothez, arroilaz, oihanez üngüratürük den xoko bat. Güne hori mügatürük ez beita, ikuslearen gogoa, bere begieki batean, hegalta daiteke gorüne mügagabeharat. Han eküratzen da. Bere bürüa ahül eta igarankor senditzen düala eta, arte batez, indartsü eta iraünkor bilakatzen da. Holatan, bera ebiliko da aldien lüzean: lehenaldian, oraialdian, geroaldian. Haboro dena, ez da bera baizik, bestetarik berez, horietan sartüko. Bena igitzen den artean, bere kantüan dütüanak ere igitzen dira. Bera berez, bai; bena berareki batean, besteak, alkarreki eta gizaki bakoitx bezala, mündü berezi hortan, haratonat badoatza.

Bestalde, taulada hütsik dago. Arren, ikusleari ez deio deüs salatzen, zer egin edo ez egin behar düan. Hütsüne horren aitzinean, bere libertateari dei egiten deio. Egün güzietako arrenkürak ützi behar dütüala oritarazten deio. Egiazko bizitzetik elkirik bezala da, arte batez horren ahazteko.

Antzoki hori mündüa bezala da. Mündüan gizakiak bizi diren arabera, honaren eta gaixtoaren borrokan jarririk da. Gaixtoaren okerrak eta honaren deiak hor edireiten dira. Holaz mündüaren bizitzea bera da itxüratürük, honak eta gaixtoak beterik; gizakiak, aingürüak eta debrüak nahasirik dira, gizakia bera beste bien artean borrokan ari delarik. Erran dezagün, arren, pastoralak, ameskeriak baztertürük, berriz egiazkoetarat erakarten gütüala. Haatik, hatsarrean ez bezala, arreginik eta garbitürük. Gaixtoa ari da; bena ikusleak honaren gaintia hartzen dü eta nahi dü hau nausi izan dadin. Gisa hortan, aitzinetik erreüs balin bazen, orai arintürük dago, bere gogo bihotzak libratürük senditzen dütü, berak libertate osoan häütüa egin düalakoz.

### Sargiaren eragina

Tauladaren bi aldeetan diren sargiek zer erran nahi düe? Orit gitean gure antzerkiaren barnen kontatü historia edo bizitzea jelkaldietan zatikatürük dagola. Antzekideak jelkitzen dira tauladaren gibeletik atzinealat bürüz. Beren egongiak ützen dütüe kanporat elkitzeko. Barnen egoiten direno, ez da gertakaririk. Haatik, kanpoan nahasirik dira hona eta gaixtoa. Han düe beren borroka. Gaizkiaren aldekoek gaitzaren pizten taigabe ari dira, honaren aldekoak bühürtü behar zaitze. Sargia igaraiten düe, taulada mündüaren baldeko bilakatü beita, haren gainen mündüan bezala aritzeko. Bi alderdiek beren egitekoa han beittüe, horri lotzeko sargietarik igaran behar düe. Gaixtoaren aldekoek egin ahalak egiten dütüe gaixtoaren hedatzeko, honaren aldekoak hertsatzen dütüelarik. Gaixtokoek herioa düe helbürüa, honekoek, aldiz, libertatea. Bi sargiek itxüratzen düe bizitik heriotzealanoko bidea, bena ere heriotzetik libratzealanokoa.

Alderdi bakoitxak badü bere sargia. Gaixtoena exkerrean da: han dago okerra; bürratazaleen gaintia da. Hau betidanik ikusirik da Satanaren eta ülünaren sarbidea. Zoritxarra ekarten dü. Honena esküin da: han edireiten da züzena. Indarra eta ardiespena itxüratzen dütü. Hortik igaraileak zorihona ükenen dü eta Jinkoa

bere alde düke. Bi erran nahi horik Ebanjelioak erakusten dütü, aipatzen düalarik artzainak ardiak akerrerarik bereziko dütüala, lehenak esküinean ezariz, bigerrenak exkerrean. Exkerrekoak opagaixtotürük daude, besteak opahontürük.

### **Ziloaren eragina**

Zilo bat bada tauladaren exkerreko gaintian. Hau da ifernüalako irangia. Satanek gaixtoaren aldeko hilak horrat urtukitzen dütüe. Ülunpeek hor iresten dütüe. Güne lazgarria da. Oinazeek hor sartüak joiten dütüe, sü garrek xixpiltzen, egarriak itotzen. Ez litake ere hortik elk, Ebanjelioan Lazaron eta aberatsaren parabolan erranik den bezala. Ezin jauzizko leze bat beita. Arren, egürükantxa gabeko güne bat da. Azkenean, gaixtoak debrüaren bazka bilakatzen dira. Greziarrek güne horri Hades izena emaiten zeioen.

### **Eskaleraren eragina**

Tauladaren aitzinean eta erditan eskaler bat goititürük bada. Hortik sartzen dira arizale güziak. Hatsarrean herrokan horra direla eta, denak tauladarat igaiten dira, birazka entseinarien ondotik. Holatan ikusleatarik berezten dira. Hebentik harat horien begien bazkagarri dirate. Pastoralak iraünen düano, taulada güne sakratü bat egiten da. Bestalde, jagoiti jokülariak beteko düe. Haratonat horren gainen ebiliko dira, exker esküin, aitzina gibel. Ordü zonbaitez beren egongia date. Arren, eskalerak goiti badoatzalarik, egongia horren jabetzera badotza. Egiaz horren nausi dirate.

Satanak dira hortik azken igaileak. Espantüka bezala, jauzkor abiatzen dira. Bena indar gorde batek oztopo egiten deie eta ezin igan dira. Debrüa bere izatez bürüzkin beita, indarka joanen dira. Güzier beren balentriaren erakusteko, dantzan goiti joaiten dira eta tauladara heltü bezain sarri, beste jokülariak oro beno lehen hasiko dira Satan dantzak ikusleer bürüz emanez.

Eskalerak, arren, oztopo balin badira, beharrezkoak agertzen dira, jokülari güziek hortik iganez beitütüe beren erituak beteko tauladaren gainen. Gaixtoaren indar handiaren bidea balin badira eta honaren egiteko traba, honaren aldekoek egiten düen borroka ere horietarik abiatzen da. Ez da düdarik, bestalde, pastoralak eskentüko düan ekeia bizitze arruntetik harat egiazkoa ez den batetara iragaiten dela. Bakoitxak egün oroztako arrenkürak bazter ützen dütü; jokülariak, eskalera igaiten düalarik, bai bera bai ikusleak hareki batean, güne sakratü batetan sartzen dira.

### **Musika gelaren eragina**

Eskaleraren beste gaintian, tauladaren gibelean dago müsikarien gela eraikirik, bizpahiru metra taulada beno gorago. Holatan, denek ikusten düe eta güne hortan ez dü ere ikusmena oztopatzen. Ikusleak hantik ontsa beno hobeki ageri dira eta nolabait jokülarien emanaldiari jarraikitzen kümitatzen dütü. Müsikarien egitekoa

antzezkideer бүрүз үүхентүрик да. Beren ebilkan, гүзиак лагүнтзен дүтүе, бай honekoak бай гаixtokoak. Hortakoz гела ez да tauladaren berean altxatүрик, бена бerez. Гүзиек икус beitezakee, horren izatea beharrezkoa агertzen да.

#### 16.4. Antzezkideak

Tauladaren gainen, ordüan, antzezkideak badabiltza. Urdinak esküineko sargiatik jelkitzen dira, gorriak exkerrekotik. Esküinaren eta exkerraren zoinlehentaka bat dago eta horietarik хүррүнago honaren eta гаixtoaren borroka. Би алдердиак алкаррен etsaiak dirade eta oso ezbardinak. Urdinak зүхүртарзүн indartsüan ari dira hona nausi dadin, gorriak abrekeriaz beterik dira, гаixkia orotan hedatү beharrean. Би алдердиак, аррен, norberа бeре sargiatik jelkitzen bada ere, tauladan nahasirik dira.

Horik dira лүрреко antzezkideak. Beste kente bat edireiten да, beste мүндүкоак direnak. Аingүрүиак eta Satanak dira. Horien артеан ere egiten да honaren eta гаixtoaren боррока. Horik ere алкаррен etsaiak dira. Аррен, бер tauladaren gainen hebenkoak eta beste мүндүкоак nahasirik dira. Azken horiek lehenak beste мүндү batеra erakarten дүтүе eta гүһaur ere harat bagoatza. Лүрра, zelüa eta ifernüa батетан bildүрик beitira, гиза izate goragokoan sartzen гирела салатzen дү. Ordüan, hobeki агertzen да гуре antzerkia honaren eta гаixtoaren гүдүа dela, eta ez honen eta гаixtoen боррока баизик. Мүндү hontako гertakariетарик abiatү eta, betikotarзүнеала joiten дүгү. Ooren гainetik гуре antzerkian eskentү urdinen eta gorrien лүр hontako honaren eta гаixtoaren артеко боррока мүндү hau beno goragoko bat bilakатzen да. Antzezkide лүррекоен eta beste мүндүкоен eraginaz, мүга betiko bat hartzen дү. Pastoralа osotzen дүен би talde horik биразка dira: urdinak аingүрүеки, gorriak Sataneki.

Urdinek, egiaren eta зүзенaren alde direlakoz, сегүртанxa osoa badүе. Hori beti erakusten дүе beren jite eta egintza гүзietан. Tarrapatарик ez дүе entзүнarazten, eztiki mintzатzen dira, ez дүе keinү handirik egiten. Aingүрүиак, lehen lehenik, mezүlari hon elibat dira, gehienetan Jinkoaren eta jентеен arartekoak; noizean behin ere Maria Birjinaren eta jентеен ararteko агertzen dira. Gizakiari beti berri hona ekarten дүе, бай eta ere бүрүтzen. Harentako neke bat sortzen bada, hor dira bihotz emaitеко; ezinbestean direnak zaintzen дүтүе, hiler paradүsüa zabaltzen deie eta zelüalartino лагүнтzen дүтүе. Bena beren saila beti ixil ixila да.

Gorriak urdinетарик oso бerezten dira. Handiuskeriaz beterik, үррaтs ozenez ebilten dira, botz hantүз ari dira, firrindaka, oinez taula joz, etabar. Beren gaitza ezin дүе gorde, eta beren indarra hedatү nahi дүе. Horien ondoan Satanak, гүзиеen soa bildү nahian. Balentria aski egiten дүе, zeren eta гаixtoa hona beno икусгарriаgo ezarten дүен. Gaixtoalako tirria, beren errabia ere erakusten дүе. Ihoiz, deүsetan, ez дүе хүts egiten, orotan dira non zer bide oker asma eta jar. Berezkeria sartzen дүе jентеен артеан, аһарra sorrарazten дүе, hona ez dezakee egari. Furfuri-

atsü eta herratsü, bazterrak nahasten dütüe, denetara üluna zabaltzen düe. Petik zirikatzen dütüe gorriak, beren krakaz lillüratzen. Gorriak okerrealat eraman eta, beren boztario handiena da häüen ifernüalat urtukitzea errarazteko. Berezkeria hori ontsa aipatzen dü Loiolako Iñakik: bi kapitainek, Jesükristok eta Luziferek, gizakiak berenganatü nahi dütüe, bakoitxak bere ikurrinaren pean.

## 16.5. Gaüzak

### Jauntsien koloreak

Gaüzetan, prefosta, jauntsiak ikus ditzagün lehenik. Pastorelean bi alderdi izanez, horik bi koloretan daude. Garrantzi handia badü koloreak, zeren alderdiak, hanitxetan gorriak eta urdinak, beren kolorearen arabera, izentatzen diren.

Haatik, mündü hontakoez beste, hor dütügü beste mündükoak. Aingürüak xuriz jauntsirik dira. Kolore horrek argia eta distira itxüratzen dü. Bena ogengabetarzüna ere, aingürüer doakien arabera. Aipatzekoa da aingürüak pastorelean agertzen direla urdiner albidata emaiteko eta horier paradüsüko sargien idekitzeko. Arren, xuriak gainti bat salatzen dü ahal baikorra, beste bat erritu sarbideko bat. Bestela erraiteko, xuriz jauntsi aingürüek urdinak heriotzetik elk eta bizialat ekarten dütüe. Horik arrasortzen bezala dira, jauntsi xurizko haur bateiatüak bezala, zelüko betiereko bizitzean sartzeko.

Bestalde, urdina xuriari lotürrik dago. Honaren kolorea da, ohizko kolorea delakoz eta ere bere erranahiarengatik. Zelüaren kolorea da. Zelüko aingürüek bezala lür hontako argia eta gogoa üdüritzen dütü. Horrez jauntsirik denak honealako gogozkak egiten dütü. Zelühertzea mügagabe den bezala, gogozka horik barna bilakatzen dira: egiaren bila, betierekotarzünaren bidea hartzen düe. Urdin den zelütik jaisten dira beharrezkoak diren eki eta ebiak. Lürra biziarazten düe eta gizentzen, lantare eta frütü ügari jagoiti ekar beitezake. Arren, kolore urdinak, zelükoa dela eta, urdinez jauntsirik direner eragin hongarria ekarten deie. Zelü urdina zohardi den bezala, horiek indar metatzen düe, gaixtoaren borrokatzeko segürrean ahala biltzen beitüe.

Gorriak, aldiz, indar aitzizko bat sortzen dü, besteen herrala eta joiteala eramaiten düana. Kolore horrek, bere aitzinetik eta bere gibeletik, bortizkeria ikaragarria ekarten dü. Gaixtoaren aldekoen kolorea da. Akülatzen dütü gaixtakerialano eta okerrerialano. Borrokaren tirria dü eta odol egarri da. Nahaskerialat бүрүз bultzatzen dü, bakea hügü beitü. Bestalde, zirikatzeo ahalmenez beterik da: edertarzünaren itxüra izan eta gizakiak lilluratzen dütü eta ustegabetarik ere okerrealat erakarten. Ber artean, abrekeriari emanik da eta begitarte ezinago ezti baten erakusten badaki.

Pastorala honaren eta gaizkiaren borroka izanez, koloreak bietan zatitzen dira, bi kolore nausietan, urdina alde batetik, bestetik gorria. Ber tauladan nahasirik, horien izatean berean edireiten da borroka. Hau edo bakoitxaren barnen igaraiten

da, edo kanpoko indarrer aitzi, edo indarren beren artean. Ordüan kolore horiek, alkarren aitzikoak beitira, izatearen bikuntarzüna itxüratzen düe. Izate horren maila güzietako, barneko eta goreneko indarren esgarak jakinarazten dütüe: lürraren eta zelüaren borroka bat eskentüririk da. Güdü hortan, urdinek eta xuriek alkarganatüririk gorria zanpatzen düe. Holatan, pastoralak hobeki antzezten dü bakoitxean eta güzietan egiten den honaren eta gaixtoaren borroka betierekoa.

Aipatü behar dügü kolore beltza. Errejenta eta müsikariak beltzez jauntsirik dirade. Xamarra beltza ekarten düe. Betidanik jeietako jauntsia zen. Sormen eta emankortazünaren üdüria da beltza.

Xuria aipatü beitügü, elükea ote beste erranahi bat? Jinkoa ez da agertzen pastorealean. Xuri hori izan leiteke Jinkoaren itxüra. Berezküntea egiten dü gibelean ageri ez direnen eta aitzinean ageri direnen artean. Gibela zelüaren eta ikusezinenaren ezagügarria lizate. Gibeletik elkitzen dena, ez delarik sargiatik igaraiten, Jinkoaren gogotik jiten da. Hala nola aingürüak, oihalaren erditik jelkitzen beitira, Jinkoak igorten dütü.

### **Gäüza zombait**

Hiru kenteetan zatika genitzake pastorealean agertzen diren güzjak: tauladarenak, antzezkideenak eta müsikarenak

### **Taulada**

Taulada oihal xuriz, lezar eta ezpel abarrez eta ostoz apaintüririk da. Hola Besta Berriz altareak antolatüririk dira. Beraz, taulada altare balde bilakatzen da. Hor eskentzen den ikusgarria besta bat bezala ikusirik da. Bena ez zoinahi besta, besta handi bat baizik: jei eder bat ospatzen da. Besta Berri elizkizün bat den bezala, pastoreala ospakizün bat da. Oihal xuriz, abarrez eta ostoz apaintü tauladan, egintza berezia betatzen da, sarbidezko erritu bat, güziak, bai arizaleak bai ikusleak, borrokan eta bestan sarrarazten dütüan erritu bat.

Zertarako, bestalde, erredola eta banderak? Lehen lehenik borroka bat dela eta, ezagügarri berezgarriak daude bi alderdien aitzinean güdüoihalak. Ontsa berezirik izan ditean, bedera alde ezarririk dira, bai eta kolore ezbardineki, bata gorri, bestea urdin; batak eta besteak berenganat alderdi bakoitxa deitzen düe; horik norberaren güdüoihalari lotzera erakarririk dira. Güdüoihalak, alderdi bakoitxaren aitzinean, gidari dira, eta ere zaintzale. Horien ondotik, beldürrik gabe ebil ditake; segürtan-txa osoa ekarten deie eta emaiten indar eta albidat. Bandera horik, orozgain erditan xütik dagon ikurrina, gora altxatüririk dira zelüaren eta lürraren artean; zeren eta igaraiten den borroka mündü honetakoen eta beste mündükoen borroka den. Banderak eta beste ezagügarriak gainekoen eta pekoen lokarriak dira, zelüa, ifernua eta lürra bat egiten dira.

Debrüaren edo gaixtoaren itxürak, gorrien sargiaren alde gainean den txotx-ongilo adardünak, azkarki salatzen dütü zelüaren eta lürraren harreman horik.



Hori ageri ez diren hariz erabilirik den arabera, debrüak gizakien barneko gogozka gordeak zirikatzen dütü, haüen egintzak erabilten, hala nola berak txotxongilo bilakatzen diren. Bestalde, ontsa ezarririk da güzien ikusmenean izateko. Ori-tarazten deigü gaixtoa gainti orotarat hedatürük dela, bai eta bakoitxaren barnean ere gorderik. Gora beita, debrüak jakinarazten dü ifernüaren, mündüaren eta giza-kiaren ere nausi izan nahi dela. Igitüz eta bere dantza tzarrapatana emanez, gaix-toan biltzen düan boztarioa agertzen dü.

Tauladaren gainen den ziloa idek daiteke. Ontsa ikusten da argitik ülünpealako iragangia dela. Ifernüko sargia da. Lür hontan gaixto izan direnak pastoralak ifer-nüalat urtukitzen dütü. Hiltzen direnean, lürpeko erreinuak orozbakoz iresten dütü.

### **Antzezkideen gaüzak**

Hona orai antzezkideek berek eramaiten dütüen gaüzak.

### **Makila**

Ürrütkez edo elorri xuriz eginik da. Herritarrak balia lezake bai sügeetarik bai basihizietarik bere bürüaren zaintzeko. Haatik haboroenetan eбилteko lagüngo bat da, bereziki mendian. Zer nahi den, ahala, indarra eta albidata itxüratzen dütü, zeren eta pasterala gertakari eta borroka bat beita. Makilek xingola bat badüe lotürük. Kolorezkoa da, urdin edo gorri. Kolorezko xerrenda horien arabera, mak-ilak honaren eta gaixtoaren borrokan parte hartzen dü. Edergailü horrek, alderdi bakoitxaren borrokan sartüz, emaiten deio betetarzün eta indar.

### **Ezpata**

Bi norabide ikus genezake: gaixtoen esküetan gaixki eta itxes egile; honen esküetan, aldiz, züzen eta honkigile. Atxeirüz eginik dago. Zorrotz da eta tzistazale. Bien esküetan, prefosta, indarra ekarten dü.

### **Gerrikoa**

Honek tinkatzen dü eta lotzen. Arren, segürtantxa, indar eta ahal emaiten dü; hori hanbat haboro ageri da non hortarik ezpata txilintxau den. Gaixtoaren aitziko zaintzale da. Honaren aldekoak borrokan alkar lotzen dütü eta gaixtoaren aldekoak gaixtoan isigogor bilakarazten dütü.

### **Eskümantxoak**

Erran dügün bezala pasterala jei bat bezala bizitürük da. Lehenik, jokülariek eta herri güzia badakie gaüza eder eta handia eskentzen düela. Gero, borroka bat edo galtzen da edo irabazten. Arren, emaiten deigüen antzerkiak jaunsten dü eder-tarzün eta xügüntarzün berezi bat.

### **Mozorroa**

Aitzinetik antzezkiye güziék mozorroa ekarten züen. Orai gorriék baizik ez dütüe südürpeko lüzeak. Jadanik ikusi dügü jokülariak ez dütüala bere sendimentüak ez eta antzezkiyeenak erakusten. Mozorroak sendimentüen ekarlearen ezagügarriak dirade. Mozorrodünak aldaezin izan behar dü. Holatan ere pastoralaren orokortarzünaren erranahia begiraten dü. Bestalde, agertzen dira antzezkiyeen enjogidürak. Hala nola südürpekodünak itsusi agertzen diren eta indar zapazaleen eta abrean ekarle.

### **Koha**

Gorriék бүрүн gainen ezarten düen бүрүestalkia da. Gorriez besteeék ez düe holakorik. Diren beno handiako erakusten dütü. Bere zaingoan etxekiz gaixtoalako ahalmena emaiten deie eta kolorezko oihalez eta lümaz apaintürik beitagö, bere aitzikoak beno indartsüago izateko eta häüen zapatzeko noha sartzen deie. Mirailak badütü, gorriék urdinen ütsützeko nahia beitätü; gorderik eta petik jokutzen dira häüen ehikiago goitzeko.

### **Zaharoa eta kakoa**

Biak satanenenak dira. Lehenaren bidez, zehatzeko züzena hartzen düe, gaizkileak botzik azotekatzen dütüelarik. Bigerrenareki gahatzen dütüe, ürratzen, ziloalat lerrarazten. Egiaz debrüaren ezagügarriak dirade.

### **Müsika**

Müsikaren gäüzetan, bi tresna bera dügü heben aipatzen, ohidürazkoak direnak: atabala eta txülüla.

Noiztenka kantore baten bertseten artean joiten düe, orozgain kantore hunki-garrietan edo antzezkiye baten ordü berezi edo latz baten paradan. Ikusentzüleak bihotz biribilkatzera deitzen dütüe. Heben, honaren mündüan gaude. Hortan sartzeko, atabala zelüak egin keinüa bezala da. Txülülak, bere gaintitik, bere hüxtü ürragarriaz aidea mozten dü. Txoriaren goizanko edo arratseko kantorea bezala da. Biek bizia eta zorihona goraki ozkatzen düe, bizizale güziak bakearen gozatzera eramaiten dütüe.

Haatik, atabala eta txülüla gehienik Satanen dantzetan entzüten dira. Satanak zurikeriaz hantürik daude. Arren, goragoko erranahi horien arabera, atabala eta txülüla baliatzen dütüe, maltzurkeriaz lillüratzeko eta gezürraren sakatzeko. Zorihon eta bake faltsüz jaunsten dira. Bi müsikagailü horiék gerlaren mündüa ere oritarazten deigüe. Atabalak oldartzera eta bühürtzera deitzen dü. Biak, ordüan, gaixtoalat бүрүz ützülerik dira. Sü emaiteko indar handi biltzeko alkarrü lotzen dira. Bestalde, dantza lagüntzen düen bezala eta besta bozten, gaixtoaren egintzak besta egiten dütüe. Gaixtoaren ospakizüna eskentzen deigüe.

## 16.6. Jelkitzeak

Bi alderdi eta bi kolore diren arabera, bi sargia ere badügü: bata urdinena, bestea gorriena.

Biak iragangia bat dira. Antzekideen bideak dira, beren egongiaren barnetik elki eta kanporat doatzalarik. Beren etxeetan direno, badakie nausi direla. Joaiten direlarik, ez dakie zer nola agitüko den, borroka bat baizik abiatüko düela eta gero ürrentüko. Barnen, mündü ezagünean dira; kanpoan, aldiz, ezezagünean. Arren, elkitzen direlarik, misterio gorde batetan bezala sartzen dira, mündü arrunteko alor batetik taulada den alor sakratüala doatza.

Borroka bat eginen beita, urdinak elkiko dira, gaixtoa baratüko düe, hari bühürtzeko eta haren goitzeko. Gorriek, aldiz, bereki ekarten düe gaixtoa, lagüntzen düe eta hedatü nahi düe. Edo urdinen aitzinean gibeltü beitira, edo aski egin düela uste beitüe, txotxongilo itxüran den debrüa häien bidean jarten da eta kanpoan egoitera bultzatzen dütü, gaixtoaren egiteari jarraik dezaen.

Gorriek eta Satanek gaixtoa mündüan nausi ezarri nahi düe eta hortarako lana erres düe. Gizakiaren ahülezia handi dago eta haren gaixtakeria orotaratzabaltzen da; sinesdünen arabera, gizakia bekatüala ekarririk da eta Satan beti haren ondoan ebiltzen da, noiz azkenean lürra joaraziko deion. Gaixtoaren egiteko, Satanak gorrinen beren tzarkeriaz eta ahüleziatz lagüntürik dira. Ordüan, alkarreki ebil ditake.

Ez da hala urdinetzaz. Beren beitaran aitzinean dira, libertate osoan badoatza, borrokan aritzeko. Beraietan biltzen düe albidata eta goitzeko ahala. Bestalde, beren ürratsak zalegi bilakatzen badira, beren ahüleziak ezin düalarik gaixtoari bürü eman, ordüan dei egiten düe goiko indar honer. Oihalaren erditik Jinkoak igorrririk, aingürriak agertzen dira. Gaixtoa ez bezala, hona gordean egiten da: aingürüek ixil ixila lagüngoia ekarten deie.

## 16.7. Egintzak

Egintzak oso arautürik dira. Egiaz errituzkoak dira, ohidüretan ontsa lotürik. Alderdi bakoitxaren eta antzekideen arabekoak dira. Heben ere antzertiaren ezagügarriak sail hanitxetan biltzen dütügü.

### Ebilkak

Ebilkak, pastoralaren hatsarrekoak eta ürrentzekoak, lehen eta azken peredikükoak, ikusleer bürüz xüxentürik dira. Jokülariek horik jakiletako hartzen dütüe, ikusgarri baten ezin hobeki eskentzeko hon direla. Joküleri güziek, edozoin antzekide betatzen düen, algarreki jei eder baten agertzearen nahiküntea handia badüe, oro ber ebilkari jarraikiz, beren alderdiaren arabera.

Jelkaldietan, urdinak baratx ebiltzen dira, ürrats ospe batez, zeren eta

honarentako egiten düen borrokan, indartsü diren. Gaixtoari bühürtzen beitira, züzenean direla ez düe düdarik.

Horien lagün diren aingürüak ürrats ttipiz badabiltza, lürrean ebilten ez balira bezala, bena aidean eta zelüan. Zeren ez diren mündü hontakoak, bena bestekoak. Bizizaleak benedikatzen dütüe. Hola düe agertzen beren izate zelütiarra: jenteen artean Jinkoaren egiazko mezülariak dirade.

Gorriak, aitzitik, laster ebilten dira, hoinez taula bortizki joz. Zeren eta beren ezinegona erakutsi behar beitüe. Beitakie ez direla züzenean, bortxaz beren nahik-eria jarri nahi düe. Indarkerian hanbat dira bürütus, zonbat eginmoldea gogor düen. Isiltarzüenean ez ditake egon, oro herosti dira.

Satanak jauzka jauzka eta lasterka badoatza, bai eta ere dantzan. Taigabe igitzen dira, beti lehiatüki. Hor agertzen da debrüaren satorlana. Beren tzarkeriaren bürüratzeko, zaletarzüna eta ustegabea baliatzen dütüe. Zaleago jokutzen direla eta besteer gezürra ehikiago sakatzen deie. Indar handireki ari diren horik ere beste mündükoak daude.

### Üngürükak

Badakigü üngürüka gure antzertiaren ezagügarri handi bat dela. Antzerki osoan edireiten da, hatsarreko sartzean, ürrentzeko elkitzean, jelkaldietan. Orokorri üdüri lüke antzezkideak zerbaiten ondotik badoatzala, ezin atzamana bezala düena. Üngürüka eta üngürüka, bakoitxa bere güneala heltüko da bere sailaren betatzeko prest izateko; edo aski albidat biltzeko, indar aitzikoak ari beitira, bai antzezkide ezbardinen artean bai antzezkide bakotxaren beitan borrokatzeko. Üngürüak ere egiten dira mintzatzean. Ordüan, jokülaria kanpoko gaintialat hür-rüntzen da, berriz barneko gaintialat ützültzeko. Holatan, hür-rüntzen delarik, bere ahülezia salatzen dü, ützültzen delarik indarra metatzen, üngürüaren barnen zaingoa edireiten.

Urdinak eta gorriak berez hartzen badütügü, bi eginmolde ezbardin ikusten dügü. Urdina eskünealat bürüz ützültzen da, ondoriotako sorrarazten beitütü zorihona eta gogo hona. Gorriak eskerrealat bürüz ützültzen dira, herra eta abrek-eria sorrarazten beitütüe.

### Güdüka

Pastoral osoa güdüka bat balinbada, zer zentzü düe arren egiten diren güdüka bereziek? Horietarik bat hasi beno lehen, alderdi bakoitxak bere gain ahal güziak bildü nahi dütü. Horra zergatik egiten dütüen mehatxü eta territak. Etsaia gütietsiz, uste düe haren indarrak mozten dütüela eta aizatzen, berenak, aldiz, biltzen eta azkartzen.

Güdü errituzkoak dira, güdü ihakinak; alderdi bat aitzina eta gibet badoalarik, honaren eta gaixtoaren betiereko borroka itxüratzen dü. Gibeltzean, borroka galtzen da, aitzinatzean irabazten.

Zoin ere, ezpata eskü esküinaz besüzteian etxekitzen düana eta herresta beitoa, hura goitürük dena da. Ürratsean gibel doana, ezpata ere besüzteian, bena gero bere zorroan ezarten düana, harek nausitarzüna ardiesten dü.

Erraiten balin badügü gure antzerkiak ez düala bizitzean dena erakusten, halere gure barneko izateala erakarten gütü, hau ere errealitate bat beita. Ikusgei güziak, orozgain güdüak, agertzen deigü zer den gizakiaren egiazko borroka. Giza-kia honaren eta gaixtoaren artean ürratürük da. Batetik besteala beti ützül daiteke. Taigabe honetik gaixtoala lerra daiteke, bai eta gaixtotik honeala. Hor dago bere gorentarzüna. Borrokaren bidez, bere bizitze güzia haütü bat bilakatzen da.

### **Makilarekiko egintzak**

Gure antzerki hontan, makilak garrantzi handia badü. Hatsarretik ürrentzealano, jokülariek beren esküan etxekitzen düe. Herrokan haratonat doatzalarik, hareki taulada joiten düe. Ebilkan, elestaren eta kantüaren lagün da, izariak emaiten dütüan ber artean. Ordüan, joküaren erritüan baitezpada sartzen da.

Bestalde ebilketan beretan baliatzen da makila. Ürratsak lagüntzen dütü. Ebiltzaleari segürtantxa eskentzen deio. Pastorelean, jokülaría ebiltzalea bezala da. Antzeztüko den historian, bide ezezagün batetan abiatüko da. Hortarako albidat üken behar dü. Makila esküan etxekitzen düalarik, badaki ildo berri bat hasten düala, eskora beharra badüala.

Arma bat bezala ere ikusirik da makila, bai basaihiziaren aitzí, bai etsaier bühürtzeko, behar bada. Ordüan, esküan düanaren ahalmen eta indar bilakatzen da. Heben, arren, arizaleak бүrü eginen dü alde batetik bere joküari, oso jabe izateko, bena bestetik ere herriari eta ikusleari, horien aitzinean eta izenean tauladala igan beita. Oroen egürükantxari ihoiz hüts ez egin nahiz, jauntsi düan albidat azkarrak hortarat bultzatzen dü.

Jokülarí güziek, beraz, makila gisa horrez erabilten badüe, urdinen eta gorrien esküan bere sail berezia betatzen dü.

Bere bertsetaren ürrentzean, urdínak, tauladaren barnealat ützülirik eta bere gunean eküratürük, esküak altxatzen dütü makilareki batean. Züzenbidearen alde borrokan ari dela erakusten dü. Tauladari sogiten dü, hor beita trajería igaraiten eta antzezkideak eta ikusleak zelüa eta lürra jakiletako hartzen dütüe. Eskübidearentako ari beita, ez dü ihoren aitzinean ahalketzekorik. Bere bigitarte güzier agert dezake, furfuriarik gabe eta segürki.

Gorriak, bere bertsetaren ürrentzean, bena ere bere ebilkan, tauladari bizkarrak jar eta, bere firrindak kanporat бүrüz egiten dütü. Bere бүrüaren alde gainean esker eta esküin, aidea joiten dü, bereganik hürrün aitziko indarren aizatzeke. Üngürümenak pozoak eta kiñoak ekarten dütü. Horik baztertüz, bere firrinden bidez, bere бүrüa zaintzen dü. Haboro dena, bortizki makila erabiliz, üngürüko aitziko ekeien jabe izateko indarra bilbatzen dü. Horra zergatik uste düan zelüaren eta ifernüaren aitzí mehatxüak agert ditzakeala, bere nahiaren jarteko. Hori ontsa

agertzen da, taulada üzten düalarik, Satan den txotxongiloari makila erakusten deiolarik, haren etsiarazteko.

### **Bertsüak**

Erran dügün bezala, gure antzerkiak bere elestan bere bereztarzüna badü. Ez da hizlaxüz emana, bena bai izaritan ezarria.

Antzezkidearen barnen sartzen delarik, joküalaria egün orozko gaüzetarik elk-itzen da. Holatan erakusten da agertzen den geia bizizaleen bizitzetik hürrüntzen dela. Horien eta arizaleen grinetarik antzezkideen jokümoldealat бүрүз senda berezi bat zabaltzen da. Bi mündü direnaz geroz, eleak ere ezbardin izan behar dü. Arren, ez daiteke balia egün orozko hitza, arruntegi beita, bena gure akodiñetarik hürrüntzen gütüan mintzo bat. Ez da berainez sortzen den hitza, bena lantürik den bat, ez ohizkoa.

Joküleriak, mündü berezi batetara joaiten beita, bere lanak eta arrenkürak üzten dütü, eta bere herriko lagünak. Tauladala igaiten delarik, oso baztertzen da eta güne sakratü batetan biltzen da. Errituari jarraikitzeke, hitz izaritarik besterik ez dezake erabil. Tauladaren gainen, altare batetan dago, ebilka eta egintza ezo-hikoez bezala, izartitz magikoez eskentza egiten dü.

Elizkizünetan bezala, erreljione üdüriko errituak betatzen dütü. Bertsetak ber botzean herrokatzen direlarik, letaniak kantatzen diren arabera da. Horien bidez, sinesdüna otoitz eta otoitz ari da, orozgain Jinkoarenganik eskatzen düanaren ardi-esteko. Antzezkideak hala hala egiten dü. Bardinak dira antzezkide güzien koblak. Urdinak, beren züzenaz segür beitira eta gorriak, beren bortizkeriaren indartzeko eta hedatzeko, biak beren üzülüetako bertsetetan ari dira elizüngürüetan letaniak emaiten ari direnak bezala, pastorala ez beita profanoa, nahiz geiak profanoak diren.

## **I6.8. Dantzaren eragina**

Dantza, baboitxekoa eta alkarrekikoa, gure antzertiaren ezagügarri handienen bat dago, antzerki osoa dantza bat bezala ikus daitekeanaz geroz.

Dantza dela medio, joküalaria tauladala igaiten delarik, bestetarik berezten da. Bere bizitzean ez bezala ari denaz gainen, joküari lotzen denaz gainen, dantzaz joküan sartzen da, bere bizitzeko eginmoldea üzten dü, bere gogobihotzak arintü eta horietarik libratzen dütü. Bere ohizko bizitzea baztertüz, trabarik gabe joküari eman daiteke.

Bere lansaila hitzez emaiten badü, dantzaren bidez beste indar bat ekarten deio. Dantzak mintzoa lagüntzen dü. Hitzek berek ezin egin lirokeena betatzen dü. Edozoin joküleri, edozoin alderdi ere bere antzezkideari eta bere jokü bereziari josirik dago. Bakoitxa berartara biltzen da eta bestetarik baztertzen. Dantzaz, mintzoaz bezainbat, bere ametsak eta bere lehiak agertzen dütü. Hortarako,

urdinek, gorriek, Satanek eta aingürüek ez dütüe beren ürratsak ber gisan egiten. Ürrats horiek, arren, haüen jokabidea azkarki ozkatzen düe.

Jokülariak tauladara dantzan igaiten dira, han dantzan ere harahonakatzen dira. Antolatü errituek eta üngürüka eбилkek bestelakatzen dütüe. Aitzinetik, herriko bizizale izanez, besteak üdüri ziren. Orai, ez. Eбилka itxüra ezbardinek, bereziki üngürükek eta taigabeko joanjinek, erritmoak, hots dantzak bakoitxari ekarten deio tauladan gainen bere egitekoari ontsa jarraikitzeo ahala eta indarra. Behar den albidata ardiesten dü.

Hori agertzen bada antzerki osoan, nabariago da güdüaren egitean. Heben güdülaría aitzina eta gibel badoalarik, honaren eta gaixtoaren borroka hobeki ülertzen da. Ezpaten erabilkak bai goitzaleen bai galtzaleen erritmoa aldizka ozentzen beitü, pastoralaren helbüü horri aran handiago bat emaiten deio. Orano haboro, goitürük direnen dantza herrestak. Arren, dantzak bateen azkartarzüna eta besteen ahülezia erran nahi dü.

Ikusten dügün arabera, gure antzerkiak dantzari hanitx zor deio. Erran genezake errituzko dantza bat dagola pastoral osoa, hatsarretik ürrentzealano. Horrek moldatzen deio itxüra berezi bat, miresten dügüna, egünorozko gaüzetarik hürrün delakoz, ezohizkoetarar eramaiten gütüana. Dantzak, egiaz, pastorala ospakizün bilakarazten dü.

## 16.9. Müsikaren eragina

Pastorala, bere osotartzünean dantza bat bada, bere osotartzünean ere müsika lagüntzale dü.

Lehenik, müsikagailüek jokü güzia üngüratzen düe: ontsa ezagün da bai hatsarreko bai ürrentzeko eбилketan. Antzerkiaren lüzean ere, bakoitxaren eta alderdien eбилken hastean eta azkentan. Pastoralaren zati güziak tinkatzen dütüe, haüen üngürüan müga bat ezarten balüe bezala. Holaz, jokülaria erakarten düe taldean bete behar düan leküaren eta jokatü behar düan antzezkidearen hartzera.

Bestalde, denak ixil daudelarik, bai jokülarien bai ikusentzüleen gogoak antolaten dütüe antzerki berezi batetan parte hartzera. Ordüan, indar handi bat antzertiari jarten deioen artean, güziak litürgia baten ospatzera eramaiten dütüe. Arren, beharrezkoak agertzen dira pastoralaren ospakizünaren eskentzeko eta xiberotar azkardüraren ozkatzeko.

Alkarrizketak ez dira elesta ohizkoan egiten, bena kantü bat balde. Ber soinean bertset güzien herrokatzearen bidez, jokülariak bere büriü ahatzarazten dü, historiari büriüz entzüleak ützülik egon ditean. Bena, heben ere sonüaren errepikatzearen bidez, elizkizüneko litaniak bezala bertset horik otoitz bilakatzen dira. Eske eta eske ari dena bezala, heben ari dira erran eta erran, aitzikoen indararen trabatzeko eta goitzeko. Gisa hortan albidat eta ahalmen ardiesten düe, kantüz beren ützülungürüak xoratzen dütüelarik.

Alabena, pastoralaren lüzean, badira beste kantoreak besteak üdüri. Horik beharrezkoak dira, ordü garrantzitsü bati indar lotzeko, trajeriaren ützüliaren erakusteko, bena ere ikusentzüleen hartzearen zorrozteko. Aipatzekoa da süjetak hiltzeko menean belariko xaramelatzen düan kantorea. Egiaz bihotzerdiragarri bilakatzen da, ordü horren herstüra argitzen dü. Bena ere tenore hortako ülündürarik harat leiho bat zabaltzen dü: antzezkideak egin saila aipatzen den artean, bizi hontako azken mügetara soa xüxentzen dü: denak antzokitik barreatü aitzin, betierekoaren egürükantxa pizten deie.

Hau ikusi behar da: musikagailüak eta kantüak ez dira alkarreki ari, bena aldizka. Botzak lekü handia badüalako, müsikagailütik berezten da. Bien ezbardintarzüna nabariago da, bataren ozentartzünetik bestearen argitartzüna hobeki agertzen beita. Gizakiaren botzaren edertartzüna azkartürük elkitzen da. Müsikagailüa ixiltzen delarik, beharriak prest dira entzüteko. Botzen aldia egürükitzen düe eta haboro gozatzen. Müsikagailüak, ordüan, nolabait ararteko lansaila betatzen dü ixiltarzün orokorraren eta botzaren artean. Lehenik, ixiltartzüna mozten dü eta gero kantatü hitzer parte emaiteko, ixiltartzüna berriz jarten dü.

Jokülariak bere sendimentüak erakusten ez dütüanaz geroz, müsika ez dago holako edo halako antzezkideari lotürük. Ezagügarri orokorrer oso emanik da. Gorrien abrekeriaren ozkatzeko, sonü güdulari bat hartzen dü, urdinen albidarentako, aldiz, sonü ezti, bena lotsagabe bat, aingürü zelüko lagüntzaleentako arinago bat.

Bestalde, müsika ez da antzerkiaren egintza berezi bati бүrüz joiten, antzertia egiazko zekürütik hürrün delakoz. Aitzika, ebilkari eta igidürari josirik da, horiek düe manatzen. Igidüra bixkorrago eta müsika azkarrago, indartsüago eta moztüago. Igidüra, aldiz, emekiago eta müsika araberakoa. Müsikaren ürratsak antzezkide bakoitxaren edo taldearen ürratser jarten dira.

Hots, müsika pastoraletik ezin daiteke ken. Elesta, ebilka, igidüra, ürrats eta dantzareki lotüra tinka badü: ezin ditake bata bestetik berez.





## I7. EÜSKAL IZATEAN

Pastoralean eüskal izateari hüilantik lotü gaüza zonbait ikusi behar dügü.

Pastoralak historia, bizitze edo trajeria bat antzezten badü, horik beste sailetan ere edireiten dütügü. Gure herritarrek eginmolde hori maite üken düe. Saintüak edo gizon ezagünak aipatzen dütüen libürüen irakurten edo entzüten gozatzen ziren. Badakigü askitan bertsü eta kantoreetan moldatürük izan direla, bai eta pastoraletan antzeztürük izan diren bezala.

Jinkoa ez da gure antzerkiko antzezkide ikusten. Herriaren bizitzean ere haren izena bera sakratürük dago. Izen horren arrunki erabiltea bekatütako hartürük da. Norbaitez erraiten delarik: “ Jinko karraskaz ari da’, horrek entelegarazten dü ez dela ontsa ari, itsuski baizik. Horra zergatik Jinkoari бүрүз ixiltarzün hori baden pastoraletan: Jinkoa ez da agertzen.

Bestalde, herritarren gogoan, Jinkoa züzenaren alde xütik dagola ezagütürük bada, hanitxetan mendekazale agertzen da. Gaizkigileak eta okerrak zehatzen dütü. Bakoitxa, ez beitaki ontsala bera zertan den, züzen ala ez ari den, beldürrean egoiten da. Lazdürak üngüratzen dü eta bultzatürük bezala dago ea nola gogoko izanen zaion, nola bere alde eta lagün bildüko düan. Ordüan, mündüko beste indarretarat ützültzen da. Indar horien lagüngoak bildü behar dütü, eta egin ditzakeen ogenak baztertü. Hola egiten zen Mari, Basajaun edo beste mitoen sinestetan. Honaren eta gaixtoaren arteko borrokak hor lezake zentzü har. Pastoralak jentearen ikusmoldean dütü, arren, bere erroak.

Gure antzerkian, makila, hatsarretik ürrentzealano erabilten bada, üdüri lüke baserritarren bizitzetik heldü zaiola. Prefosta txainküak süstengü bezala baliatzen dü. Bena bestek ere harahonaketan, beren ebilaldietan, esküan hartzen düe, orozgain artzainek eta beste hanitxek abereen lanetan. Arren, hanitxten lagüntzale bilakatzen da. Bestalde, makilek, bai itxüra arruntekoek, bai kakodünek, bai eta makila gorriek beste bi helbürü badue eüskaldünen esküetan. Gizakiari emaiten deio gorentarzün bat eta kraka sotil berezi bat. Erabil dezakee ere arma gisa, bereziki makila gorria: honek eskü aldeko mütürrean atxeirüzko dzastakei bat badü, baioneta bezala baliatzeko.

Pastoralean hainbeste marratzen diren biribilak eta üngürükak gure ohidüra zahar zaharrak daude. Atzinistoriako harrespilak jada biribil ziren. Gure hilerritako harriak ere hala ziren eta orano hanitxetan hala dira. Ikus dezakegü etxalte, bordalte eta bereziki olasariak biribil itxüran antolatürik izan direla. Errituzko egintza batez, gizon indartsü batek aixkora har eta lau hegaletarat urtukitzen züan. Ordüan, lau jomüga horietan jarten züen beren biribila, kanpoko indar gaixtoetarik begiratürik izateko. Gure dantzek ber erranahia düela erran genezake. Biribilka emaiten dira, edo bederen üngürüka hanitx badüe. Izapen errituzko hori sakratüa izan leiteke. Besta zonbaitetan, edo elizebilbidea egiten da edo karrika üngürüa. Elizatik elkitzen den arabera üngürüen egiteko, pastoraleko joküleriak sargietarik elkitzen dira, tauladaren gainen üngürüen egiteko.

Gorriak, gure herrian, koloreaz beste erranahirik ere badü, pastoralen berezgoa bat beitira. Debrüa da gaügen nahaslea, gerla gorria hedatü nahi beitü, eta izena galtzagorri emaiten zaio. Zerbait gaitz egarten delarik, erraiten da gorriak ikusi. Bizitzekorik ez düenez entzüten da edo behar gorrian edo gose gorrian direla. Iparreko aize bizia deitzen da aize gorria. Norbait gaitz builta handian delarik, gorri gorria jarri dela dioe. Jauntsirik gabe denaz erraiten da bilaiz gorri edo pikarrai gorri dela. Arren, pastorealean gorrien taldea gogor agertzen bada, badü egiazki zertzaz.

Azken gogozka horiek argitzen gütüe pastoralak gure eüskal izatean dütüala egarzolak, gisa batez, egünorozko egoerak, ikusmoldeak eta bizitzetik hürrün üdüri gaüzak lantzen dütüala. Tauladan antzetzürik dena gizakiaren gosea eta arrenküra salatzen dü.

## ONDORIOA

Xiberoan aspaldidanik dügün antzerkia, pastoralara, orano bizi da eta deüsek ez dü erakusten itzaltzekoa dela.

Belaünaldi batetik besteala etengabe igaraiten da. Herri batek, gero beste batek, aldizka bere gain hartzen dü pastoral baten eskentzea. Ordüan, herria ohartzen da bere eskü dagola haren bizia. Gaüza ederra, prefosta, katea lüze baten maila izatea. Hortarako büraso eta zaharrek gazteer aholkü emaiten deie. Oroek ohidüra zaharren begiratzeko axola badüe, pastoralaren adereen zaintzekoa ere, berek aitzinekoetarik ikasi dütüenen xüxen beren ondokoer erakastekoa. Holatan gure antzerki zaharrak gizaldiz gizaldi ere jarraikiko dü.

Adere horiek ez düe hautse behar, arbasoetarik üken ondorea oso osoa gazteagoer igaran dadin. Halere lege horietan ahalbide bat beno haboro izan daiteke. Herri bakoitxak bere jitea badü, eta jeian bere herexa berezia ezar dezake. Adere horien barnean, bai idazleak, bai errejentak, bai edonork, besteeki batean, bere abürüpena eman dezake.

Arren, egitürak ez dü antzertia ekürarazten. Egitürak osoki begiratü behar badü, berrikünteko bidea beti zabalik da. Pastoralara ontsa ezagützen düanak badaki ikustera doalarik ez dela beste antzerki bat üdüri. Alabena, aldi bakoitx, ikusaldi berri bat agertzen da. Ikuslea ez da ekürü egoiten, egiaz parteliant oso da beti. Arizaleeki batean, ospakizün sakratü baten betatzera jinik da.

Abiatü ildoa orano aitzina zabaltzen da. Gure kültüran lotürrik da. Honen puzka bat da, beste hanitxen artean. Haatik, puzka berezi bat, besteetan edireiten ez dena. Gure hizkuntza bezala zahar balin bada, bizi da eta beti berri. Hasi dügün mentealako baliagarri da. Gure ohidüra zaharra ez da eküratzen. Bere erroetarik taigabe sortzen den indarrak 2Igerren mentearen bidea hartzen dü.



## PASTORALA GERO

Orai düala hirutan hogei bat urte, pastoraletzaz hanitx idatzi züan Hérellek zion urte güti zombait barna gure jei zaharra galtzekoa zela. Geroztik holako gaüzak entzün dütügü bai eta ere irakurri eüskal prentsan.

Bizitzearen aldaken lotsa direnek beren gaztetarzüna galtzen düe. Holakoak haraintzineko gaüzetan gibeloiki karroatürik daude. Pastoralak holaka eta halakoa zela dioe, batere funtsik gabe, eta ohidüra zaharrak ez ditakeala erhi pünttaz ere hunki. Amets hüts bat edo beste aldiko alegia bat baizik ez düe ikusten. Oraikotartzüna pastoraletan etsai bat baizik ez daiteke izan. Nork eta ere berritzapen zerbait ekarten düana, beren jergunantzan, ifernüko mila debrüen esküetan ezarten düe.

Bena so ttipi bat bera egiten badügü zer izan diren mentez mente pastoralak, erres da erraitea ezbardinak izan direla, bai geietan, bai jauntsietan eta emaiteko moldeetan. Gaüza hanitx bestelakutzen ahal da. Hau bai ez dügü behar ahatze: pastoralak bere arau bereziak badütüala, kültür agerraldi berezi bat dela. Ikusbidez, ez da antzerki arrunt bat, ez eta opera bat ere.

Beste batzü badira edo kültür azolik batere ez düenak edo etsitürik daudenak. Horientako jadanik pastoralak partida galdürik dü. Egünko bizitzeak beste griñarik beitü, zerentako ezdeüskerietan edo ezdeüsezinean denbora igaran.

Pastoralak zaharkeria bat balitz, ez lüke bizi lüzerik. Gizon zahar okitüa heriotzetik hürrün ez den bezala, hala hala gaüza güzier agitzen da. Böhürtzen denak bai, adinean joanik ere, azkar iraiten dü eta ez da berehala aurritzen.

Beharrik gaüzak bi ikusmolde horietarik beste dütügü. Udüri zait oraiko egünetan pastoralak ederki bizi dela eta hola jarraikiz indartzez doala.

Ihoiz beno haboro emaiten da. Azken urte horietan urte oroz bat plantatürik izan da, zombait aldiz zoin lehentaka bat bazelarik. Arren oranokoan pastoralak emaile herri eta saldo nahidüantak badira. Saldo horietan gaüza berri bat ere agertü da. Ez dira arizaleak izan, orai artino zen, bezala, hantik edo hortik jinetarik. Oraidanik ediren dezakegü alkarte bat, Seaska edo ikastetxe bat egiten ikusi dügün arabera.

Pastoral hontzale berri agertü da. Azken berrogei urte hoietan agertü gira saldoxkot bat. Hain arte llabürraren barnen ihoiz ez zen holako idazle herrokarik piztü. Üdüri lüke ere, herroka hori orano lüzatüko dela.

Prefosta, batean, pastoral ezbardinak ikusi dütügü. Pierra Etxahunek, Uskaldünak Ibanetan aitzineko mente hatsarreko pastoralari jarraikiz, Eüskal Herriko gizon ezagünak aipatü badütü, nihaur bide berrietan abiatü niz. Ez niz xehetarzünetan heben sartüko. Hau bera erran nahi nüke: nik egin lanetarik landa ez daitekeala nekez baizik baztert jagoiti, ez daitekeala pastoral bat planta oraiko Eüskal Herriaren griñak aipatü gabe, geiak ala gure historiatik elk ditean ala beste nontik nahi. Hori argi dago azken pastoraletan, bai eta azken azkenean Abadia Urrüstoi pastoraletan. Bestalde, Pette Basabürü-k zabaltü oraiko bizitzeari lotü behar date eta ez baserrikoari baizik, bena hiriko, induztriako, ekonomiako eta beste gaüzako bizitzeari. Jadanik pastoral geiek egünko izanaren erditan pulunpatü behar düe.

Azkenean pastoral ikusleek ere badüe zer erran. Jei bakotxarentako milaka jiten dira. Arren, pastoralaren geroa horien esküetan ere dago. Ziberotarrentako zerk egiten dü horren arraskasta?

Lehenik ez da düdarik beren gaüza bezala etxekitzen düela. Jei zaharra Ziberoko ondoregoa da. Aitek ondorioz eman hontarzüna baliatü behar düela uste düe. Ez lizate züzen horren ükatzea edo agor üztea. Ziberoaren eginbidea da ohidüra zaharraren begiratzea eta gerokoer berriz iganaraztea.

Bestalde indar berriak sortü dira eta handitzen ari. Horiek ere beren mintzoa entzünarazi nahi düe. Pastoralak, jei herrikoia izatez, herriaren deiak aranatzten dütü, haren nortarzüna azkartzen. Pastoral hontzaleak herriaren enjogidürak üsnatzen badütü, herriak bere gaintitik bereak bezala hartzen dütü: bien artean lokarri tinkak sortzen dira eta biek algarreki dütüe jeia plantatzen.

Horra zerentako uste düdan gure pastoralak egün ederrik badüala bere aitzinean. Ez da zertzaz gogolarri izaterik. Senberki geroari sogiten ahal dügü, ihoiz haatik ez ahaztez bizitzea betiko borroka lüze bat dela. Pastoralak mintzajeareki bat egiten beitü, gainti hortarik halere griña handi bat badügü, ikustez nola eüskara beheiti ari den. Bena gure Herriak beste güdükarik irabazi dü. Hontan ere goitüko dügü.

## JUNES CASENAVE-HARIGILEN GOGOETA ELIBAT BERE IDAZLANETZAZ

### I. Ene idazlanak

Ene idazlanek alor bat beno haboro hunkitzen düe. Badira, prefosta, jenteak ezagützen dütüanak: pastoralak, gero, eüskal mintzajeari xüenki lotürük direnak, bai hiztegiak, bai ikasgeiak, historia libürüak, mitologia, ipuinak, olerkiak, ützülpinak.

a) Pastoraletan ene nahiküntea da ikusleer zerbaiten erakastea, jei eder baten barnen, hortara jinik direnaz geroz. Hortakoz, axola handiena ekarten düt geiaren ikertzeko, güziak izan ditean igaran diren arabera, batere üko egin gabe egiari. Halere, ohartü behar da ez ditzakegüla güziak aipa eta, ordüan, haütü bat egin behar dela. Horreki batean, ahalak egiten dütüt gaüzen erraitea biderik ederrenean, bai eta bildüz entzüleen gogoak lürretik gora, egünoroztako antsiak, arte llabür batez bederen, ahatz ditzaen, amets xoragarri bat bizitzen balüe bezala.

b) Eüskara, eta barnen xiberotarra, izan da enetako helbürü handiena. Hamabost urtez erakatsi düt AEK-ren taldean. Bena hau sortü beno lehen, ikusten nüan beharrezkoa zela hiztegi baten txütik ezarte, ahalaz oraiko gaüzak ere aipatzez. Sail hortan hasi nintzalarik, ez zen holakorik eta ez ziren gure ohiko hitzer baizik zabalik. Lüze izan zen ere lan hori: hogeita hamabost bat urte.

d) Mitologiako ipuinak arraheinki bildü dütüt lüzaz. Heben, aitzinetik ez zen neke bati, bürü egin behartü zait. Jenteari gogoan sarrarazi zeioen gaüza horik ez zirela egiak eta holatan ez zirela behar aipatü, gure entzütea ere joiten züela; apez zonbaitek zioenez, ogen ere egiten züen erreljioneari. Ordüan, ahatze behar züen edo pürü ez honartü.

e) Idatzi dütüdan ipuinek beren erroa düe gure ohidüretan, sinestetan, gure bortü eta bazterretan, eta hor bizi diren jente eta abereetan. Idatzirik dira prefosta hiztegi berezi batetan, bena beti agertü beno lehen irakurri dütüt bai haurrer, bai gehitüer, eta horietan lautan hogeit urteak edo haboro bazütüener. Horien ontsa ülertzeko, haatik, eüskara hein batetan menperatü behar da. Bena, baliatzen dütüe bai ikastoletan, bai gaü eskoletan. Arren pedagogiako tresna bat dira ere.



f) Ützülpenek lekü handia badüe ene idazlanetan. Ezagütürük da egün bakoi-txeko liturgiako ützülpena (Egün orotako irakurgetiak): lan gotorra, zazpi ehün eta berrogei eta hamarrez goiti orrialde düana. Lan handia ere Batikanoko bigarren Konzilioko manüen ützülpena latinezko idazkitik abiatüz. Horik idatzirik izan dira oraiko bizitzeari бүрүз eta oraiko aitzinamentüen araberrako hitzeki. Zail izan da xiberotarrez ezpiritü horri jarraitzea. Bena uste düt, batere harrokeriarik gabe, hein batetan kausitü düdala. Eta lan baliosa da. Badüt ere beste ützülpenik.

g) Olerkietzaz zer erran? Olerkia herridi güzietan bada, ez nüan, arren, bazter üzten ahal hortan ere ari izan gabe. Batean bertsitän idatzi düt, bestean libroki, narrazio poetikoetan bezala. Ez düt ikusten olerkia ülündüra bat bezala. Üdüri zait, erranaldiak ez ohizkoa izanik ere, argi izan behar düala eta ez dela behar irakurlea sobera einarazi. Gogoa arin, begiek eramaiten düen bezala, irakur dezan.

## 2. Eüskara

Eüskara, Xiberoan, ene ustez, ez da beste Iparraldeko lürraldeetan beno kinta hobeagoan eta txarragoan. Hala da: adinak apalago eta gütiago emaiten düe. Ene ustez ere, eskolak dü, oraiko egünetan ogen handiena egiten. Gainti bat, haurrak goizik (nik diot goizegi: hogeita hamaläü urtez erakasgietan egon niz) eskolalat joaiten dira. Beste bat, ez da haboro herriko eskola güti baizik. Herrietako ikasleak bildürük dira batetara, eta, prefosta, han frantsesa da nausi bakoitxa. Eta emeki emeki aitamak eta aitaini amainiak hortara lerratzen dira, ezin bestez bezala. Idatzi düdan Xiberotar Gramatika, Sü Aziak agerrarazi dü.

Eüskara geroan? Hanitxetan zinez gogolarri jarten niz. Eta gero baratzen düt hau edo hori eta bihotz emaiten deitae. Bai, badira gero eta haboro, gazteak oroz-gain, eüskara maite beittüe eta lan ere egiten beittüe. Hürüntik jin eta lür lütotik elki eta, badira argidürak: ikastola, Ikas-bi, gaü eskola, irratia, alkarteak, eta zonbat eta zonbat indar. Agian!

## JUNES CASENAVE-HARIGILEN BIBLIOGRAFIA

### Pastoralak

*Santa Grazi* (1976) - *Ibañeta* (1978) - *Pette Basabürü* (1982) - *Maitena Basabürü* (1982) - *Zumalakarregi* (1989) - *Santa Kruz* (1992) - *Agota* (1992) - *San Mixel Garikoitz* (1994) - *Juan Martin Puyerrredon*, frantsesez (1997) - *Agota agerraldia* (1999) - *Jesüs* (2006) - *Santa Engrazi* (2006) - *Eñaut d'Elizagarai* (2007).

### Beste lanak

*Orbiako naba*, Ibañetako güdükaren historia eta olerkia. 1978.  
*Sainte-Engrâce, ma montagne*, olerkien ützülpena. 1979.  
*Amikuze*, saiakera. 1983, Gordailu.  
*Altaiko herensügea*, ipuina.  
*Egün orotako irakurgetiak*, Bibliako zatien ützülpenak (750 orrialde). 1986, Itxaropena.  
*Sineste zahar eta ez bain zahar*, mitologia ipuinak. 1989, *Maiatz* aldizkaria.  
*Simun Gimon Zetegiet*, hagiografia. 1991.  
*Tomas Zumalakarregi, gudalburua*, biografia. 1993, Gero.  
*Oihanealat*, olerki. Imagina ezazu Euskadi. 1994.  
*Hiztegia: Frantses-eüskara*. 1989, Hitzak, Ozaze.  
*Hiztegia: Eüskara-frantsesa*, aditza xiberotarraren egitüra eta erabilka. 1993, Hitzak, Ozaze.  
*Basabürüko ipuinak*. 1997, Izpegi, Baigorri.  
*Zübürtiazko bideetan*, olerkiak. 2000, *Maiatz* aldizkaria, ekaina, 33. zbk.  
*Xiberoan eüskaraz, 40 ikasgei*. 2000, Sü Azia, Maule.  
*Batarzün berria*. 2002, Biblia elkarte, Belokeko fraidetxea.  
*Harkaitz urdina*, 2005, Ekilore, Mensajero S.A.  
*Xiberotarraren gramatika*, 2007, Sü Azia, Maule.  
*Aroa*, 2010, Astobelarra argitaletxea.  
*Xiberoko antzertia edo pastoralak*, ikerketa. 2011, Euskaltzaindia, Bilbo.  
 Artikulüak, egünkari eta aldizkarietan.  
 Etnografia, ikerketak.

### Argitaratzekoak

Kontzilio batikano 2-ren *Lau manüen ützülpena*, xiberotarrez, latinetik xüxenka. Narrazio poetikoak.

Bederatzü pastoral eta astolaster bat: *Maitena Basabürü*, *Judit*, *Dabid errege*, *Lüküze laugerrena*, *Frantses Xabier*, *Larraine pastoralala*, *Barkoxe pastoralala*, *Atarratze pastoralala*, *Agosti Etxekopar*, *Jésus frantsesez*, 1789.

Stefan Vul-en Niourk eleberri fikziokoaren ützülpena, xiberotarrez.

Elizako mintzaldiak (hiru urtetako bi sail).

Olerkiak.

*Hiztegia Latera-Euskara*.

### Literatür sariak

Antzerkikoak: Toribio Alzaga, 1980: *Pette Basabürü*; Toribio Alzaga, 1992: *Agota*.

Ipuinekoak: Eüskal Herriko Kultur Etxearen saria, 1986: *Zankamebe*; Maiatzena, 1989: *Ezpondari bürüz*; Hendaia hiriarena, 1989: *Elürte*.

Olerkikoak: Central Hispano, Imagina ezazu Euskadi, 1994: *Oibanealat*; Jeux floraux du Pays Basque, Angelu 1999.

2000, Sarako Euskal Idazleen Biltzarra saria.

2005, Agosti Xaho saria.

2007, Mendebaldeko alkarte omenaldia.

2009, Alkartasuna fundazio omenaldia.

### Ützülpenak

Frantsesez eta gazteleraz: *Santa Grazi*, *Ibañeta* (1978), *Zumalakarregi*, *Santa Kruz*, *San Mixel Garikoitz*, *Agota*, *Santa Engrazi*, *Eñaut d'Elizagarai*.

Frantsesez: *Pette Basabürü*, mitologiako ipuinak.

Gazteleraz eta okzitanieraz: *Juan Martin Puyerridon*.

Inglesez: *Santa Grazi*.

## ARGAZKIAK

- Junes Casenave-Harigile, *Eñaut d'Elizagarai* pastoralara (Gamere-Zihiga, 2007), [surlaroute.blogs.sudouest.fr](http://surlaroute.blogs.sudouest.fr).
- Mustraka, *Xabakoa* pastoralara, (Barkoxe, 2010).
- Jokülaría mintzatzen makila eskü esküinean, *Xiberoko jauna* pastoralara (Ezpeize, 2008), [www.eke.org](http://www.eke.org).
- Taulada, Louis Colas-en marrazkia (1922) ([www.euskonews.com/052Izkbk](http://www.euskonews.com/052Izkbk)).
- Güdüa, *Eñaut d'Elizagarai* pastoralara (Gamere-Zihiga, 2007), [surlaroute.blogs.sudouest.fr](http://surlaroute.blogs.sudouest.fr).
- Dantzariak, *Xabakoa* pastoralara (Barkoxe, 2010), [www.kazeta.info](http://www.kazeta.info).
- Kantariak, *Agota* pastoralara (Altzai-Lakarri, 1999), [www.oocities.com](http://www.oocities.com).

